



MONOGRAFIKOA  
Demografiaren  
bilakaera  
ibarrean  
(2001-2021)

**Debagoieneko biztanleria hazi egin da, apal, nahiz eta heriotzak jaiotzak baino gehiago izan** / 4



**'Itsasoa da bide bakarra' lana aurkeztuko du Ines Osinagak Durangoko Azokan** / 32

**Festa batekin borobilduko dute Euskaraldia gaur Arrasaten, bi asteko dinamikaren ostean** / 9

**Endika Donnay, Gipuzkoako onena Donostian: "Gauza berriak bizi izan ditut lehen maratoian"** / 30



**"ELKARREKIN GEHIAGO GARA ETA GEHIAGO EGIN DEZAKEGU"**

Mondragoneko Kongresuko eta Batzorde Iraunkorreko presidente Leire Mugerzak dio batasunak ematen diela indarra kooperatibei; eta Ulma Taldeak korporaziotik irteteko asmoei buruz, hauxe: "Zailtasunen aurrean, elkarriketa" / 2





Leire Mugerza, Mondragoneko Kongresuko eta Batzorde Iraunkorreko presidentea, Aretxabaletako egoitzan, Otaroran. IMANOL SORIANO

### ABENDUKO ZUBIA

Honako egun hauetan jasoko dituzue hurrengo aldizkariak:  
**GOIENA:** abenduaren 16an.  
**'Puntua':** abenduaren 16an.

Ondo ibili!

### SINADURAK

 ESTEPAN PLAZAOLA / 6	 AINHOA SEMPER / 29
 ASIER ELORZA / 22	 MARIA AGIRRE / 40

**2 Mo 99€**  
erreflexuen aurkako  
**betaurreko graduatuak**

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.



Otalora Lizentziaduna, 18  
Tel.: 943 79 29 95  
**ARRASATE**

Ibargarai, 16  
Tel.: 943 76 15 75  
**BERGARA**

www.multiópticas.com

**MULTIÓPTICAS**  
kalitatea - konfiantza - diseinua

**Eneko Azkarate Laspiur**

ARETXABALETA

Leire Mugerzak (Mutriku, 1976) urtarrilean hartu zuen Mondragoneko Kongresuko eta Batzorde Iraunkorreko presidente kargua. Urte gorabeheratsua izan da haren lehena. Ulma Taldea eta Orona Mondragon korporaziotik ateratzeko urratsak egiten hasi zirenetik, lehen aldiz eman du elkarrizketa bat hedabide baten aurrean.

**Ulma Taldeak argudiatu du Mondragonen azken Kongresuan, azaroaren 15ekoan, ponentzia bat onartzea proposatzen zela, "aldaketa garrantzitsuak" zekarrena. Zer jasotzen da, zehazki, Ulmak begi onez ikusten ez duen eta Kongresuak onartu zuen proposamenan?**

Kongresura ponentzia bat eroan genuen, Laboral Kutxak Mondragonera egiten dituen ekarpenen egokitzapenen gainekoa. Kreditu entitatea denez, Espainiako Bankuaren arauak errespetatu behar ditu. Mondragon korporazioko kooperatiba guztien artean, Laboral Kutxa da arau horien baldintzatzen dituen bakarra. 2021eko urtarrilean, korporazioko organoek, hau da, Batzorde Iraunkorrek eta Kontseilu Orokorrak, etorkizuneko araudietara egokitzen joatea komenigarria zela erabaki zuten eta Laboral Kutxari proposamena egitea eskatu zitzaion. Mondragoneko, Laboral Kutxako eta kanpoko aholkularitza zerbitzuekin batera landu zen proposamena. Aurtengo martxoan aurkeztu zaie proposamena organoei; ondoren, korporazioko dibisioei. Azkenik, ekainaren 19an erabaki zen emendakin prozesua irekitzea, irailera arte. Emendakinik egon ezenez, Kongresura eroan zen.

**Bestetik, duela 15 egun egindako 2022ko Kongresu horretara begira, aldaketa bat proposatu zuten Ulma Taldeak eta Oronak ekainean. Ze aldaketa?**

Ekainaren 3an egin zuten proposamena, Mondragoneko organoek 2022ko Kongresua deitu baino astebe eskas lehenago. Ulmak eta Oronak "itunpeko kooperatibaren" figura berri bat eratzera proposatzen zuten. Horren arabera, Mondragoneko Kongresuko kide izateari uzten diote; bigarren, Kongresuaren arauditik kanpo geratzen dira; eta, hirugarren, elkartasun tresnak aldatu egiten dira itun-

# "Itunpeko harremanak gure izaerarekiko aldaketa dakar"

**LEIRE MUGERZA MONDRAGONEKO KONGRESUKO PRESIDENTEA**

Mondragoneko Kongresuko eta Batzorde Iraunkorreko presidentea dio korporazioko kooperatibak "gehiago" direla eta gehiago egin dezaketela "elkarrekin" badaude

peko agiri baten bidez haiek, hau da, Ulma Taldeak eta Oronak, erabakiz, urtero, zenbateko ekarpena egin korporazioari edo taldeko gainerako kooperatibei. Ez zeukan zerikusirik gu lantzen ari ginen ezerekin. Esaterako, Laboral Kutxak jarraitzen du Kongresuko kide izaten, araudia betetzen du eta ekarpenak egiten segitzen du.

**Zergatik ez zen onartu Ulma Taldearen eta Oronaren proposamen hori azaroko Kongresura eroatea?** Kontseilu Orokorrean eta Batzorde Iraunkorrean Mondragoneko kooperatiba guztietako ordezkariak daude. Ekaineko bileretan aztertu genuen Ulma Taldeak eta Oronak bidali zuten proposamena, eta aho batez erabaki genuen ezin genuela gure egin eta 2022ko Kongresura eramane. Ez genuen ulertzen zein

**"ELKARTASUN TRESNAK ALDATU EGITEN DIRA ULMA TALDEAREN PROPOSAMENAREKIN"**

**"BARNEAN HITZ EGIN GENEZAKE, EZTABAIDAREN BIDEZ; BEHIN ATERATZEA ERABAKITA..."**

arazo zituzten eta ze arrazoi zeuden Mondragonen izaera erabat aldatzeko; bigarren, Mondragonen izaera erabat aldatzen duen proposamena izanik, talde osoan eztabaidatu beharreko kontua zen, eta horrek denbora eskatzen du, eztabaida naturala egiteko denbora hartu behar da; azkenik, horrelako proposamen bat bileretan egin behar da, eta Ulma Taldeko inor ez zen egon batzarretan.

**Laboral Kutxari "protagonismo handiegia" eman izana ere leporatzen dio korporazioari Ulma Taldeak. Zertan eman dio "protagonismo handiegia" korporazioak Laboral Kutxari?**

Ulmako ordezkariak ez dute horrelakorik adierazi organoetan; are gehiago, Ulmako ordezkariak espresuki aitortu eta goraipatu dute Laboral Kutxaren ekarpena Mondragoneko esperientzia kooperatiboari. Lehen aipatu dudana bezala, Laboral Kutxa araututako eta gainbegiratutako kreditu kooperatiba da, eta haren izaera, duda barik, berezia da. Ez dut uste hori inork zalantzan jartzen duenik.

**Ulma Taldeko ordezkariak ez dira modu ohikoan batzarretan egon?** Hala da. Haien partetik, azkenaldian, ez da ohikoa izan batzarretan parte hartzea. Korporazioan bezala, kooperatiba guztietan organoek, kontseilu errektoreak, zuzendaritza kontseiluak eta bestek, dute eraba-

kimena; gurea ez da erakunde presidentzialista.

**Gainerako kooperatibetan planteatu da Ulma Taldeak eta Oronak proposatu dutenaren antzekorik?**

Korporazioan eta kooperatibetan eztabaidak ohikoak dira, baina adostasunetara heltzeko borondatea izan dugu. Zailtasunen aurrean, elkarrizketa. Mondragon korporazioa kooperatibez osatutako taldea da eta haren organoetan 30 bat kooperatiba, dibisio ezberdinetakoak, daude ordezkaturak.

**Finean, Ulma Taldeak eta Oronak planteatzen dute atxikitako kooperatiba izateari utzi eta itunpeko kooperatiba izatea. Zer esan nahi du horrek?**

Ez dugu eztabaidatu proposamen horien inguruan. Korporazioko Kongresuko kide izateari utzi egiten diotela, ez dituztela apli-

**"USTE DUT UNE HONETAN ULMA TALDEAK EGITEN DUEN PROPOSAMENA EZ DELA SOLIDARIOA"**

**"ZIURGABETASUN GARAI HAUETAN, KOOPERATIBEI BATASUNAK EMATEN DIGU INDARRA"**

katzen gure arauak eta itunaren bidez, urtero, erabakitzen dutela fondo kooperatiboetako ekarpenak zertara, nola, zenbat egin. Mondragon beste gauza bat da, arau batzuk, gobernantza modu batzuk, elkartasun neurri batzuk... Munduan erreferente bagara, beste era batekoak garelako da. Itunpeko harremana izateak gure izaerarekiko erabateko aldaketa dakar. Mondragonek zelakoa izan behar duen kooperatiba guztien artean eztabaidatu eta erabaki behar dugu. **Mondragonek eta bertako kooperatibek nahi dute Ulma Taldeak eta Oronak kide izaten jarraitzea?**

Jakina! Parte dira. Bazkide eta lankide dira. Era berean, argi dugu haiek direla autonomo beren erabakiak hartzeko. Elkarrekin gehiago gara. Hori ez da esaldi hutsa. Mondragon zenbat eta indartsuago, orduan eta eragin handiagoa izango du. **Ulma Taldeko bazkideek erabakitzen badute Mondragon korporaziotik irtetea, aurreikusten duzue itunpeko harreman hori?**

Ez zaigu oso serioa iruditzen. Lehenengo, joan, eta gero, itunpeko harremana planteatu. Barnean hitz egin genezake, eztabaidaren bidez. Behin ateratzea erabakita...

**Ekainean Ulma taldeak eta Oronak egin zuten proposamenari ezetz esan ostean, urrian enteratu zintzen, hedabideen bidez, haien bazkideekin batzarrak egiten hasiko zirela korporaziotik irteten ala ez erabakitzeko?**

Hala da. Urri amaieran jakin genuen, hedabideen bitartez, Ulma Taldeak irekiko zuela korporaziotik irteteko prozesua. Horren aurrean, bai neuk eta baita Iñigo Uzinek, Mondragon korporazioko presidentek, bilera formalak egiteko eskatu genien Ulma Taldeari eta Oronari. Gure azalpenak emateko, haiei entzuteko... Gaur arte.

**Zer dira elkartasun mekanismoak?** Interkooperazio eta elkartasun mekanismo asko ditugu: badugu Zentro Korporatiboa, berrikuntza, finantza, pertsonen gestioa, komunikazioa, nazioartekotzea eta kooperatiben interesen defentsan aritzea helburu duen kooperatiba; bestetik, formakuntza eta gobernantza Otaroran; horrez gain, erosketetan Ategi; edo prebisiio sistema eta despenplegu laguntzarako, Lagunaro; baita Sustapen Zentroa, negozio aukera berriak bultzatzeko; in-

bertsioetarako, kooperatiben baliabide propioak indartu eta euren proiektua garatzeko finantza laguntza ematen duen entitatea; Mondragon Fundazioa, besteak beste, zailtasunak dituzten kooperatibei laguntzeko; hezkuntza eta berrikuntza zentroak eta unibertsitatea bultzatzeko eta kooperatiben interes komuneko bestelako proiektuak bultzatzeko.

#### Zeren arabera da kooperatiba bakoitzak elkartasun mekanismotara bideratzen duena?

Urteko emaitzen arabera. Batez beste, Ulma Taldeak, une honetan, kolaboratzen duen elkartasun mekanismoei irabazien %4 eskaintzen die. Azken urte hau oso ona izan da sektore industrialarendako.

#### Zenbat da Ulma Taldea Mondragon osoan?

Ulma Taldea bederatzi kooperatibak osatzen dute. 2021eko emaitzen arabera, korporazio osoarekiko, lanpostuei dagokienez, %6; salmentetan, %8; eta irabazietan, %13.

#### Gauzak oso ondo dihoakielako erabakitzen dute orain korporaziotik joatea?

Ez dut pentsatu nahi gauzak horrela direnik. Bi taldeak izan dira, historikoki, solidarioak. Uste dut, hori bai, une honetan Ulma Taldeak egin duen proposamena ez dela solidarioa. Nire iritzia pertsonala da.

#### Ulma Taldea kaltetuta gertatu da Mondragon efektuagatik?

Egia esan, guri ez zaigu halakorik iritsi. Kontrakoa. Ulma Taldeak beti baloratu izan du korporazioan egotea. Kooperatiba bakoitzak erabakitzen du zer izan nahi duen, autonomia da. Baina interkooperazioan, esaterako, oso aktiboa izan da beti Ulma Taldea.



Leire Mugerza, elkarrizketaren une baten. IMANOL SORIANO

#### 2013an gertatu zen Fagor Etxetresnen erorketaren ostean, Etorkezineko Mondragon ponentzia onartu zuen Kongresuak 2016an. Ze aldatu da Ulma Taldeak beste harreman mota bat planteatzeko?

Mondragon izango da bazkideek erabakitzen dutena. Inork ez du zalantzan jartzen kooperatibak burujabeak, autonomoak eta independenteak direla, eta ez dagoela inolako esku-hartzerik Mondragonen aldetik kooperatiben enpresa proiektuetan. Hori Mondragoneko kooperatiba guztiok dakigu. Bestetik, duda barik, elkarrekin gehiago gara eta gehiago egin dezakegu. Elkartasuna eta interkooperazioa inoiz baino beharrezkoagoak dira ziurgabetasun garai hauetan. Batasunak ematen digu indarra. **Korporazioko bi kooperatiba talde horien mugimenduekin, elkartasuna non geratzen da?**

Guk nahi dugu Orona eta Ulma Taldeko kooperatibak Mondragon korporazioan jarraitzea, eta benetan uste dugu Ulmaren, Oronaren eta beren bazkideen etorkizuna hobea izango dela Mondragonen. Bestalde, Mon-

dragoneko eredu kooperatiboa ez dago zalantzan. Elkartasuna eta interkooperazioa dira gure oinarria, eta gure kooperatiben konpromisoa irmoa da zentzu horretan. Gure ezberdintasunekin, arrakasta eta akatsekin,

### "Beti erabateko errespetuz"

Korporazioa uzteko urratsak egin zituela hedabideetan lehen aldiz zabaldu zenetik, Ulma Taldeak behin atera du komunikatu ofiziala. Bertan, korporazioari leporatu dio "bazkide guztien borondatea baldintzatzea". Horren gainean zera dio Leire Mugerzak: "Gure bidea beti izan da errespetuzkoa bertako bazkide eta organoekiko. Errespetu horren oinarri, gure betebeharra da informazioa ematea gure bazkide guztiei, bai Ulmakoei, baita gainontzeko kooperatibetako bazkideei ere. Oronak eta Ulmak aurkeztu zuten proposamenaren eta ireki dituzten prozesuen gaineko balorazioa konpartitu zuen korporazioak bere kooperatiba eta bazkide guztiekin; dokumentua irakurri duenak badaki erabateko errespetuz aritu garela".

garrantzitsuena partekatzen dugu.

#### Oñatiko taldeak dio egin duen proposamenak "kooperatiba-mugimendua indartu" egiten duela.

Horrelako proposamen garrantzitsu bat, eta prozesu hauek, modu honetan aurrera eramateak ez du indartzen ez kooperatiba-mugimendua, ez Ulma ez eta Mondragon.

#### Abenduaren 16an egingo dituzte korporaziotik ateratzeko batzarrak Ulma Taldeak eta Oronak. Mondragonetik aterako balira, ze ondorio izango lituzke korporazioan?

Urteotan gure kide izan diren bi kooperatiba talde inportante Mondragonetik irtengo lirateke, eta horrek pena emango liguke. Horrez gain, Mondragonen dimentsioaren ikuspegitik, txikiagoak izango gara.

#### Ulma Taldeak bere kooperatibetan bazkideekin egin dituen batzarretan korporazioaren ikuspegia zabaldu ez dela uste duzue?

Ez dakigu. Guk ez dugu izan aukerarik korporazioaren ikuspegia emateko. Gure ikuspegia korporazioko kooperatibetako organoetara zabaldu dugu. Baina hortik aurrera...

#### Zein da Mondragon korporazioaren aurreikuspen ekonomikoa datozen urteei begira?

Mondragon ondo doa. Egungo mundu-testuinguruan, oso konplexua eta erronka ugariarekin, gure kooperatiben bilakaera ona izaten ari da: industriaren hazkundera %14koa da eta salmenten %73 nazioartekoak dira; banaketan, hazkundera %6koa da; zentro teknologiko, hezkuntza zentro eta unibertsitatearen bilakaera oso ona izaten ari da, Lagunarak merkatuko gorabehera aurre egingo die eta Laboral Kutxaren ekitaldi itxiera bikaina izango da.



ZU NON, HAN DA!

57. DURANGOKO AZOKA

### LIBURU AURKEZPENAK

Abenduak 13. 18:00

Arrate Egaña. "Itzalen Distira"

Elkar liburu denda (Bergara)

Abenduak 20. 18:00

Jakoba Errekondo. "Ilargia eta landareak"

Itzar liburu denda (Antzuola)



Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria DEBAGOIENA

2001etik 2021era bitartean, %1,96 hazi da biztanleen kopurua Debagoiengan, Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) emandako datuen arabera. 62.903 herritar zeuden 2000ko hamarkadaren hasieran eta 64.137 ziren iaz. Igoera apala izan da, beraz, baina, halaber, heriotzen eta jaiotzen artean joera aldaketa bat hauteman da: lehen urteetan parean egotetik ia-ia bikoitza izatera igaro da azken urtean. Alabaina, bi aldaera horiez gain, gogoan izan behar dira migrazio mugimenduak ere; oro har, emigrazioa baino gehiago, immigrazioa izan da nagusi.

Bailarako demografiaren bilakaeraren gaineko azterketa egin du Goiena Komunikazio Taldeak, eta hor ateratako ondorioetako bat da. Saretzen proiektua abiatu du, EITBrekin eta Tokikomekin, eta azken bi hamarkadetako Hego Euskal Herriko demografia-datuak izan dira aztergai, datu-kazetaritza lantzeko eta lankidetzari bide emateko; abiapuntua BBCren eta Erresuma Batuko dozenaka toki hedabideren *Local News Partnership* ereduaren dago. Are gehiago, aurrerantzean ere asmoa da beste gai batzuk jorratzea.

Alabaina, Ainhua Alustiza Demografian doktoreak ohartarazi du biztanleriaren hazkundeari dagokionez ez lukeela gorabehera horien gaineko "balorazio positibo edo negatiborik" egingo, datuen atzean zer dagoen jakin behar dela iritzita. "Zerbaki borobil eta orokorrekin oso zaila da ezer esatea, gauza asko ezkutatu ditzaketelako".

POPULAZIOA, BEHERA


## ARRASATE ETA LEINTZ GATZAGA, BILAKAERA NEGATIBOA IZAN DUTEN HERRIAK

Bada, hautemandako hazkundearen atzean zer dagoen aztertu behar da, baina, horretarako, datuek zer dioten ere jakin behar da.

Bailarako herriek ez dute joera berbera izan, baina Arrasate eta Leintz Gatzaga dira bilakaera negatiboa izan duten herriak hogeitaz urteetan; aldi berean, Debagoieneko herririk handiena eta txikiena dira.

## Biztanleriaren bilakaera Debagoiengan

ITURRIA: EUSTAT ETA NASTAT



# Debagoieneko biztanleria %1,96 hazi arren, behera egin du jaiotza-tasak

Azken bi hamarkadetan, bailarako populazioari dagokionez, jaiotza baino heriotza gehiago erregistratu dira, eta migrazio mugimenduek garrantzi handiagoa izan dute 2014tik; batez ere, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa barruko immigrazioa gailendu da

Arrasateko kasuan, 23.026 biztanle zeuden 2001ean eta, hogeitaz urteren ostean, 21.729 ziren. 1.297 herritar gutxiago zeuden, beraz, eta %5,63koa izan zen beherakada. Leintz Gatzagan, berriz, %5,5ekoa izan da beherakoa, hamahiru herritar gutxiagorekin.

## IGOERA NABARMENA, BITAN BESTE HERRIETAN GORA EGIN DU; BATIK BAT, ARETXABALETAN ETA ELGETAN

Eskualdeko gainontzeko zazpi herrietan, berriz, gora egin du populazioak, bi diren arren nabarmentzekoak. Aretxabaletan %18,81ekoa izan da igoera azken hogeitaz urteetan eta Elgetan, %15,69koa.

Antzuolan, Aramaion, Bergaran, Eskoriatzan eta Oñatin,



## DEMOGRAFIAREN BILAKAERA DEBAGOIENGAN 2001-2021

Goiena.eus-en, Hego Euskal Herriko, bailarako eta herrietako datuak landu ziren martitzenean, eta baita *Hemen Debagoiena* telebista saioan ere. Gaurko *Puntu*-n, berriz, gaiaren gaineko monografikoa argitaratu da.

aldiz, hogeitaz urteko igoera apalagoa izan da. Halere, Bergarako da azpimarragarriena: hogeitaz urtean 68 biztanle gehiago zituen; beraz, igoera %0,46koa izan da. Egonkor mantendu da kopurua.

## BAILARA, ZAHARKITUA 60 URTETIK GORA DUTENAK GEHIAGO DIRA; BATEZ ERE, LEINTZ GATZAGAN

Adinari dagokionez, hiru tarte bereizten dira: 20 urtez azpikoek biztanleriaren %17,90 osatzen zuten iaz eta 60 urtez azpikoek, %32,56. Bi tarte horietan igoera atzeman da 2001a ezkerreko, baina ez, ordea, 20-59 urte artekoen: iaz, biztanleria osoaren %49,54 osatzen zuten.

Debagoienak, beraz, biztanleria gero eta zaharkituagoa du,

eta herrien artean ere badaude berezitasunak. Esate baterako, Leintz Gatzaga da zahar gehien dituen herria, hamarretik lau baitira 60 urtetik gorakoak; hain zuzen, biztanleen %40,27.

Alustizak azaldu du aldaketarik handiena 2001etik aurrera baino gehiago XX. eta XXI. mendeen artean zehaztuko lukeela, egun herritarrak gehiago bizi direlako eta jaiotza gutxiago daudelako. "60 urtetik gorako kopurua handiagoa da, eta, horrek gora eginez gero, logikoki, beste adin taldeek behera egin dute".

HIL, JAIO BAINO GEHIAGO

## 11.638 HAUR JAIO ETA 12.689 PERTSONA HIL DIRA DIRA HOGEI URTEKO EPEAN

Jaiotzen eta heriotzen kopuruek ere uste bera berretsi dezakete, hogeitaz urteko tartean gehiago izan baitira hildakoak jaiotakoak baino. 2001a ezkerreko, 11.638 haur jaiotzeak eta 12.689 pertsona hil dira. Are gehiago, heriotza horietako gehienak 2020an eta 2021ean atzeman dira, eta horrek eragin zuzena izan dezake COVID-19aren izurritearekin, Hego Euskal Herrian ere joera errepikatua baita.

Bada, izurritea izan du gogoan Marta Luxan Demografian doktoreak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologiako irakasleak ere: "Bilakaera demografikoa oso malgu den zerbait da; zelanbait, zerbait gertatzen bada, berehala mugitzen da". Azaldu du aurreko gertakarietako batzuek –adibidez, 1918ko gripea– erakutsi dutela heriotza kopuru handiak gertatzen eta jaiotzak jaiotzearen moduko bat gerta daitekeela ostean, eta, kasu honetan, hori 2022ko eta 2023ko datuek erakutsiko dutela, 2021eko datuetan jada joera bat ikusi den arren.

## HAURRAK, GUTXI ETA BERANDU AZKEN BI URTEETAN GORA EGIN ARREN, UME GUTXIAGO IZATEN DIRA EGUN

Teoria hori gogoan, bilakaerari erreparatuta joera aldaketa bat antzeman daiteke. Behera egiten ari baitzen jaiotzen kopurua 2015etik aurrera; bai, behintzat,

2019-2020 bitartera arte, pandemiaren lehen hilabeteetara arte, baina berriro ere gorantz egiten hasi da Debagoiengan, Arrasaten eta Elgetan izan ezik.

Jaiotza-tasak, ordea, gaur-gaurkoz, ez du beste urte batzuetakoaren parekorik, eta Alustizak "amatasuna atzeratzearekin" lotu du egoera. "EAEn ama izateko batez besteko adina 33 urtean dago eta emakumeen ugalkortasun tasa 1,5ekoa da". Alegia, gaineratu du nahi baino haur gutxiago izaten dituztela. "2018an Espainian eginiko ikerketa batean ondorioztatu zuten haurrik izan ez zuten andreen erdiak ama izan nahi zuela. Eta hor dago arazoa: zergatik ez dute lortzen?".

Haren esanetan, adinaren arabera aldatu egiten dira arazoak. Adierazi du 25 urtez azpikoek diotela "gazteegiak" direla ama izateko, baina badaudela "beste desabantaila batzuk" ere: "Lan baldintzak, faktore ekonomikoak, osasunarekin lotuak... Amatasuna ateratzeko faktore koiunturalak dira, eta ez da berdina urtebetez atzeratu edo bost-hamar urtez. Hor ja arazoak daude".

Eusko Jaurlaritzaren erretaz ohartua da, eta *Erronka demografikorako 2030 euskal estrategia* jarri du martxan. Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak du gaia esku artean, eta, Asier Aranbarri Berrikuntza Sozialaren zuzendariak azaldu duenez, gazteen emantzipazioa 24-29 urte artera aurreratu nahi dute jaiotza-tasa handitzeko. "Zenbat eta gazteagoa emantzipatu, orduan eta aukera gehiago seme-alabak izateko, eta baita horien kopurua handiagoa izateko ere".

JOAN-ETORRIEN ERAGINA

## 2014TIK HAUTEMAN DIRA GEHIENAK, ETA NAGUSI DIRA EAE BARRUAN EGINIKOAK

Jaiotza eta heriotza tasez gain, migrazio mugimenduak ere kontuan hartu behar dira, eta, Debagoieneko kasuan, 2014tik aurrera erregistratzen dira gehienak, baina, batik, bat imigrazioak du indarra.

Datuen arabera, migratu duten pertsona horien gehiengoaren helmuga Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako beste herri batean

dago, eta berdina gertatzen da emigratu duten horiekin ere. Jasotako kopuru horiek, ordea, nahasgarriak izan daitezke. Izan ere, hiru lurralde horietan eginiko mugimenduetan, berdin kontatzen da bailara barruan egin edo bailaratik kanpo, eta, beraz, zaildu egiten da Debagoieneko datu zehatzak eskuratzeko, ez delako jakinekua eskualdeko beste herrialde batzuetara mugitu diren edo ez.

Dena den, jakinekua da mugimendu gehieneko herriak Leintz Gatzaga eta Elgeta izan direla eta gutxienekoa, Oñati. Gainontzekoak erdiko multzo batean leudeke, datu nabarmenik gabe.

ERRONKEI BEGIRA

## JAIOTZETAN JARRI DU ARRETA ALUSTIZAK; LUXANEK, BIZITZAK ERDIAN JARTZEAN

Adituak, beraz, datozen erronkei begira daude.

Alustizak jaiotzak jarri ditu mahai gainean, uste baitu horiek ahalbideratzeko baldintzak sortu beharko lirakekeela. Hilkortasuna ere gogoan izan du, gizarte taldeen artean dauden "ezberdintasunak" murriztu beharko lirakekeelako herritarrek "kondizio berberak" izan ditzaizten. Are gehiago, badu zer esana bizi-itxaropenari dagokionez ere: "Osasuntsua izan beharko luke; gero eta gehiago bizi, baina gero eta hobeto". Hala, azpimarratu du kontu horiek identifikatu, esplikatuz eta agintariei helarazi beharra dagoela.

Luxanek, aldiz, harago jo du: "Bizitzak erdigunean jarriko dituen irakurketa demografikoa egin nahi izanez gero, gai batzuk kontuan hartu beharko genituzke". Besteak beste, aipatu du "egiturazkoak" diren auziak izan behar direla gogoan; adibidez, migrazio politikak. Baina baita beste batzuk ere.

Esaterako, zaintzan egin du azpimarra: "Zer-nolako zaintzak behar ditugu gure komunitatean? Nola banatuko ditugu zaintza horien ardurak? Nola antolatuko dugu?". Izan ere, nabarmendu du Gipuzkoan, adibidez, badagoela zaintza komunitarioa "marratzeko" proposamena.

Horrez gain, gogoan izan ditu enplegua, etxebizitza, baliabideen ustiaketa eta genero harremanak.



Iñigo Urkullu lehendakaria eta Arantzazulabeko zuzendari Naira Goia, Patronatuko kideekin, Arantzazun, eguaztenean. IREKIA

# Arantzazulab bisitatu du Urkullu lehendakariak

Eusko Jaurlaritzaren Arantzazulabeko patronatuko kide iraunkor gisa gehitu da, eta, hain zuzen ere, horren berri emateko eta erakundearen arteko lankidetzaren proiektuak aurkezteko baliatu dute lehendakariaren bisita

**Eneko Azkarate Laspiur** ARANTZAZU Iñigo Urkullu lehendakariak, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusi Jonnan Fernandezek lagunduta, Arantzazulab Gizarte Berrikuntza Laborategia bisitatu zuen eguaztenean. Bisitak Eusko Jaurlaritzaren Arantzazulabeko Patronatuko kide berri gisa aurkezteko izan zuen helburu –aurtengo ekaina ezker da kide–. Laborategiari emandako babesa islatzeaz gain, lehendakariak bertatik bertara ezagutu zituen Arantzazulabeko abiatu dituen zenbait egitasmo eta laborategiaren egoitza, Arantzazulabeko zuzendari Naira Goia, Gipuzkoako diputatu nagusia; Izaro Elorza, Oñatiko alkatea; Joxe Mari Arregi, Arantzazulabeko Frantziskotar Probintziako ministro probintziala; eta Zigor Ezpeleta, Mondragon korporazioko gestio sozialeko zuzendaria.

Naira Goia Arantzazulabeko zuzendari nagusiak egin zion harrera lehendakariari, laborategiaren fundazioaren patronatuko kide diren erakunde guztietako ordezkari gorenekin batera; besteak beste: Markel Olano, Gipuzkoako diputatu nagusia; Izaro Elorza, Oñatiko alkatea; Joxe Mari Arregi, Arantzazulabeko Frantziskotar Probintziako ministro probintziala; eta Zigor Ezpeleta, Mondragon korporazioko gestio sozialeko zuzendaria.

**"Orain, sendoago"**

"Babes honi esker, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzazko proiektuak abiatzeko aukera

dugu, baita gure programa abiarazteko ere. Laborategi bezala sendoago egiten gaitu, zalan-tzarik gabe", nabarmendu zuen Naira Goiak.

Arantzazulabeko zuzendari nagusiaren eskutik, Iñigo Urkullu lehendakariak Gandiaga Topaguneko azpiegiturak zein espazio ezberdinak bisitatu zituen eta laborategiko lantaldea ezagutu zuen. Era berean, Arantzazulabeko marko estrategikoa, programa eta egitekoak aurkeztu zituen Naira Goiak, eta, hortaz, gertu-gertutik ezagutu zituen 2021ean sortutako laborategiaren orain arte garatutako egitasmoak nahiz lortutako emaitzak.

## Greba egin dute bailarako hezkuntza zentro publikoetan

EAEko unibertsitateen arteko eskola publikoetan Hezkuntza Legearen aurreproiektuaren aurkako greba egin zuten herenegun. Arrasateko Bedoñaben eta Eskoriatzako Luis Ezeizan langile guztiek bat egin zuten, Bergarako Ipintzan %96k eta Miguel Altunak %50ek, Antzuolako ikastetxean %23,5ek eta Elgetakoan %10,5ek.

## 'Jostailu hezitzailea' kanpaina abiatu du Gurutze Gorriak

Debagoieneko familia kalteberetako edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden 250 haur baino gehiagori jostailu berriak emateko helburua du, eta Gurutze Gorriko boluntarioek Eroskin salduko dituzten jostailu-txekeen bidez egingo da. 5, 10 edo 20 euro emanda, beharrezko jostailuak erosiko dizkiete haurrei.

## Elikagai bankukoak "baikor" dira bilketa handiaren ostean

Asteburuan, urteroko janari bilketa handiena egin zuen Bergarako elikagai bankuak, supermerkatu eta dendetan herritarren ekarpen solidarioak jasota. Arduradunak baikor dira: "2019ko kanpainako kopurura hurbilduko gaudela uste dugu, eta hori oso albiste pozgarria da". Hilaren 6rarte bonu-kanpaina martxan egongo da Eroskin.



ZABALIK

ESTEPAN PLAZAOLA

## Arigune bila

*Ahotsak*-en kontatzen du Uberako Agirregoiko Luis Aranzabalek berak Donostian egin zuela soldaduska eta, behinola, lagun-taldeko batek proposatu zuela, ikaste aldera, euren artean erdaraz egitea, baina, taldeko denak euskaldunak zirenez, ezin izaten zutela, ez zitzaiea erdararik irtetzen. Orain 80 urteko kontuak dira, 40ko hamarkada hasierakoak. Orduan eta dezentez lehenagotik, Araban aurkitzen zuten *arigunea* Bergarako baserrietatik erdara ikastera morroi joaten ziren mutiko askok. Bergararren %42 landa-auzoetan bizi zen garai hartan eta han hainbat ziren erdaraz oso gutxi edo ezer ez zekitenak, eta, ondorioz, gaztelaniaz ikasteko presioa eta beharra sentitzen zutenak.

Ordurako kalean erdaraz kokatzea jana zion euskarari eta galera izugarri bizkortu zen frankismoan. Luze joko luke prozesu horren arrazoiak azaltzeko, baina bada datu aipagarri bat, Siadecok 1977an egindako ikerketa

### HIL ALA BIZIKO EGOERAN SORTU ZIREN KULTUR ELKARTEAK, GAUESKOLAK, IKASTOLAK...

soziolinguistikoko jaso zuena: eskola estataleko Gipuzkoako irakasleen %8k baino ez zekien euskaraz. Euskal Herri osoa hartuta, ez ziren %5era iristen.

Hil ala biziko krisi egoera hartan sortu ziren

kultur mugimenduak, gaueskolak, ikastolak... Garai ilun hartan izan zen belaunaldi bat arriskuak hartu, euskararen alde apustu egin eta galbidean zegoen hizkuntza gora bidean jarri zuena.

Bergaran egin zen kaleko erabileraren lehenengo neurketan, 1983koan, 15-24 urte bitarteko gazteen erabilera %10ekoa izan zen eta 14 urtez azpikoena, berriz, %48koa. Ikastolek eta eskolek eragindako biziberritzea abiatua zen.

Gaur egun, gazteen erabilera %40-%45 inguruan dabil, baina horrek ez du esan nahi euskara arriskutik kanpo dagoenik. Une honetan euskarak ez du bera nagusi den arigune sare trinkorik; ezta landa-lurrean ere. Eta hori gabe, jai du. Izango gara sare hori josteko gai? 60-70eko hamarkadako belaunaldiari omen egiteko modurik egokiena litzateke.

## MARRAZKIZ

### UNAI BUSTURIA

## HANDIK ETA HEMENDIK

### Legeen arrakalak

#### AMAGOIA MUJIKI TOLARETXIPI

'BERRIA'-N ARGITARATUA  
HTTPS://LABUR.EUS/AWUZK  
Amaia.

Izen hori erabili zuen *Berria*-n sexu eraso baten eta prozedura gordin baten berri emateko, joan den ostiralean.

Abokatua izanik ere, bere larrutan jasan zuen, egoera zaurgarrian zela, indarkeria matxistaren biktima askok salatu duten birbiktimizazioa: artatu zutenen iruzkin patriarkalak eta okerre betetako prozesu bat. Babes falta.

Ertzain, auzi mediku eta epaileen babesaren falta.

Salaketa abusu gisa tramitatu zuten –ez eraso gisa–, eta artxibatzea erabaki zuten, ez zutelako nahikoa zantzurik aurkitu delitu bat egon zela baieztatzeko.

2020a zen.

Orduko abusua eraso litzateke gaur, *soilik baietz da baietz* legea aintzat hartuta: artxibatu aurretik, prozedura beste bat litzateke; babesa eta laguntza ere bai, behar bezala beteko balitz –legea aldatu aurreko protokoloak betetzeko zeuden bezalaxe–.

Edozein moduz, legea ez da murrizten bortxatzaileek jasotzen duten kondenara: zaintza, laguntza, tresnak jaso nahi ditu, eta matxismoari aurre egiteko kultura eta heziketa bat ere bai.

Legearen aurkariak gogor jo zuten, besteak beste, ustezko erasotzailearen eskubideak ez zirelako bermatzen.

Orain, ez direlako nahikoa zigortzen.

Eta bai, epaile asko matxistak dira, lege batek ez baitu sistema eraldatzen.

Baina kondenak txikiagoak izango dira batzuetan, legeak hala ezarri duelako.

goiena<sup>“</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

**Argitaratzailea**  
Goiena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**  
Monika Belastegi.  
**Zuzendari nagusia**  
Iban Arantzabal.  
**Eduki zuzendaria**  
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzardea**  
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**  
Mireia Larrañaga.  
**Administrazio zuzendaria**  
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**  
Iñaki Iturbe.  
**Hizkuntza arduraduna**  
Sergio Azkarate.  
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**  
Igone Osinaga.

**Sailletako arduradunak**  
Xabier Urzelai (Kirola),  
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).  
**Maketazioa**  
Imanol Soriano,  
Aitor Lagoma,  
Amaia Martínez de Arenaza.  
**Publizitatea**  
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,  
Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**  
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,  
Nerea Artola.

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.eus

**PUBLIZITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05  
publi@goiena.eus  
**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05  
Telegram eta WhatsApp:  
688 69 00 07  
berriak@goiena.eus

**Lege Gordailua:** SS-965/2014  
**ISSN:** 2174-369X  
**Tirada:** 18.500 ale  
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

## GUTUNAK

**Euskaldun berriak****XABIER ORMAETXEA**

ARAMAIO

Azaroaren 13an, igandean, sanmillanak ospatu ziren Gatzagan. Oso giro ederra, hainbat erakustoki eta gauza salgai, eta, urtero jarduten duten moduan, Gatzagako Sorginak taldekoak taloak egiten eta saltzen.

Talo pare bat hartzeko asmoz jarri ginen ilaran eta konturatu nintzen taloak zerbitzatzen ari zen neska gazte bat erdaraz ari zela – Gatzagako Sorginen jantziekin–.

Txanda tokatu zitzaizanean, komentatu nion ea Gatzagan erdaraz hitz egiten zuten; esan zidan euskara ikasten ari zela. Nire atzeko batek komentatu zuen, baldar samar, nire uestez: "Euskara hitz eginda ikasten da".

Baina, astean zehar, Gatzaga oso ondo ezagutzen duten batzuek komentatu ziguten bi gazte etorri direla, neska Andaluziatik eta mutila Madrildik, oso gustura bizi direla Gatzagan eta euskara ikasten ari direla.

Hemendik barka nazala eskatzen diot neskari, eta nire miresmena bie.

Hainbat eta hainbat ezagutzen ditut berrogei urte edo gehiago daramatenak gure artean eta "egun on" triste bat ere esaten ez dutenak.

Ongi etorri Euskal Herrira Gatzagako neska andaluz eta mutil madrildarra.

**Garraio publikoa, ganoraz****AINHOA ASTIGARRAGA PENEDO**

ARRASATE

Arrasateko bizilagun bat naiz. Apur bat erreta nago herri honetako arduradunen ganora ikusita. Oso tristea iruditzen zait garraio publikoa sustatu nahi eta ez edukitzea ganorazko garraiorik. Gidariei entzutea ezin dutela gustura lan egin, ez dutelako baliabiderik, eta alboko herriari laguntza eskatu behar baliabideak edukitzea...

**Kontuz merkurioarekin!****JOSU GARITONANDIA**

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN

ARDURADUNA

BERGARA

Sergio Mejia medikuak dio Industria Iraultza hasi zenetik 200 aldiz merkurio gehiago dagoela Groenlandian. Mundu osoan dago zabaldua, kutsadura gisa. Pentsa, Ipar Poloan ere bai. Eta hemen ez da egon lantegirik, baina gizakiok propina bezala merkurioa sartzen dugu txertoen bitartez: merkurioa erabiltzen da txertoa egonkortzeko, eta, Kentuckyko Unibertsitateko Kimika maisu Boyd Haleyren iritziz, autismoaren atzean dago substantzia hori.

Badakit beste zientzialari askok kontrakoa esango dutela, baina hau ez da demokrazia kontu bat: zientzialari batek arazoa ikusten badu, besteek

frogatu eta konbentzitu egin behar dute ez dagoela arazorik, gai horrekin aurrera jarraitu baino lehen. Aurrera jarraituz gero, COVID txertoarekin bezala, beti babestu beharko liriteke medikamentuek eragindako albo-ondorioak sufritzen dituzten pertsonak.

Izan ere, egon diren auzietan, ez ordaintzeko aitzakien artean borondatezkoak direla esaten dute.

**Otsoak datoz!****PITER ENGINAS ETA IGOR URIZAR**

ARRASATEKO EKOLOGISTAK MARTXAN

TALDEKO KIDEAK

ARRASATE

Naturan bizi direnek natura maite dutela esaten dute askotan, baina argi dago mito hori faltsua dela.

Azaroaren 16an, EITBko *Nos echamos a la calle* saioan berri bat azaldu ziguten lelo iradokitzaile honekin: "Karrantzako harana alertan dago, otsoak iritsi direlako". Bideoa behin eta berriro ikusi eta gero, berriaren ebaluazio bat egin dugu.

Hasteko, herri komunikabideei inpartzialak izateko eskatu behar diegu, eta kazetaritzak zorrotz kontatu behar ditu berriak. Berri horretan, bideo bat eman zuten, nola hiru otso ardi bati eraso egin zioten, baina ez zuten esan ardia lotuta zegoela eta beita bat besterik ez zela.

Saio horretan kazetariak esan zuten "otsoak pertsonentzat arriskutsuak" direla, gezurra

esan zuten; baieztapen hori inkontzientea da, gizarte-alarma sortzen du eta faltsukerietan oinarrituta dago.

Azaroaren 21ean, komunikabideetan berri txar bat agertu zen. Dirudienez, Karrantzan otso eme bat eta otsokume bat akabatu zituzten. Gure iritziz, heriotza baino alternatiba gehiago dago: gauerako ukuiluak konpontzea, itxitura elektrifikatuak ipintzea, mastin txakurrak edukitzea, kalte-ordainak arintzea eta administrazio-trabak baliogabetzea; era berean, mahai bat sortzea gai horri buruz eztabaidatzeko, abeltzainek, sindikatuek, administrazioek eta ekologistek parte har dezaten.

Bukatzeko, otsoen biktima nagusiak oreinak, orkatzak eta basurdeak izan ohi dira, baina egia da harrapakin horiek aurkitzen ez dituztenean etxeko animaliei eraso egiten dietela; hala ere, ez dugu ahaztu behar mundua ez dela gurea: gu gara planetaren parte, eta ez alderantziz.

**Joxe Mari Usatorreri****XABIER ZUBIZARRETA ETA INO**

GALPARSORO

HAREN KIDE IZANDAKO GUZTIEN IZENEAN

ARRASATE

Kaixo, Joxe Mari. Hire heriotzaren berri jakin dugunean, unetxo batez, mundua geratu bezala egin duk. Eskerrak berriro betiko martxari heldu dion! Bai; Joxe Mari Usatorrek bat-batean

bezala utzi gaitu. Gero arte ere esan barik joan zaigu.

Beretzat leku gutxi behar zuen horietakoa izan da, baina ez daki zer-nolako hutsunea utzi duen gure artean.

Arrasatearra jaiotzez eta bihotzez. Txaetako Matromain, bizilekua eta atsedena. Etxeko hormak ferekatuz igarotzen den Urkulu errekarrekin xuxurlaka... Nerabezaroko keinuak soinean zeramatzan mutiko apala. Nekaezina, akiduran ere. Zenbat itzuli munduari! Lanari ez dio beldurrik izan. Denbora galtzeko astirik ez, nonbait.

Bere garaiari, bere gizarteari begira, kooperatibismoa, udalgintza, konpromiso politikoa izan ditu lan esparru, diskrezioz, ospetsu izateari ihesi.

Zorrotz, baina lagun abegitsuaren irribarrea galdu gabe. Handiekin, aurrez aurre; auzokoekin elkar hartuz.

Ametsei jarraiki, errealitatearen gordintasunaz jabetuz, azkenean, beti baietz esanez amaitzen zuena.

Oinak lurrean eta burua lanean, ehuneko ehuneko. Ilusioak astinduz, soluzioak prestatzen saiatu dena. Ingeniari zela ezin disimulatuz, beti irtenbideen bila.

Ekologia praktikarekin predikatu digu. Natura maite zuen; huraxe izan da bere habitata. *Indio* deitzen genion eta deituko diogu berarekin gogoratzean.

Hire adiskidantza oroimena gudan gera bedi Urkulu errekarrekin xuxurlaka dirauen artean, behintzat.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBINE UBEDA**



Arrasateko udal lorezainak eta LAB sindikatuko ordezkariak, martitzeneko prentsa agerraldian. E.A.B.

## Udalaren isunak gaitzetsi ditu LAB sindikatuak

Udal lorezainek eta LABeko ordezkariak diote hiru isun jaso dituztela, "grebarekin lotutako kartelak egokitutako lekuetatik kanpo jartzeagatik eta pankartak baimen barik jartzeagatik"; Gobernuak dio herritar orori jartzen zaizkion isun berak direla

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE LAB sindikatuak eta Arrasateko hainbat lorezainek "Arrasateko alkatetzak adierazpen askatasunaren aurka abiatutako erasoak eta lorezainen aurkako jazarpena" salatu dute. Nabarmendu dutenez, hiru isun jarri dizkie Udalak, "grebarekin lotutako kartelak egokitutako lekuetatik kanpo jartzeagatik eta pankartak leku egokituetan zein ez egokituetan baimen barik jartzeagatik".

Ana Sebal LAB sindikatuko ordezkariak adierazi du azaroaren 4an ohartarazpen bat eta hiru isun jaso zituztela sindikatuaren egoitzan. "453 eurorainoko isunak dira eta arau-hauste larri bezala kalifikatuta daude. Hala, Arrasateko alkatetzak egindako adierazpen askatasunaren aurkako eraso berri hau salatzeaz gain, lorezainok gure lan-baldintzen alde egindako borrokaren aurka jazarpen jarraitua egon zela adierazi nahi dugu".

70 egunez egon ziren greban udal lorezainak, zerbitzua esleitzear zela-eta, haien lan-baldintzak hobetzeko asmoz. "70 egunez kalean egon ginen, gure aldarrikapenak herritarrei zabaldu eta gure egoeraren berri ematen, bitartean, enpresak eta Udalak beste alde batera begiratzen zutela ikusita", dio Sebalek.

Hori gutxi ez, eta Prezero enpresarekin izandako negoziaketan Arrasateko Udalak langileen aldarrikapenak isilarazi nahi izan zituela deitoratu dute: "Salaketa publikoak oztopatuz eta gure aldarrikapenak kaleetatik ezabatuz". Era berean, kale garbitzaileek lorezainen kartelak eta pankartak kentzeko agindua jaso zutela ere salatu dute: "Eten-

**LOREZAINEK SALATU DUTE EUREN AURKAKO "JAZARPEN JARRAITU BAT" EGON ZELA GREBAN ZEUDENEAN**

gabeko irabaziak dituen multinazional baten aurrean, langileok ze baliabide ditugu gure esku-bideak aldarrikatzeko?".

Gaineratu dute lorezainen borroka "eredugarria" izan dela eta horri esker lortu dutela akordioa. Horren harira, Udal Gobernuak "mendekuz" jokatu duela azpimarratu dute. "Legea mendeku irizpide soilarekin aplikatu zaigula argi geratu da. Garbi daukagu ez ditugula isun hauek onartuko eta ordainduko. Mozal Legea aplikatzea eta adierazpen askatasunaren aurkako errepresioaren erantzukizuna Arrasateko alkatetzarena da". Hori dela eta, isun horiek bertan behera uzteko eskatu diote Arrasateko Udal Gobernuari.

**Gobernuaren erantzuna**  
Udal Gobernuak zera erantzun du: "Herritar orori kartelak lekuz kanpo jartzeagatik ezartzen zaizkion isun berdinak dira. Adierazpen libreko guneak daude kartelak jartzeko".

## Gabonetako erakusleihu, balkoi eta leiho lehiaketak, martxan

Erakusleihu lehiaketan 11ra arte eman ahalko da izena; leiho eta balkoien lehiaketan, aldiz, hilaren 18ra arte

**E.A.B. ARRASATE**

Arrasateko Udalak, beste urte batez, Gabonetako Erakusleihu Lehiaketa antolatu du eta herriko establezimendu guztiei dei egin die, "batez ere, zerbitzuetan dihardutenei eta ostalariei", lehiaketan parte har dezaten.

Establezimenduek abenduaren 11 baino lehen eman beharko dute izena, BAZen, *Arrasate.eus*-en edo *Ibaiarte.eus*-en. Erakusleihuak abenduaren 12tik urtarrilaren 6ra egongo dira jarrita eta LED poltsak jarriko dituzte horietan, parte-hartzai-leak identifikatzeko.

Sariei dagokienez, "gorakada nabarmena" izango dute aurten, baita bozketan parte hartzen duten herritarrei emandako sariek ere: Lehen saria, 1.000 euro; bigarrena, 700 euro; hirugarrena, 600 euro; laugarrena, 500 euro; herritarren saria, 500

euro; eta haur eta gazteen saria, 500 euro.

Herritarren sarirako botoa ematen dutenen artean 120 euroko bost bonu zozketatuko dituzte eta haur eta gazteentzako sarirako botoa ematen dutenen artean, 50 euroko bost bonu, Arrasateko edozein saltokitan gastatzeko. Herritarrek abenduaren 12tik 18ra eman ahalko dute izena, udal webgunean.

**Leiho eta balkoien ere bai**

Aurten ere Gabonetako leiho eta balkoien lehiaketa egingo dute, bigarrenaz. *Arrasate.eus*-en eman daiteke izena, abenduaren 18ra arte. Herritarrek abenduaren 19tik 25era bozkatu ahalko dute. Irabazleak 350 euroko saria jasoko du Arrasateko edozein saltokitan kontsumitzeko eta bozkatzeko dutenen artean 120 euroko bonu bat zozkatuko dute.

## Domeketan barrakak bi orduz musika barik egongo dira aurten

Aurten lehenengoz, santamasetako eta Gabonetako domeketan, Maiatzaren Bata plazan jarriko dituzten barrakak ez dute musikarik izango 17:00etatik 19:00etara. Hala jakinarazi du Udal Gobernuak: "Helburua da espektro autistako alterazioak dituzten eta arazo sensorialak dituzten pertsonen ere atrakzioez gozatzeko aukera izatea".

Kultura zinegotzi Juan Ramon Mendietak (EAJ) eta Berdintasun zinegotzi Johanna Sanchezek (PSE-EE) nabarmendu dutenez, aurtengoa izango da Gabonetan ekimen hau martxan jarriko duten lehen aldia. "Bereziki, haur guztien gozamenarako barrakak inklusiboak izatea lortu nahi da", diote.

Bestalde, santamasetako herri bazkarirako tiketak abenduaren 13an erosi ahalko dira, martitzena, Uarkapeko txarteldegian, 19:00etan, 22 eurotan.

## Mondragon City Challenge lehiaketako partaideak, hautatuta

Bigarren edizioan, Alemaniako, Belgikako, Malaysiako, Tanzaniako, Ameriketako Estatu Batuetako, Kolonbiako eta Espainiako 247 ikasleak parte hartu dute, 108 taldetan banatuta. Epaimahai teknikoak hogeita partaide aukeratu ditu eta otsailaren 6ra arte izango dute proiektua garatzeko. Informazio gehiago, *Goiena.eus*-en.

## Parrokian batutako dirua lapurtu zuten domekako mezan

Abuztuan egindako lapurreten kalteak berreskuratzeko bilketa egin zuten domekan, On Jose Maria Arizmendiarrizaren omezzo meza baliatuta, eta batutako diru hori ere lapurtu egin dute, Horazio Argarate parrokoak azaldu duenez: "Ez dakigu zenbat, baina normalean baino gehiago zen, deialdi berezia egin baikeuen dirua biltzeko".



## EUSKARALDIA

# Festa batekin borobilduko dute Euskaraldia gaur

Herri Batzordeak adierazi duenez, 3.000 arrasatear inguru aritu dira, "kontzienteki eta erabaki sendoz", ariketa sozialean murgilduta, euskara erdigunean jarrita; bi aste hauei amaiera emateko, festa bat egingo dute gaur, egubakoitza, Seber Altube plazan



Euskaraldiari hasiera emateko egin zuten agerraldia. GOIENA

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE "Zorionak, egin dugun ariketa ederra izan da eta! Bi astez, hor jardun dugu, jo eta ke, euskara dantzatzen; kaleetan eta etxeetan, lanean eta denbora librean, gure hizkuntza hautua erakusten, egin dugun aukera bistarazten", diote Herri Batzordekoek.

Hamabost egun horien ostean, gaur emango diote amaiera Euskaraldiari, Seber Altube plazan egingo duten festarekin. 17:30ean, haurrentzako jolasak izango dituzte, Txatxilipurdiren eskutik, eta, ostean, Euskaraldiko koreografia egingo dute. 18:30ean hasiko dute ekitaldi nagusia eta 19:00etan *txapa-topa* egingo dute, talde-argazkia ateratzeaz gain. Azkenik, 19:15ean, kalejira egingo dute, DJ Goikoren eskutik.

Koreografiari dagokionez, Pirritx eta Porrotzek egindakoa hartuko dute oinarri eta ez da beharrezkoa izango pausoak

ikasita joatea, Lizarralde azaldu duenez. "Arizmendi Ikastolako eta Herri Eskolako ikasleak igoko dira oholtzara, gidari-lanak egitera. Horiez gain, pantailan bertan ere ikusi ahal izango dugu dantza, jarraitu ahal izateko. Edonork egin ahalko du".

Ekitaldiaren ostean, *txapa-topa* egingo dute: "Izenak dioen moduan, gure txapekin topa egingo dugu. Euskaraldiaren hasieran egitea zen asmoa, baina ezin izan genuen egin. Beraz, amaiera emateko erabiliko dugu".

**Goizean, bigarren eskuko azoka** Euskaraldiarekin lotuta, Arrasateko EPA-HHI Helduen Eskolakoek *Berrerabili* bigarren eskuko merkatu txikia egingo dute gaur, 11:00etatik 14:00etara, eskolako sarreran. "Euskara beste testuinguru batean praktikatu dugu, berrerabilpenaren kontzientzia sustatuz".



E.A.B.

## Ttak Eguna egingo dute bihar

11:30ean, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, Asisko Urmenetaren *Amair!* *Liberate State* liburuaren aurkezpena; 14:30ean, gaztetxean, gazte bazkari herrikoia; 17:30ean, gaztetxean, bazkaloste akustikoa, Garazi Barrenaren eskutik; 19:00etan, poteo musikatua, Irati tabernatik hasita; 22:30ean, gaztetxean, kontzertuak: Etxepe, Oihu eta Muxutruk. Sarrera 3 euro da.



Elena San Martin, Arrasateko Udal Euskaltegi zuzendaria, hainbat euskara ikasleekin. E.A.B.

## Udal Euskaltegi berrian "pozik eta eroso" daude

Arimazubi plazan hasi zuen bidea Arrasateko Udal Euskaltegiak, eta, 40. urteurrenean, Kulturolara lekualdatu dute; etxe berrian "oso pozik eta eroso" daudela dio Elena San Martin zuzendariak: "Aldaketa handia izan da guretzat; hemen guztia dugu eskura"

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE Irailean egin zuten Udal Euskaltegi berriaren inaugurazioa eta dagoeneko martxa hartzen hasiak dira. 40 urte bete ditu Arrasateko Udal Euskaltegiak, eta, orain arte Arimazubi plazan egon ostean, lekualdaketarekin hasi dute urteurren borobileko ikasturtea. Elena San Martin zuzendariak onartu du aldaketa "oso positiboa" izan dela, nahiz eta lehengo plaza faltan sumatzen duten. "Oso aldaketa handia izan da guretzat. Ohituta geunden Arimazubin; plaza ederra geneukan aurrean, eta hori faltan nabaritzen dugu. Hala ere, oso gela gutxi genituen han eta, gainera, txiki samarrak ziren.

Hori dela eta, beti ibili behar izaten genuen handik kanpo eskolak ematen; Kulturaten eta Etxaluzen, besteak beste. Orain, aldiz, euskaltegian bertan ematen ditugu eskola guztiak, enpresetakoak izan ezik, eta hori abantaila handia da guretzat".

### Espazio handiko euskaltegia

Handia da Kulturola eraikineko Udal Euskaltegi berria. Harrerez gain, hamaika ikasgela, sei tutoretza gela, irakasle gela bat, liburutegia, areto nagusia eta sukaldea ditu, ikasleekin ekintzak egiteko. Gainera, aretoaren eta sukaldearen arteko horma tolesgarria da eta ekintzak egiteko aukera handia ematen die horrek;

bereziki, umeekin, zuzendariak azaldu duenez. Horrez gain, beste hainbat gelaren arteko paretek ere aukera hori ematen dute: beharraren arabera, gela bakarra edo bi jar daiteke.

Gainera, hamaika gela horietako bik kamera eta pantaila bana dute. Hau da, gaur egun, geroz eta ikasle gehiago dira eskola presentzialetara joan ezin direnak eta etxetik edo lantokitik hartzen dituztenak eskolak. Hori dela eta, bideo-dei baten bitartez sartzan dira gelara. Alde horretatik, Arimazubiko euskaltegiarekin alderatuta, "baliabide hobek" dituzte eta "erosoagoa" da eskolak ematea. "Lehen, beti arazoekin ibiltzen

ginen, eta orain, segurtasun handiagoarekin joaten da irakaslea ikasgelara".

Horrez gain, liburutegia ere badago, hainbat ordenagailurekin, eta autoikaskuntza eskaintzen dute hor. "Gerta daiteke norbaitek ez edukitzea nahikoa baliabide etxean hemengo lanekin jarraitzeko; beraz, horretarako aukera emango diegu herriarrei. Egia esan, oraindik arautu gabe daukagu, baina joango gara fintzen".

### 335 ikasle inguru dituzte

Gaur-gaurkoz, 335 bat ikasle ari dira Arrasateko Udal Euskaltegian: 225 heldu eta 110 bat haur eta nerabe. Askotariko maila eta profiletako ikasleak dira, eta baita askotariko adinetakoak ere. "Txikienak 6 bat urte eta nagusienak 80ren bueltan", dio zuzendariak. Piter Encinas eta Rosa Mari Dominguez dira horietako bi, eta "oso pozik" azaldu dira lekualdaketarekin, Arimazubiko euskaltegiarekin alderatuta Kulturolakoa "erosoagoa eta argitsuagoa" delako, besteak beste, haien esanetan. "Leku duina da euskara ikasteko eta irakasteko", diote.

### Sinergiak sortzea helburu

Kulturola eraikinean hemezortzi eragile daude, eta horiekin sinergiak sortu gura ditu Elena San Martin zuzendariak. "Egia esan, oraindik nahiko lan daukagu leku berrira kokatzen eta egokitzen, baina orain bizilagun berriak ditugu eta gure ikasleak horra ere bideratu nahi ditugu, jakin dezaten herrian ze eskaintza dagoen. Ea nolako harremanak egiten ditugun gainontzeko eragileekin. Nik uste dut emaitza onak emango dituela, baina landu egin behar da".

## Jostailuak batzeko azken egunak ditu Txatxilipurdik

Abenduaren 17an egingo duten Jostailu Truke Merkaturako bilketa egiten ari da Txatxilipurdi Elkarteak. Gaur, egubakoitza, Biteri plazan egongo dira, 17:00etatik 18:30era, eta bihar, zapatua, ere bai, 12:00etatik 13:30era. Abenduaren 12an eta 13an, azkenik, Txatxilipurdiko bulegoan jasoko dituzte jostailuak, 12:00etatik 13:30era.

## IMME elkarteak ere jostailuak batzen ari da Gabonei begira

Joan den egubakoitzean hasi zuen IMME elkarteak bilketa kanpaina, Txaxeta kalean duen lokalean, *Gabonetan, Debagoieneko haur bat ere ez dadin oparirik gabe geratu* lelopean. Gaur ere han egongo dira, 10:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 18:00etara. "IMMEtik eskerrak eman nahi dizkiegu jostailuak ekartzen dizkiguten haurrei", azaldu dute.

## Bisita gidatuak Juan Arzamendi Musika Etxea ezagutzeko

Gaur hasi eta abenduaren 16ra arte, hogeita bisita gidatu egingo dituzte, Udalak antolatuta, musika etxe berria ezagutzeko, Arrasate Musikaleko Igor Larrañagaren eskutik. Parte hartzeko, izena eman beharko da aurrez, [Arrasate.eus](http://Arrasate.eus) webgunean. Gehienez, 25 pertsona sartuko dira bisita bakoitzean. Informazio gehiago, [Goiena.eus](http://Goiena.eus)-en.

arbolapeta  
  
 arrasate  
 beinke

*Sili Sili*  
 Martxa eta estilo handiko arropa  
 Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

Ab 80  
 BEILATOKI BERRIA  
 ARRASATEN  
 TANATORIOA  
 Guztion zerbitzura  
 24 orduz  
 ARRASATE HILETA  
 BERRIA  
 Deitu eta informa zaitez!!  
 943 79 22 19  
 Araba etorbidea 3, 20500 ARRASATE. [www.funerariaarrasate.com](http://www.funerariaarrasate.com)

# Garaipena garesti dago, baina eskuragarria da

Kanpanzar Arrasatek denboraldi honetan jokatu dituen sei partiduetatik ezin izan du garaipenik eskuratu orain arte. Bihar, 16:30ean, gizezko errugbilariek hortzak erakutsiko dizkiote kategoriako liderra den Elorrio Betsaideri, Mojategiko zelaiari

## Hasier Larrea ARRASATE

Ez dabilta nahi bezain fin Arrasate Rugby Taldeko senior mailako gizezkoak aurtengo denboraldian. Partiduak borrokatu bai, baina ezin zelaiari egindakoa emaitzetan islatu. Joan den asteke atsedendialdiaren ostean, indarrak berrituta, burua altxatzeko beste aukera bat izango du Kanpanzar Arrasatek bihar arratsaldean, Mojategin, 16:30ean hasita. Zaleen berotasuna beharko dute sailkapeneko liderra den Elorrio Betsaideri aurre egin eta haiek baino puntu gehiago lortzeko. Partidu borobila egin beharko dute Julen Barrutiaren mutilek, alboko herriko



Uni Bilboren aurkako neurketan, ARTKoak aurrera egin guran. RICARDO SANTA CRISTINA

errugbilariek ez baitute oraindik partidu bakarra galdu.

## Estatistikak apurtzera

Hala, zazpitik zazpi garaipen ditu Elorrio Betsaidek; Kanpanzar Arrasatek, berriz, sei partidu jokatu, lau galdu eta bi berdindu ditu. Joaneko neurketan 27-10 nagusitu ziren bizkaitarrak, baina han ikusi eta ikasitakoak baliagarriak egingo zaizkio Arrasateko taldeari estatistikak behingoz apurtzeko.

Norgehiagoka horren ostean, Euskal Ligako lehen ligaxkako beste hiru partidu jokatu dituzte Kanpanzar Arrasatekoek, igoera edo jaitsiera faserako sailkatzen diren erabakitzeko.

## Neskak ere, antzera

Jardunaldi honetan atsedendialdi hartuko dute AGT Arrasate/Eibar taldeko emakumezko errugbilariek. Hilaren 18an itzuliko dira Eibar Rugby Taldearekin batera diharduten jokalariek Ohorezko Mailako lehiaketara, Uni Bilboren aurkakoan. Orain arteko bost partiduetatik bostak galduta, lehen garaipena lortzen saiatuko dira.

## Ointxe!-ko mutilek Getxo jasoko dute Iturripen etzi

EBA ligan agintzera ohituta egon arren, aurtengo denboraldian, zazpi neurketaren ostean, azken hirugarren dago sailkatuta Mondragon Unibertsitateko gizezkoen talde nagusia. Hiru garaipen eta lau porrot pilatu dituzte Julen Berrocalen esanetara dauden saskibaloio jokalariek, baina oraindik badute igoerako ligaxka jokatzeko postuetara hurbiltzeko marjina.

Joan den asteburuan, arnasa hartu ahal izan zuten Valladoliden, eta, oraingoan, han lortutako garaipena errepikatzen saiatuko dira. Etxean jokatzearen abantaila baliatuko dute horretarako, Getxo Saski taldearen aurrean. Domekan neurtuko dituzte indarrak, Iturripen, 18:30ean hasita.

Emakumezkoen talde nagusia, ostera, datorren astean itzuliko da Lehen Mailako lehiaketara. Sailkapenaren erdialdean gora egiteko asmoz joango dira Naierara (Najera), La Riojaren aurka indarrak neurtzera.

**EROSKI**  
ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,  
Tel.: 943 71 10 30

Adibidea:

1 erosita	2 erosita
<b>12,50</b>	<b>8,75</b>
€/alea	€/2. alea
27,76 €/Kg	23,62 €/Kg

**AURREZTU 3,75€**

**EROSKI SELEQTIA produktu guztiak**

Zenbateko txikieneko produktuaren % 30 itzuliko dizugu zure txartelean

**Bazkidea bazara**  
2.alea

**-30%**

**KONBINATU**

**Zatoz zure EROSKI dendara eta lortu opariak eta zozketan parte hartzeko aukera**

Sustapen baldioduna 22/12/01etik 23/01/06ra. Baldintzak hemen: [eros.ki/navidad-club](http://eros.ki/navidad-club)

Denbora falta ez da aitzakia txunditzeko. Ezagutu EROSKI SELEQTIA produktu sorta zabala

Eskaneatu QR kodea

# Akordeoia, ikuspuntu guztietatik plazaratua

Hauspoz Euskal Herriko Akordeoi Elkarteak 42. aldiz antolatu du Arrasate Hiria Nazioarteko Lehiaketa. Gaurtik hasita, Amaia antzokia, Kulturate eta Arizmendi Ikastola izango dira maila, adin eta jatorri guztietako partaideen oholtzak

**Hasier Larrea** ARRASATE

Iaz omikron kasuen agerraldiak sortutako ziurgabetasunak gaindituta, lasaiago antolatu ahal izan du aurten Hauspoz elkarteak Arrasate Hiria sariketaren bueltako egitaraua. Prestakuntzalan ez da eta makala: nazioarteko punta-puntako hamabost lehiakide eta bost epaimahaikide gonbidatzeaz gain, Gipuzkoako, Euskal Herriko eta Espainiako ia 300 akordeoilariri ere egingo diete tokia hitzorduetan.

Izan ere, ezaugarrien arabera, hiru dira garatuko diren ekitaldiak: batetik, kanpora begira garrantzitsuena dena, Arrasate Hiria Nazioarteko Akordeoi Lehiaketa; bestetik, inguruko kontserbatorioetako ikasleei egokitutako Gipuzkoa Akordeoi Lehiaketa; eta, azkenik, musika eskoletako bakarleri, ganbera-musika talde zein ensembleak modu hezigarrian aritzeko Gipuzkoa Jaialdia, 257 partaidea jasoko dituen.

**Guztientzat**

Aurten, Europako bederatzi herrialdeetako eta Txinako musikari profesionalak arituko dira Arrasate Hiria txapelketako lehian. Epailak ere urrunetik etorriko dira; Japoniatik eta Norvegiatik, besteak beste. Hauspozko antolatzaile Maria Zubimendiren hitzetan, "epaileen mailak erakartzen ditu goi mailako musikariak, eta horregatik da Arrasatekoa mundu mailako bost txapelketa nagusietako bat".

Entzuteko "zailak" diren piezak joko dituzte haiek, baina herriarrei eramangarriagoak egingo zaizkien hitzorduak ere egongo dira, Gipuzkoako lehiaketa eta jaialdiaren baitakoak: "Folklorearekin lotuago dauden ekitaldiak izango dira, eta, guztiak batuta, akordeoia ikuspuntu ezberdinetatik entzun ahal izango dugu, hori baita asteburuko helburua".



lazio nazioarteko sariketan, Piotr Motyka irabazlea; Kulturaten joko du gaur. GOIENA

## MUNDU MAILAKO AKORDEOILARI ONENAK DOHAINIK IKUSI AHAL IZANGO DIRA AMAIAN

**Bestelakoak ere bai**

Zubimendik bi ekitaldi nagusi azpimarratu ditu, arrasatearrei "politena" iruditu ahal zaizkienak: "Gaur, 20:00etan hasita, iazko irabazle Piotr Motykan kontzertua egingo du Kulturaten, eta maisuki konbinatuko ditu aro ugaritako piezak; domekan, ordu berean, itxiera ekitaldian, musika garaikidea ardatz duen ikuskizuna egongo da Amaian".

Gainera, epaimahaiko kide izango den Veli Kujalak ikastaro berezia emango du Kulturateko Jokin Zaitegi gelan abenduaren 5ean eta 6an, 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era.

Hauspozen partetik, Zubimendi esker oneko agertu da Arrasateko Udalarekin eta SUDC elkartearekin, kanpoko partaideek eragile horien aldetik "aparteko berotasuna eta tratua" jasozten dutelako.

## Emanaldien ordutegia eta guneak

**Abenduak 2**

- 09:00etan eta 15:00etan, Nazioarteko Lehiaketako kanporaketak Amaian.
- 16:00etan Gipuzkoako Lehiaketako Gazteen kanporaketa Kulturaten.

**Abenduak 3**

- Egun osoz, Gipuzkoako jaialdiko kontzertuak Amaian, Kulturaten eta Ferixalekuan.
- 20:00etan, Amaian, Gipuzkoako jaialdiko sari banaketa.

**Abenduak 4**

- 08:30ean, Nazioarteko azken fasea Amaian.
- 09:00etan Ferixalekuan eta 09:30ean eta 15:00etan Kulturaten, Gipuzkoako Lehiaketak.
- 20:00etan, Amaian, lehia guztien sari banaketak.


## Ozenkiren urteroko gala liriko antzetzua hilaren 15ean

'Una noche en el teatro de la comedia' izeneko opereta taularatuko dute Amaia antzokian sona handiko artistek

**H.L. ARRASATE**

Aldiro obra berri bat ekoizten saiatzen da Ozenki, lirika ikuskizunak gustuko dituztenen gozamenerako. Apustu berezia egin dute, Gema Scabal eta Estibaliz Arroyo sopranoek, Antonio Torres eta Jon Imanol Etxabe baritonok eta Facundo Muñoz tenorrek jarriko baitioite ahotsa Josean Garciak idatzi eta zuzendutako lanari. Opereta bat, hau da, antzetzutako komedia bat taularatuko dutenez, aktoreak ere igoko dira oholtzara; tartean, Imanol Gallego arrasatearra. Valen Moñux antzuelarra arduratu da dekorazioaz.

Manu Gallardo antolatzaileak aurreratu du Guridiren, Sorozabalen, Belliniren, Straussena eta Verdiren pieza ezagunak interpretatuko dituztela, baita 2023an opera bat ekartzeko lanean dabiltzala ere.



Gema Scabal sopranoa. OZENKI

Hilaren 15eko gala lirikoak 20:00etan hasiko da, baina aurretik Ibai-arteren Gabonetako spota proiektatuko dute, primizian. 20 euroko sarrerak antzokiko leihatilan, [arrasate.eus](http://arrasate.eus) atarian eta Kutxabanken eskuara daitezke.

## Arrasate Margo Taldeak erakusketa ireki du Kulturaten

Urtero bezala, herriko margolarien kolektiboak azkenaldian egindako koadroak jarri ditu ikusgai Kulturateko klaustroan. Hemeretzi margolariren ehun artelan daude, guztira: erretratuak, paisaiak, olioak eta akrilikoak. Ateak atzo ireki eta abenduaren 21ean itxiko dituzte, eta arratsaldeetan bisitatu ahaliko da, 17:30etik aurrera.

## Santamasetako bertso saiorako sarrerak salgai

Alaia Martin, Andoni Egaña, Oihane Perea eta Amets Arzallus ariko dira aurtengo goi mailako bertso jaialdian Amaia antzokian, abenduaren 21ean, 19:30ean hasita. AEDk Udalaren eta Santamas Komisiñuaren laguntzarekin antolatzen duen ekitaldirako sarrerak 10 eurotan daude salgai, Amaia leihatilan eta [arrasate.eus](http://arrasate.eus) atarian.

## Marcelino Ruizena artelanak Itzala tabernan ikusgai

Itzala tabernako arduradunek animatuta, margolari arrasatearren alabek aitaren koadroak publiko aurrean ikusgai jartzeko pausoa eman dute, hari omenaldia egiteko asmoz. Azaldu dutenez, artelan guztien artean aukeraketa bat egin behar izan dute, margolanen artean koherentzia egon dadin. Erosteko aukera ere egongo da.

## Bazkak emango du 'jaten' Kooltureko hurrengo hitzorduan

Abenduko Kooltur Ekintzak atsedean hartuko du datorren ostegunean, baina hurrengoan, hilak 15, Bazka taldeak joko du. Estricallaren errautsetatik eta Galder Izagirre bateria-jolearen ekarpenetik jaiotako proiektu berriko kideak *Basoaren ilunean dantza* diskoa aurkeztera joango dira gaztetxera, eta kontzertua 22:00etan hasiko da.

# N Line 30. Urteurrena gama.

Nabarmendu zaitez



i20 N Line 30. Urteurrena

**100 €-tik**  
aurrera hilean

- 100 €-ko 47 kuota
- Sarrera: 6.330,50 €
- Azken kuota: 8.426,63 €
- **UTB: %9,89\***
- **TIN: %8,25**

Oharkabeen pasatzea gustatzen ez zaien horietakoa bazara, zorteko zaude. Hyundai N Line 30. Urteurrena Edizio Berezia heldu da. Horrekin, gozatu ahal izango duzu i20 N Line-ren emozio guztiaz, i30 N Line-ren kiroltasunaz, KONA N Line-ren prestazio harrigarriez eta TUCSON N Line-ren diseinuaz eta dotoreziaz, aparteko ekipamenduarekin, sekulako prezioan.

Nabarmendu zaitez N Line 30. Urteurrena gamarekin.



**Oarso Car Arrasate - Mugarri**

San Andres auzoa 6 (Mugarri eraikina). 943 67 40 29 [www.oarsocar.com](http://www.oarsocar.com)

**5 URTE** Km-en mugarik gabeko  
**Bermea**

Hyundai i20 N Line 30. Urteurrena. CO2 emisioak (gr/km): 115-120. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,9-5,3.

Hyundai i30 N Line 30. Urteurrena. CO2 emisioak (gr/km): 120-142. Kontsumo mistoa (l/100km): 4,6-6,3.

Hyundai KONA N Line 30. Urteurrena. CO2 emisioak (gr/km): 137. Kontsumo mistoa (l/100km): 6,1.

Hyundai Tucson N Line 30. Urteurrena berria. CO2 emisioak (gr/km): 155. Kontsumo mistoa (l/100km): 6,8.

WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo eta emisioen balioak.

Hyundai Nuevo i20 5 ATE MPI 1.2 85 ZP N LINE 30. Urteurrena autoarentzako finantzaketaren adibidea. **PSP: 20.700 euro. Finantzatutako prezioa: 16.400 euro. Barne hartzen ditu BEZa, garraioa, matrikulazio-zerga, sustapen-deskontua, kontzesionarioaren ekarpena, mantentze-lanen eskaintza eta Hyundai-ren Renove Planoa, Hyundai ibilgailu bat erosi aurreko 6 hilabeteetan gutxienez eroslearen titulartasunpean erabilirik ibilgailu bat entregatzeagatik aplikatzekoa. Sarrera: 6.330,50 euro. Formalizazio-komisioa, eskura ordainduta (%3,75): 377,61 euro. Finantzatutako zenbatekoa: 10.069,50 euro. 100 euroko 47 kuota eta 8.426,63 euroko azken kuota. Interesak, guztira: 3.057,13 euro. Kredituaren kostua, guztira: 3.434,74 euro. Zor den zenbatekoa, guztira: 13.504,24 euro. Epekako prezioa, guztira: 19.834,74 euro. TIN: %8,25. UTB: %9,89. Frantziako amortizazio-sistema. Hyundai Finance-rekin finantzatua Cetelem Bankuaren bitartez 2022/11/30era arte. Iragarki honetan agertzen diren modeloak: i20 N Line 30. Urteurrena, i30 N Line 30. Urteurrena, KONA N Line 30. Urteurrena eta TUCSON N Line 30. Urteurrena. Hyundai Motor España SLU enpresak bere azken bezeroei eskaintzen dien 5 urteko kilometraje-mugarik gabeko merkataritza-bermea Hyundai sare ofizialak hasiera batean salduzako Hyundai ibilgailuei soilik aplikatu dakieke, zerbitzuko pasaportearen baldintzen arabera. Informazio gehiago, Hyundai kontzesionarioen sarean edo [www.hyundai.es](http://www.hyundai.es) webgunean.**



Asteleheneko aurkezpena, Sastiña aretoan. A.E.G.

## Euskararen erabilerak gora egin du Aramaion

2017ko neurketarekin alderatuta, 10 puntu egin gora erabilerak; hain zuzen, %73,8koa da Aramaioko datua. Datuen aurrean tentuz jokatzera eskatu dute udal ordezkariak; izan ere, etxeetan, familian, gero eta gutxiago egiten da euskaraz

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO Hamar herritarretik zazpi euskaraz dihardu Aramaioko kaleetan. Horiek izan ziren astelehenean Uemak aurkeztu zituen datuak: 2021eko maiatzean egin dako kale neurketaren arabera, Aramaioko kaleetan euskararen erabilera %73,8koa da. Uemako teknikari Arritxu Zelaia: "Oso datu ona da Aramaioko kale erabilerarena".

Kale neurketa herriko boluntario sare batek egin zuen; hamasei orduz neurtu zuten kale jarduna: 406 solasaldi jaso zituzten; guztira, 1.302 solaskide.

### Adin tarte guztietan gora

Aurkeztutako datuen arabera, erabilerak gora egin du adin tarte guztietan. "Haurretan eta heldu gazteen artean nabarmen egin du gora euskararen erabilerak", azaldu zuen Zelaia. Haurren %89,5ek egiten dute euskaraz; gazteen %69,7k; heldu gazteen 74,8k; heldu nagusien %66k; eta adinekoen %60,2k. 2017ko datuekin alderatuta, haurren artean 15,3 puntuko igoera izan da, adibidez.

"Kale erabileraren neurketa aurkeztu dugu, baina, duela gutxi, zentsuko datuak atera ziren eta datu horiek beste perspektiba bat ematen dute. Datu horien arabera, lehen hizkuntza moduan euskarak Aramaion behera egin du, 18 puntu 30 urtean, eta etxeko erabilerak ere

behera egin du. Esanguratsua da datua", azaldu du Uemako teknikariak. Izan ere, lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza erabakigarriak dira erabileran eta horiek, gutxika-gutxika, kaleko erabileran eragina izan dezakete.

### Tentuz jokatzeko unea

"Datu onak kostatzen zaizkigu sinistea, baina laginak hori eman du. Gure euskaltzale ikuspegitik, betaurrekoak jarrita, irakurketa negatiboagoa egiten dugu. Ikusi beharko da lau urte barru zelako datuak jasotzen diren", nabarmendu zuen Zelaia, erabileraren joera zein den ikusteko.

Aramaioko Udaleko Euskara zinegotzi Oihana Amezkua: "Egia esan, gora egin dute datuek, eta nahiko modu esanguratsuan.

Oso pozik gaude, baina, aldi berean, badugu eszeptizismo puntua. Izan ere, neurketa garai berezian egin zen, pandemiatik irten berri, harreman sozialak mugatuak zirenean, eta horrelako herri txiki batean horrek eragina izan dezake". Zinegotziak nabarmendu du Uemako herrietan joera orokorra dela etxeko hizkuntzan euskarak pisua galteza. Zaindu beharreko kontua dela dio, eta aztertu beharrekoa.

Etxeko hizkuntzaren erabileraren inguruan familiek hausnarketa egin dezaten, eskolan *Hedatuz* programa landuko dute, Uemaren laguntzarekin. Umeek eta familiek tailer batzuk egingo dituzte euskara euren egunerokoan zenbaterainokoa den ikusteko.

## Euskararen Eguneko egitaraua

Gaur, barikua, *Herria kantuz* alaituko dute eskolako umeek eta Alaiak erretiratuen elkarteko abesbatzak, goiz eta arratsalde. Bihar, abenduaren 3an, herri lasterketa egingo dute, *Aramaion euskeraz bizi gure dot* leloarekin. 11:00etan izango da izenematea eta lau luzerako lasterketak egongo dira: 270 metrokoa, 725 metrokoa, 1,6 kilometrokoa eta 3,2 kilometrokoa. 12:00etan izango dira lasterketak. Oinez edo korrika egiteko moduko lasterketak izango dira eta amaieran ez dute sailkapenik egingo. Izena ematerakoan, metalezko botilak erosteko aukera egongo da, 5 euroren truke. Boluntarioak behar dituzte ibilbidean zehar trafikoa zaintzeko. Ondoren, luntxa egongo da eta Trikikalejira elkarteak antolatuta kantu bazkaria egingo dute Izarra elkartearen.



NAHIA GARCIA

## Abadiñoko ziklo-krosean nagusi

Nahia Garcia Bidaburu aramaioarra txapelkun izan zen VIII. Abadiñoko Udala sarian, kadete kategorian. Lasterketa "txarto hasi" zuela dio, baina nabarmendu du azkenerako erritmoa hartu eta bakarrik sartu zela helmugan. 30.33ko denbora eginda nagusitu zen. Bi aste barru, Arabako txapelketa jokatu da; zailtza du han izango den edo ez.

## Udal larreetan ganadua izateko eskaera, udaletxean

2023an Aramaioko udal larreetan ganaduak izan nahi dituzten ganaduzaleek eskaera egin beharko dute Aramaioko udaletxean, lurralde historikoko mendiaren erregimena arautzen duen foru arauaren arabera. Inprimakia betetzeaz gain, AFAko abere erregistro-agiria eta larreetan zeintzuk ibiliko diren zehaztea eskatuko dute.

## Trantsizio energetikoaren gaineko hitzaldia

Aramaio Bizirik plataformak deituta, *Benetako trantsizio energetikorantz* hitzaldia egingo dute abenduaren 14an, 18:30ean, kultura etxean. Alvaro Campos -EHUko irakasle eta ikerlaria-, Iñigo Leza -Araba Bizirik- eta Josebe Blanco -baserritarra- izango dira hizlariak. Energiaren deskarbonizazioaz jardungo dute.

## Poltsak atera dituzte emakumeen aurkako indarkeria salatzeko

Udalak oihalezko poltsak atera ditu *Emakume bat gizonik gabe, bizikletarik gabeko arrain baten parekoa da* dioen esaldiarekin. Dagoeneko salgai daude, 5 euroren truke, liburutegian eta udaletxean. Poltsen salmentatik lortuko den dirua emakumeen indarkeriaren aurka lan egiten duen elkarte batera bideratuko du Udalak.

**PATXI CASTRO**

Era guztietako aukien konponketa

• Tapizatu lanak

• Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta

• Besuulki, mahai, saskiak e.a

**943 78 71 65**  
**639 01 69 69**

# Gabon giroari ekiteko bonuak eskuragai daude

Abendua iristearekin batera jarri ditu salgai Udalak '20+10 euro' bonuak; aurten, Aretxarteko kideek dute horiek banatzeko ardura, eta Arkupen dabilta horretan, eguerdi partean. Horrez gain, neguko egitarauari asteburuan ekingo diote

## Mirari Altube ARETXABALETAK

Gabonetako kanpainari hasiera emateko, bonuak jarri ditu herritarren eskura Udalak: 500, hain zuzen ere. Atzo eguerdian hasi zen horien salmenta eta herritarrek harrera beroa egin zieten, urtero legez. Bonuak herriko 50 establezimendutan baino gehiagotan erabili ahal izango dituzte, abenduaren 31ra bitartean.

## Salgai Arkupen

Aretxarteko kideek hartu dute aurten horiek saltzeko ardura, eta Arkupe kultur etxean dihardute horretan, 13:00etatik 16:00etara bitartean; 16 urtetik gorako aretxabaletarrek erosi ahal izango dute –persona bakoitzeko bat–, nortasun agiria aurkeztuta.

Tokiko merkataritzari bultzada emateko asmoarekin eta Gabon sasoiaren herriko establezimenduetan erosketak sustatzeko jarri du abian Udalak bonu kanpaina, beste behin. Erosleak 20 euro ordainduko ditu eta trukean hamar euro jaso, debalde. Aretxarte merkatarien elkarterko kide diren establezimenduetan –dendak, tabernak eta zerbitzuak– erabili ahal izango dira horiek, urtea bukatu bitartean.

Udalak 5.000 euro bideratu ditu kanpaina horretara, eta 500 bonu jarri herritarren eskura. Adierazi dute bonu guztiak salduz gero gutxienez 15.000 euroko inpaktu ekonomikoa eragingo lukeela tokiko ekonomian.

## Kultura egitaraua

Gabonen atarian akordeoi kontzertuak ez du hutsik egin izan, eta aurten ere hala izango da: iaz Arrasate Hiria Nazioarteko Lehiaketa irabazi zuen Piotr Motyka akordeoi jotzaile poloniarren emanaldia izango da abenduaren 4an, domeka, (12:30). Johann Sebastian Bach eta Maurice Ravel konpositore aski



Aretxarteko kideak bonuak saltzen Arkupen, atzo. MIRARI ALTUBE

## Zinema

### Helduak

- **No mires a los ojos:** Abenduaren 2an (22:00); 3an eta 4an (19:30); eta 5an (16:00).
- **Black is beltza: Ainhoa:** Abenduaren 6an eta 8an (19:30).
- **As bestas:** Abenduaren 9an (22:00); 10ean eta 11n (19:30); eta 12an (16:00).
- **Vasil:** Abenduaren 16an (22:00), 17an (19:30), 18an (19:30), eta 19an (16:00).

### Umeak

- **Minions: El origen de Gru:** Abenduaren 3an eta 4an.
- **Los buscamos:** Abenduaren 6an eta 8an.
- **El colegio de los animales mágicos:** Abenduaren 10ean eta 11n.
- **Tadeo Jones: La tabla esmeralda:** Abenduaren 17an eta 18an.

ezagunen hainbat lan eskainiko ditu, besteak beste.

Ez da izango abenduko kontzertu bakarra: hilaren 28an (19:00), Ispirit talde donostiarrak gospel doinuak ekarriko ditu. Eta bertsoekin beteko da Zariaia aretoa hilaren 29an (19:00); Uxue Alberdi, Ane Labaka, Andoni Egaña eta Igor Elortza izango dira kantari. Antzerkiak ere izango du lekua eta Txalo Produktzioak konpainiak *Kottauak* ikuskizuna eskainiko du abenduaren 26an.

Zinemak ere protagonismo handia izango du abenduan. Helduek lau film izango dituzte: Felix Viscarret zuzendari nafarraren *No mires a los ojos* – Juan Jose Millas idazlearen *Desde la sombra* eleberriaren egokitzapena–; Fermin Muguruzaren *Black is beltza II: Ainhoa* animaziozko zinta; Rodrigo Soro-goyen zinemagilearen *As bestas*; eta *Vasil*, Avelina Pratt valentziarraren *opera prima* Karra Elejalde protagonistista duela. Umeek beste horrenbeste film izango dituzte –17:00etan–.

Bestalde, erakusketa aretoan Iker Aizkorbe aretxabaletararen argazkiak izango dira.



Jasone Garzia-Etxabe eta Ion Albizu zinegotziak proposamena aurkezten. M.A.

## Oinezkoen segurtasuna areagotzea du helburu EH Bilduk

Iralabarri eta Basabeazpi arteko kalearen eta Araba ibilbidearen noranzkoak aldatzea da proposamena

### M.A. ARETXABALETAK

Iralabarri plaza eta Basabeazpi gunearen inguruan ibilgailuen zirkulazioa handia dela uste du EH Bilduk: "Horren ondorioz, ikastolaren alboko zebra-bidea oso arriskutsua da; jakinik gainera haurrek asko erabiltzen dutela". Ion Albizu bozeramaileak eta Jasone Garzia-Etxabe zinegotziak adierazi dute, eta hainbat aldaketa proposatu ere bai: "Hirigintza batzordean ikastolarekin, bizilagunekin eta beste hainbat herritarrekin landu dugu proposamena".

### Kaleen noranzko aldaketak

Aldaketen artean dago Iralabarri eta Basabeazpi arteko zebra-bidea espaloien altuerara igotzea eta kalearen noranzkoa aldatzea; hau da, ibilgailuek aldapa igo egin beharrean jaitea. Aldaketa horrek beste bat ekarriko luke gero: Andra Mari auzunetik da-

torren zirkulazioa Araba ibilbideetik hegoalderantz bideratzea: "Kale zati hori noranzko bakarreko bihurtuko litzateke eta horrekin hemezortzi apartakaleku irabazi". Gainera, Iralabarri plaza eta industrialdearen arteko kaleak bi noranzko izatea proposatu dute. Eta horren bukaeran, Araba ibilbidean, beste zebra-bide bat jartzea ere bai.

### Aldaketen aurretik, proba

"Aldaketa xumeak dira, baina onura ekar dezaketenak, Iralabarri eta ikastetxearen arteko pasabidearen segurtasuna nabarmen handituko litzatekeela", adierazi dute, eta behin betiko erabakia hartu aurretik proba egitea proposatu: "Zirkulazioa neurtu, aldaketak behin-behinean egin eta berriro neurtu". Ekarpnaren jasotzeko prest daudela gaineratu dute –[ehbildu@aretxabaleta.eus](mailto:ehbildu@aretxabaleta.eus)–.

## Euskaraldiari agur esateko argazkia eta dantza gaur plazan

Mila aretxabaletarrek baino gehiagok hartu dute parte hirugarrenez egin den dinamikan, eta jai giroan agurtu gura dute gaur. Hala, argazki erraldoia aterako dute, 17:30ean, Herriko Plazan, eta, ondoren, dantzan egin, Pirritx eta Porrotzek Euskaraldirako sortutako koreografiari jarraituta. Bukatzeko, txokolate beroa banatuko dute.

Mobiliario  
ARENZA

ALTZARIAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETAK

## AGINTALDI AMAIERAKO ELKARRIZKETAK

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Zortzi urte beteko ditu alkate lanetan eta "nahikoa" izan direla adierazi du. Agintaldi "gozoa" izan da proiektuei dagokienez, baina "gazia" arlo pertsonalean. **Zelako agintaldia izan da bigarren hau?**

Ahazteko modukoa. Lehenengoarekin ez du inolako zerikusirik izan; ez dakit pandemia izan den edo urteak aurrera doazen. Sentsazioa da erreka korrontearen aurka gabiltzala igerian; asko pentsatu behar dut une onen bat topatzeko. Administrazioan burokrasia izugarria da, eraginkortasunik batere ez; eta, enpresa mundutik etorruta, kosta egiten da. Epeak izugarri luzatzen dira; edozein txikikeriak aurrera egin dezan bi urte, hiru urte behar dira... Eta horrela ezin da aurrera egin.

**Hala ere, Udal Gobernuaren agintaldiko bi proiektu estrategikoak abian dira: Santa Kurtz kalearen eraberritzea eta adinekoendako gizarte zentroa?**

Bai; Santa Kurtz laneko lanak bukatzeaz daude eta jendea oso gustura dago, nahiz eta keaxtoren bat jaso. Ezinbestean egin beharreko lana zen eta oso ondo geratu da kalea; hilabete buruan bukatuta izango da. Komentuari dagokionez, lanen hasiera epea luzatu egin da, baina dagoeneko abian da eta erritmo onean, gainera. Hala, hurrengo urte bukaerarako geratu egongo da. Beste proiektu batzuk ere badaude, eta joan aurretik abian jarri gurako genituzke, nahiz eta amaituta ez ikusi guk. Komentuaren inguru guztia urbanizatzea dago horien artean; herriak asko irabaziko du horrela.

**Ahazteko modukoa esan duzunean pandemiagatik izan da, orduan?**

Agintaldiari gogotsu ekin genion; ekonomikoki egoera hobera zihuan eta plan asko genituen. Baina gakoa pandemia izan da, bai. Eragin handia izan du Udal Gobernuarengan zein herritarrengan, orokorrean; kultura aldaketa bat ikusi dut eta jendearengan desadostasun handiagoa geratu da. Gobernatzeari dagokionez, desastrea izan zen; ez genekien zer egin zitekeen, zer ez... Hasieran, ekonomikoki ere asko igarri zen eta horrek ziurgabetasuna ekarri zuen. Gainera, erabaki batzuk



Unai Elkoro alkatea osoko bilkuren aretoan, astelehenean. MIRARI ALTUBE

# "Korrontearen kontra igerian ibili garela iruditzen zait"

**UNAI ELKORO** ALKATEA

Bi agintaldi beteko ditu maiatzean eta bigarren hau "ahazteko modukoa" izan dela adierazi du; hala ere, pozik dago proiektu estrategikoek aurrera egin dutelako

hartu behar izan ziren, eta, askotan, ez dakit zein oinarri zientifiko zuten horiek; denborak erakutsi du egindako asko ez zirela beharrezkoak. Bi urte luze izan ziren.

**Osasun etxe berriaren lanak hasi ditu Jaurilaritzak. Pozik?**

Ia bost milioi euro inbertitu ditu horretan Jaurilaritzak eta oso pozik gaude. Agintaldi hasieratik zegoen erdi lotuta, nahiz eta gero luzatu egin den. Urteetako eskaera bat zen eta hurrengo urte bukaerarako amaituta egongo da. Herriak punta-puntako zentro soziosanitarioa izango du. Udaleko Gizarte Zerbitzuek ere lekua izango dute bigarren

solairuan, eta herritarrek arreta osoa jasoko dute han.

**Kuartela ere udal eraikinen artean dago. Haren egoeraren gaineko hausnarketarik egin duzue?**

Kuartelaren egoera txarra da, hori ukazina da. 1932 inguruko eraikina da eta berritze-lan handirik ez du izan. Asmoa da instalazio elektrikoaren lanak bideratzea. Baina nik neuk horren aurretik lehenetsuna duten beste proiektu mordoa daudela uste dut, eta herrian galdetuz gero ere bai.

**Kiroldegia ordaintzen bukatu da; horrek lasaitasuna ekarri du?**

2008 ingurutik ari ginen hori ordaintzen eta zorraren azken

ordainketa iazko abenduan egin zen. Orain berriro zorpetzea da asmoa proiektuak finantzatzeko eta urte bukaeran erabakiko dugu zenbat; bere garaian 2.700.000 euro onartu genuen, orain aztertzen ari gara, litekeena da gutxiago eta aurrerago behar izatea.

**Argindarraren eta gasaren igoeragatik erabakiren bat hartu beharra egon da kiroldegian?**

Energia gastuak izugarri hazi dira, bai, eta arduratuta gaude. Argindarrean ia bikoitza kontsumitzen du orain, eta gasean ia laukoitza. Herriko farol guztiek batera baino askoz gehiago kontsumitzen du, eta 1.800 farol

ditugu. Abuztuko fakturak hankaz gora jausteko modukoak izan ziren; gasak izugarriko pikoa izan zuelako orduan. Datorren urtean adi egon beharreko gaia da; bereziki, gasaren prezioari, urtean 80.000 euro ordaintzetik (2019an) datorren urtean -abuztuko prezioa izanez gero- 400.000 euro ordaintzera pasatuko ginatekeelako. Horregatik egon beharkeo dugu adi erabaki bat hartzeko. Zein erabaki? Prezioaren arabera. Igerilekuek gastatzen dute gehien; ura berotzen, hain zuzen ere. Eta baditugu erabaki batzuk pentsatuta.

**Energia trantsizioari dagokionez, Ekiola kooperatibaren aldeko apustua egin duzue.**

Bai; bulegoa zabalik dago izena emateko zein informazioa eskatzeko. Teilatuetan eguzki plakak jartzeko lekua guztiok ez dugu eta Ekiolak aukera bat eskaintzen du argindarra sortzeko. Edonork du parte hartzeko aukera, eta animatzeko esango nuke. Informazioa eskatu eta txosten bat egiten dute gastuen konparaketa eginez.

**Oposizioarekin zelan moldatu zarete?**

Hasieran apustu bat egin genuen, nahiz eta jakin zaila izango zela, Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren (HAPO) ardura emanda. Gobernuan egotearen abantailak aprobetxatu eta hurrengo hauteskundeetarako kanpaina etengabe bat jasaten ari ginen. Horrek ikaragarriko desgastea dakar; oposizioan egonda guk lasaiago egin dugu lan. Eta oposizioa proposamenak egiten dabil komunikabideetan baina horiek hurrengo urteko kanpainerako dira. Nik neuk ere beste mila proposamen sar ditzaket aurrekontuan baina ez dira egingarriak; dirua dagoena da.

**HAPOn lanketa zelan doa?**

Uste genuen aurrerapenarekin bukatuko genuela, baina larri ibiliko da agintaldiarekin batera amaitzeko. Poliki-poliki badoa, horrek ere bere epeak dauzka.

**"ENERGIAREN GASTUAK IZUGARRI HAZI DIRA KIROLDEGAN, ETA ARDURATUTA GAUDE"**



lako. Aurrerapena egindakoan eta erredaktatzeko unean berri-  
ro eskatuko da herritarren parte-  
hartzea. Jendea zelan moti-  
batu izango da erronka. Arau  
horiek eragina izan dezaketeko  
edozein herritarrengan.

### Agintaldiko azken aurrekontuak gertatzen zabilizate; lehentasuna non ezarriko duzue?

Xehetasun tekniko batzuk bakarrik geratzen dira lotzeko. Datorren urtean komentuko lanen azken ordainketa egingo da, 800.000 bat euro, eta inbertsioen partidan joango da hori; hortaz, askoz gehiagotan sartzeko aukerarik ez du uzten horrek. Abian jar daitezkeen proiektuekin egingo dugu aurrera, eta gero, gerakina hurrengo gobernuaren esku utziko dugu.

### Proiektu horietakoren bat aurrerazterik?

Txarapeako igogailua eta zubia; eta laster, Txarapeako lurri eusteko sistemaren proiektua jarriko da martxan. Kiroldegi aurreko berdegunearen proiektua ere bai, hori enkargatuta dago eta erakusteko moduan izango da.

### Arantzaxoren bat baduzu?

Arantza ugari. Lausittako Hornidura eta Saneamendurako Plan Berezia, adibidez; proiektua, behintzat, egin gura nuen, baina gero ezin bada aurrera eroan eta kaxoian beste hamabost urte pasatzeko ez du merezi egitea. Eta pilotalekuaren eraberritzea ere bai; edukiera gehitu eta aldagelak egitea zen asmoa, baina ezin.

### Eta egindako zerbaitek poztu zaitu bereziki?

Bai, bideratuta utzi nahiko nukeen proiektu batek. Baina, orain, ez dut ezer aurreratu gura. Santa Kurtz kaleko lanarekin ere gustura geratu naiz.

### Hurrengo udal hauteskundeetan ez zarela alkategai izango entzun dizugu. Horri berresten duzu?

Bai, zortzi urte nahikoa izan dira. Goitik behera aldatu behar-  
ko litzateke egoera nik jarraitzeko. Nire asmoa da Ulmara itzultzea.

## "PUNTA-PUNTAKO ZENTRO SOZIO-SANITARIOAREKIN HERRITARREK ARRETA OSOA JASOKO DUTE"



Akulu taldeko Xabi Iberokanpos, Aitor Bengoa eta Pablo Sanz, Aretxabaletako kontzertuan. BENJA BRAMOS

# Ez dute akuiluarekin jo beharrik sua pizteko

80ko Hamarkadan sortu eta lozorroan denbora luzez egon ostean, Akulu musika taldeak 'Sua' izeneko diskoa argitaratu berri du. Bederatzi kantu batzen ditu lanak, eta, 300 disko kalean salgai jarrita, ordubeteko zuzeneko prestatzen ari dira orain

### Imanol Beloki ARETXABALETA

Aitor Bengoa *Poli Karpo*, Pablo Sanz eta Xabi Iberokanpos dira Akulu taldea osatzen dutenak. 1986an sortu zen taldea, eta, ordutik 1992. urtera arte kontzertu ugari eman ondoren, *Poli* Madrilerara joan zen bizitzera, eta geldialdi mugagabea egitea erabaki zuten. Hala ere, 2016an, Mikel Unanue lagunaren ome-

naldia egiteko elkartu ziren, eta berriro hasi ziren entseatzen. Orain, lan berria estreinatuta, gogoz daude berriz oholtzara igotzeko.

### Lan berria kalean da

Pandemian, lokalean sartu eta kanta berriak konposatzeko tarte hartu zuten, eta disko berriko lan guztiak garai horre-

tan egin dituzte. "Oi! kanturen bat, punk melodikoa, punk bizkorra... Askotariko estiloak uztartzen ditu diskoak. Sei abesti pandemian egin genituen, bi pandemia aurretik, eta, gero, *Represión* kantuararekin bideoklipa egin genuen, Altsasuko gazteei omenaldi gisa. Bideoklip hori Aretxabaletako kuartelean grabatu genuen, eta berriz gra-

batu dugu, kalitate hobearrekin. Azken horri erreparatu, bideo-  
klipa sareetan jarri genuenean, iruzkin ugari idatzi zizkiguten, eta horietako batek honako hau esaten zuen: *Nik talde honen maketa bat dut, 1991koa; sekulako speed punka egiten dute*. Hala, grazia egin zigun, eta marketin gisa erabili dugu..." dio Aitor Bengoak.

Eskoriatzan, Aretxabaletan, Arrasaten, Oñatin, Eibarren, Legazpin, Altsasun, Aramaion eta Madril jarri dituzte diskoak salgai, eta, salmenta ona izaten ari denez, ez dute baztertzen disko gehiago ateratzea. "Salmentak egitea ez da gure asmoa, baina harrera ona izaten ari da".

### Ibilbide luze eta oparoa

Oroitzapen on baina lausoak dituzte Akuluko musikariek 80ko hamarkadan emandako kontzertuei dagokienez, baina talde handiekin eta leku askotan jo dituzte kontzertuak: "Bada kartel bat, esaterako, 1987koa, Arrasateko gaztetxean jo genuen kontzertu batekoa, Subterranean Kid's taldearekin batera. Horrez gain, Extremoduro, La Polla, Quemando Ruedas... taldeekin jo izan dugu. Azkenengo emanaldia, berriz, Neallta Fola taldearekin izan zen, Aretxabaletako Kixkor tabernan, diskoa argitaratu baino lehen. Orain, zuzenekoekin hastea da asmoa, eta, batez ere, disfrutatzea".

## Eñaut Zubizarretak jaso du Iñigo Muguruza ikerketa-beka

'Musika modernoan murgiltzeko harizko musika tresnertzako ikastaroa' proiektuarekin gailendu da

### I.B. ARETXABALETA

Iñigo Muguruza bekaren bigarren ekitaldiaren irabazlea izan da *Trigger* ezizenez ezaguna den Eñaut Zubizarreta biolontxelo-jole aretxabaletarra. *Musika modernoan murgiltzeko harizko musika tresnertzako ikastaroa* proiektuarekin izan da garailea, eta, beka -9.000 euroko zuzkidura du- jasota, zortzi hilabete izango ditu proiektua gauzatzeko.

Irungo Udalak antolatutako beka deialdiaren helburua ikerketa-ekintza proiektuak sustatzea

da, euskal esparruko azken hamarkadetako musika modernorekin lotuta. Hala, Eñaut Zubizarreta "pozik" agertu da bere proiektu proposamenarekin, eta urrats berriak egiteko gogoz dago. "Hari igurtzizko musika tresnaren esparruan musika-lengoaia modernoaren oinarritzko kontzeptuak zabaltzea eta komunitateari honen inguruko baliabide didaktikoak eskaintzearen garrantzia nabarmendu nahi izan ditut proposamenaren oinarri bezala. Horrekin batera, online bidez irisgarritasuna eta



Eñaut Zubizarreta, Aretxabaletako kuarteleko sarreran. GOIENA

hedapena sakontzea eta azken urteetan Euskal Herrian sortutako musika errepertorioa ezagutzera ematea ere helburu dituen proiektua da. Dossier bat prestatu nuen, zenbait laginekin, proiektua bukatu ostean, nola

eramango nukeen aurrera adierazteko. Duela urte batzuk hartutako erabakia berresteko aukera emango dit lan honek, eta baita musika eskoletako ateari irekitzeko, proiektua praktika-  
era eramateko..."

# "Jasotakoa eguneroko lanaren fruitua izan da"

**BITTOR BARANDIARAN ARRIETA ARREA! JATETXEKO SUKALDARIA**

Arrea! jatetxeak Michelin izar bat lortu berri du. Kanpezun (Araba) dago jatetxea, eta Edorta Lamo chefaren lantaldeko parte da Bittor Barandiaran eskoriatzarra

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA  
Bittor Barandiaran (Eskoriatza, 1997) sukaldariak eguneroko lanpetua dauka. Batez ere, arrainak eta lapiko-janak prestatzen aritzen da Kanpezuko Arrea! jatetxean, baina plater berrien taldeko parte ere bada eta abangoardiako teknikak lantzen dihardu.

**Arrea! jatetxeak Michelin izar bat lortu berri; pozik egongo zara, baita egunerokoan zurekin batera sukaldean aritzen diren gainontzeko kideak.**

Azaroaren 22an eman ziguten saria, eta oso pozik dago lantalde osoa, bai. Eguneroko lanean, bertakook jakin gabe gastronomia-kritikari bat edo gidako ikuskatzaile bat etortzen da. Hark aukeratzen du jatekoa, eta zenbait ezaugarri baloratzen ditu: menua, lokala, zerbitzua, ditugun ardoak, produktuak, mahai-tresnak, bezeroak, ingurua...

**Ikasketak amaituta, ibilbide luze-ari ekin zenion, ezta? Izan ere, lau urte beteko ditu abenduan Arrea! jatetxeak; ia hasieratik zaude, ezta?**  
Basque Culinary Centerreko bosgarren promozioko ikaslea naiz. Unibertsitateak praktikak egiteko aukera asko ematen zizun, eta, hori horrela, Donostiako jatetxe batean aritu nintzen, Gironan, Perun, Iruñean... eta Arrea!-n buru-belarri nabil duela hiru urtetik.

**Sukaldean zertan aritzen zara, bereziki?**

Arrainetara eta lapiko-janen partidetara dago bideratuta nire lana. Hala ere, plater berriei zuzendutako lantaldean ere aritzen naiz, sormen taldean. Luxuzko produktu moduan ikusita ez dauden produktuekin egiten dugu lan; adibidez, usoarekin. Eta horri teknika abangoardistak ezartzen dizkiogu: hartzigarria, ozpinetakoak eta abar. Hala, modu horretan, teknika mo-



Sukaldari eskoriatzarra amuarrainak prestatzen, argazki baterako. B. BARANDIARAN

dernoekin bizi berri bat ematen diogu jaki horri.

**Zer eskainiko zenioke zuk Arrea! jatetxera bazkaltzera edo afaltzera joaten den bezeroari?**

Ehiza, basa-belarrak, ia iraungita dauden fruitu autoktonoak... Horiexek dira azken hamarkadetan zaindu gabe, gutxietsita eta ahaztuta egon den kultura propio baten balioa handitzeko tresna eta osagaietako batzuk, eta horiekin egiten dugu lan. *Mendia zaindu behar da, gero mendiak zu zaintzeko* filosofia jarraitzen dugu.

**Aurrera begira, zein da zure asmoa?**

Gazteok inportantzia handiagoa eman beharko genioke sukaldari. Interes handiarekin sartu ginen gu lau lagun Arrea!-n, euskal gastronomia pizteko asmoz. Presioa jaso dugu, balioa ere eman digute, eta hori oso garrantzitsua da. Hori horrela, familiakoekin eta lagunekin denbora pasatu nahiko nuke denbora batez, eta gero, aldatu, ikasten jarraitu, bidaiatu... Lan askoko urteak izan dira, eta denbora bat hartzea ere ezinbestekoa da.

## EH Bilduren jardunaldiak herriaren osasuna aztertzeko

Eskoriatzako EH Bilduk '2030ean, nolako Eskoriatza izan nahi dugu?' jardunaldia antolatu du zapatarako

**I.B. ESKORIATZA**

Eskoriatzako EH Bilduk jardunaldiak antolatu ditu zapatarako; 10:00etatik 12:00etara batuko dira, kultur etxean, eta saio irekiak dira.

Jardunaldiak antolatzearen zergatia azaldu dute, eta bi arrazoi nagusi azpimarratu: "Batetik, garai inportantea bizitzen ari gara. Gure bailaran, Euskal Herrian eta munduan aldaketa handiak gertatzen ari dira eta gertatuko dira. Herritarrei, izango diren trantsizioei norabide egokian erantzun beharra dugu: energia, elikadura, zaintza krisia, merkataritza, gazteen emantzipazioa, osasungintza... Horiek eragingo dutenez, ongizate maila hobetzean eragin beharko dugu. Bestetik, azken zortzi urte hauetan Udalaren bilakaera oso kezkarria izan da, atzerapauso nabarmena. Udal Gobernu

inongo planik gabe egon da eta, haren kezka nagusia irudia izan den bitartean, *herri logela* fenomeno areagotu egin da. Horren aurrean, herri egitasmo sendoa behar dugu".

**Herriaren ekarpen bila**

Zapatuan modu kolektiboan iritziak elkartrukatzea da asmoa, eta lau gai nagusitan sakonduko dute: energia, elikadura eta ingurugiroa; euskara, kultura eta kirola; zaintza eta ongizatea; eta gazteria. "Herri osorako abiapuntua martxan jarri nahi dugu, eskoriatzarren beharrak gizarteratu eta herri eztabaida piztu. Abenduaren 3a guretzat egun oso berezia da, Euskararen Eguna balio berezia duelako. Gainera, euskararen erabilpenaren inguruko datuek kezka handia sortzen digute. Horretaz ere jardungo dugu..."

## Arguizen txapelketa borobila: Espainiako Koparako sailkatu da

Ipurua taldeko gimnasta eskoriatzar Haizeder Arguiz sekulako denboraldia egiten ari da. Banakako oinarrizko kategorian lehiatu da denboraldi honetan, uztaipeko ariketa batekin, eta, oraingo, urrezko bost domina eta zilarrezko bat lortu ditu.

Euskadiko txapelketan lehenengo postuan sailkatu zen, eta, kasu horretan, ezinbestekoa

zen sailkapeneko lehenengo bost postuen artean sailkatzea Espainiako Koparako pasea lortzeko. Beraz, helburua lortuta, hurrengo txapelketa hila- ren 10ean Gasteizko San Andres kiroldegian jokatu du; eta abenduaren 14tik 18ra Zaragozan izango den Espainiako Kopan arituko da, zehazki, abenduaren 15ean, 16:24an, uztaipeko ariketarekin. Bertan, oinarrizko mailako 79 gimnastaren aurka lehiatu beharko du eskoriatzarrak.

## Alzheimerria hizpide

Olazar Erretiratuen Elkarteak antolatuta eta Afagiren eskutik, alzheimerria edo beste demenzia batzuk dituzten familien, lagun eta pertsonen gipuzkoako elkarte bi kidek hitzaldia egin zuten martitzenean kultura etxean. Iñaki Olalde Afagiko idazkaria eta Koldo Aulestia Afagiko lehendakaria aritu ziren berbetan eta aretoan jendetza batu zen.



JASONE ORBEGOZO

# Magia eta dantza Euskararen Egunerako

Euskaraldiari agur esateko eta Euskararen Egunari ongietorria egiteko, bi ekintza nagusi izango dira Eskoriatzan: batetik, gaur, Niala magoaren ikuskizuna; eta, bestetik, bihar, Aukeran dantza konpainiaren saioa. Biak, Fernando Eskoriatza plazan

**Imanol Beloki Unamuno** **ESKORIATZA** Euskaraldia ariketa soziala gaur amaituko da, egubakoitza. Azaroaren 18an hasi zen ariketa, eta, ordutik hona *ahobizi* edo *belarriprest* txapak jantzita, euskara ulertzen duten hiztunak hizkuntza ohiturak indartzen edota aldatzen aritu dira. Hori horrela, egitasmoari amaiera emateko eta biharko Euskararen Eguna ospatzeko zenbait ekintza izango dira.

Gaur, Fernando Eskoriatza plazan Niala magoa izango da, 18:00etan. Etxeko txikiak eta nagusiak, denek batera, familiar ongi pasatzeko, barre egiteko, emozionatzeko eta momentu ahaztezina bizitzeko magia saio izango dute. Protagonistak arte eszenikoak eta plastikoak landu ditu bere ikasketetan, eta urte luzez magia emanaldi ugari egin ditu. Hori horrela, ondo prestatutako, trikimailuz betetako eta ikus-entzuleak aho zabalik uzteko moduko ikuskizun dibertigarriarekin izango da Eskoriatzan.

## Dantza eta musika

Bihar, zapatua, berriz, Euskararen Eguna ospatuko da. Hori horrela, Eskoriatzako gazteleku nerabeeek, 12 eta 17 urte bitartekoek, Peio eta Irene bi-



Aukeran dantza taldearen *Geltokia* ikuskizunaren une bat. IMANOL SORIANO

kotearen kontzertu akustikoa izango dute entzungai. 17:00etan hasiko da emanaldia, gaztelekuan, eta, ondoren, bertan dauden artean afari-merienda prestatuko dute.

19:00etan, berriz, aparteko dantza ikuskizun batekin gozatu ahal izango dute Fernando Eskoriatza plazako karpara joaten direnek. Izan ere, Aukeran dantza konpainiaren *Geltokia* saioa izango da; dantza garaikidea eta euskal dantza uztartzen dituen ikuskizuna, hain zuzen ere.

## Piztiak Inkernu tabernan

22:30ean, aldiz, Atxorrotx kultura Elkartek antolatuta, Piztiak taldearen kontzertua izango da Inkernun. Piztiak taldea 1991. urtean TU-K taldea desagertu zenean Txomin Uribe, Josu Aranbarri, Peio Larrañaga eta Jesus Galan musikariek eta Kirmen Uribe idazleak osatutako Ondarroat eta Mutrikuko taldea da, eta, egun, Jose Lastra ere badabil taldean. Ibilbide honetan zazpi disko kaleratu ditu taldeak; beraz, esperientziarik ez da faltako oholtza gainean.

## Ardo ugari dastatu dituzte

Euskaraldiaren baitan muntatuko karpa jarrita zegoela aprobetxatuz, karpa azpian ospatu zen Atxorrotx Kultura Elkartearen ardo dastatzea, eta, jende asko bertara joanda, eskerrak emateko aprobetxatu dute antolatzaileek. "Etorri zirenei, elkarteko bazkideei eta boluntario gisa ardo dastatzea aurrera ateratzeko lagundu diguten boluntario guztiei eskerrak asko".



IMANOL BELOKI



Enbor hutsa euskarazko mezuarekin. LEINTZ GATZAGAKO EUSKARALDIA BATZORDEA

## Enbor-azaletik euskara aho eta belarrietara iristeko asmoz

'Ez deila igartu berbia' mezua idatzi dute enbor hutsean Leintz Gatzagako Euskaraldia Batzordeko kideek

**Imanol Beloki Unamuno** **GATZAGA** Gatzagako Euskaraldia Batzordeko kideek gaztainondo-enborra Euskaraldiaren lekuko izendatu dute, mezu argiarekin: *Ez deila igartu berbia*. Monumentu gisa jarri dute enborra, Gatz Museotik gertu, hitzez ekiteko garaia dela adierazteko Gatz Bidea egiten duen pertsona orori. Modu horretan, Labidea, Gatz Museoa, Arrate jatetxea, Gatzagako Udala, Sormen Design, Gure Ametsa, Sorginak Emakume taldea eta Gaztainuzketa mendi etxeak Euskaraldiko ariketa sozialean arigune diren neurrian, Gatz

Bidea ere, nolabait, euskaraz lasai aritzeko gune bihurtu dute.

Domeka eguerdian egin zuten ekitaldian ezarri zuten gaztainondo-enborra, eta argazkietan jaso dute prozesu osoa; ihartutako enborra jasotzetik enborrean mezua idaztera bitarteko urrats guztiak erretratatu dituzte.

## Gaur, triki pintxo-potea

Euskaraldiaren ekintzak amaitzeko, gaur, 18:30etik 20:00etara egingo dute Euskaraldiko batzordekideek, Arratek, Toki-Ederrek eta Labideak lagunduta.



GARAZI OROBENGOA

## Harizko hostoa lagun artean

Leintz Gatzagako Sorginak Emakume Elkarteko kideek "haria ez eteteko" ekintza izan zuten martitzenean Toki Eder gastronomia elkartearen. Joan den astean egin zuten bileran adostu moduan, martitzenero batuko dira ekintza bat gauzatzeko. Hala, aste honetan izan dute lehenengo hitzordua, eta harizko hostoak egiteko aprobetxatu dute.



Etorbizuneko azokako beheko solairuaren itxura berria, proiektuak aurreikusten duenez. BIARK STUDIO

## "Erreferentziazko gune" izateko, azoka lizitaziora

Aurten 30 urte bete dituen Orixondoko azoka biziberritzeko "beharrezkoa" den obra lizitaziora atera du Udalak, eta eskaerak abenduaren 26ra arte aurkez daitezke: "Bertako produktua eta lehen sektorea erdigunean jarriko duen topagunea izatea nahi dugu"

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA Orixondoko azoka biziberritzeko "beharrezkoa" den obra lizitaziora atera du Udalak. "Oxirondo azoka erreferentziazko gune bihurtu nahi dugu eta horretarako prozesu bat jarri dugu martxan", adierazi du asteon Ainhoa Lete alkateordeak. Letek gaineratu duenez, Oxirondo "etorkizuneko topagunea"

izatea nahiko lukete: "Bertako produktua eta lehenengo sektorea erdigunean jarriko duen topagune bat nahi dugu herrian. Kokagune bat eman nahi diogu lehenengo sektoreari eta bertako produktuari, eta astean zehar gainbeheran dagoen egoera horri buelta bat eman, eskaintza osatu eta eskaintza iraunkorra sortu". Salmenta-gu-

neaz harago, azoka berritua topagune izatea ere bada helburua; sentsibilizazio eta formakuntza espazio bat ere edukiko du, eta koordinazio osoa azokatik bertatik eroango dute.

**30 urte bete ditu azokak aurten** 1992an eraiki zuten Oxirondoko azoka, hiru solairurekin. Obra beheko solairuan kokatuta dagoen

azokarako dago aurreikusita, sei hilabeteko exekuzio epearekin. Gaur egungo banaketa honako hau da: lau postu, arrandegia, harategia, korridore pribatua, biltegia, harrera, komunak eta portxea. Arrasateko Biark Studio arkitektura enpresak idatzi duen proiektuan jasotzen denez, honela geratuko litzateke banatuta beheko solairua: 142,29 metro koadroko azalera hartuko zukeen denda, sukaldea -12,34 metro koadro-, bulegoa -10,28 metro koadro-, biltegi nagusia -48,07 metro koadro-, bigarren biltegia -9,82 metro koadro- eta hozkailua -15,35 metro koadro-.

Proiektua gauzatu ahal izateko, espazio fisikoaren egokitzea ere beharrezkoa dela ikusi du Udal Gobernuak. Horri helduta, azokan sartu eta eskuinaldean gune bakarra sortzeko obra bat planteatzen da; ezkerreko aldean, berriz, espazio txikiak mantendu egingo dira eta hutsik daudenak, bete; eskaintza osatzeko eta indartzeko. Azaroaren 28an argitaratu zen Udalaren kontratatzailearen profilean obra egiteko deialdia. Lizitazioaren zenbatekoa 345.443 euro da -%21eko BEZa barne-. Proiektua exekutatzeke eskaerak abenduaren 26ra arte aurkeztu ahaliko dira.

### Gipuzkoako azoken sarea

Udaletik adierazi dutenez, "testuinguru orokorrago baten" dago kokatuta proiektua. "2021ean, tokiko baserriarren azoken dinamizazioa eta sustapena helburu, Landaola elkarteak, Jaur-laritzako Erika Fundazioaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, eta Gipuzkoako lurraldeko 16 udalerriren konpromisoarekin, Gipuzkoako azoken sarea proiektua abiatu zuten. Hor kokatzen da Bergara-

ko azokaren inguruan 2021. urteko lehen seihilekoan egindako prozesua. Oxirondo azokari buruz hausnarketa konpartitua egin zen bertan aktiboki parte hartzen duten eragileen artean, elkarrekin, azokari balioa eman eta etorkizunera begirako erronkak eta ekintzak identifikatzeko".

### EAJK kezka agertu du

EAJK ere uste du azokak bultzada behar duela: "Gurea zaindu behar dugu". Hori bai, salatu dute kudeaketaren inguruan ez dutela informaziorik jaso Udal Gobernuaren partetik: "Oraindik ez da definitu zein izango den denda edo espazio horren kudeatzailea, zein baldintzatan egingo den esleipena, nori bideratuta egongo den espazioa... Edonork kudeatu ahal izango du? Denda handiak aurkeztu ahal izango dira? Herriko baserriarrak? Zein baldintzatan? Baldintza ekonomikorik egongo ote da?", galdegin dute, besteak beste. Kudeaketa-eredua zehaztu gabe proiektua lizitaziora ateratzea "larria" da, jeltzaleen ustez: "Larria iruditzen zaigu Gobernuak diru publikoarekin egiten duen erabilera. Horrelako proiektu batek kudeaketa-plan bat zehaztuta izatea beharrezkoa da; kudeaketaren irizpideak aldeztu aurretik zehaztea ezinbestekoa da. Obra egin eta inor aurkezten ez bada? Zelan bermatuko da planteatzen diren helburuak eta asmoak beteko direla?".

## EAJ-K KEZKA AGERTU DU; DIOENEZ, KUDEAKETA EREDUA ZEHAZTU GABE ATERA DA LIZITAZIORA

## Monzon-Ganuzua saria: ireki dute epea obra artistikoa aurkezteko

Olaso Dorreak eta Udalak elkarlanean antolatzen duten sariaren egileari 3.500 euro ordainduko dizkiote obragatik

**J.B.L.** BERGARA

Olaso Dorrea Fundazioak eta Udalak ireki dute epea 2023ko Monzon-Ganuzua sarirako obra artistikoa aukeratzeko. Artelanaren egileari 3.500 euro ordainduko dizkiote, helburuetako bat

ere badelako euskal artista berriak sustatzea: "Urtero artista berri bati eskainiko zaio saria diseinatzeke edo aurretik egin duen bat emateko aukera; horrela, saria bera euskal artista berrien sustapenerako ekimen bihurtuko

da. Belaunaldien arteko zubi-lana eraiki nahi da". Saria aukeratzeko epaimahaia honako aditu hauek osatuko dute: Beart elkarteko presidente Karlos Gallarraga, Jesus Mari Lazkano margolaria eta Mikel Lertxundi arte historialaria eta komisarioa.

Monzon-Ganuzua sariaren bidez, Euskal Herriari bizitza osoko lana eskaini dioten herritarrak omendu nahi dituzte: 2021ean, Libe Goñik jaso zuen saria; eta 2022an, Mari Karmen Ayastuyk eta Jose Luis Elkorok.



Ayastuy eta Elkorok sariarekin. OLASO

## Ordutegi berezia izango du museoa abenduko zubian

Honako ordutegi honetan egongo da zabalik museoa hurrengo asteko zubian: abenduaren 6an, 10:00etatik 13:00etara; hilaren 7an, 10:00etatik 14:00etara; hilaren 8an, 10:00etatik 13:00etara; hilaren 9an, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; hilaren 10ean, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara; eta hilaren 11n, 10:00etatik 13:00etara.

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA  
2022ko aurrekontuetako ia 900.000 euroko kreditu aldaketa bat onartu zuen udalbatzak asteleheneko bilkuran, EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren zein alderdi sozialistaren abstentzioarekin.

**EH Bildu alde, EAJk abstentzioa**  
EAJk "kezka" azaldu zuen hainbat partidatan aldaketak izan direlako. "Udal Gobernuaren ekimenez abiatutako hainbat partidatan ez da garapenik izan eta uste dugu kudeaketarik ezaren edota inprobisazioan oinarritutako kudeaketaren emaitza dela", adierazi zuen Maite Agirrek.  
PSE-EEko Alberto Alonsok ere abstentziora jo zuen, gainerako kreditu aldaketekin egin izan duen moduan: "Ez dira gure aurrekontuak; gureak progresiboagoak eta bultzada handiagoak izango lirake. Horregatik abstenitu gara".

EH Bilduko eledun Nagore Iñurrategik, berriz, uste du "ariketa sana" dela partidak birbideratzea: "Aurrekontuak aurreikuspenak dira, eta biziak izan behar dute egoera berriei erantzuteko. Aurreikuspenetan ez genuen pentsatzen, adibidez, fakturretan edota materialetan horrenbeste gastatu beharko genuenik. Horregatik, egin duguna izan da exekuziora bideratu aurretik egoera partidaz partida aztertu eta ahal izan dugun lekutik dirua atera; etxe guztietan egiten den ariketa sana da".

#### Aldaketen artean, Agorrosin

Udal Gobernuaren arabera, aurreikusi ezin zirenetako batzuk eta ondoren sortu diren beharrak erantzutera etorri da aldaketa, eta gehikuntzetarako partida handien artean daude, besteak beste, 100.000 euro bideratzea

# Kreditu aldaketa aurrera, ikuspegi ezberdinekin

2022ko aurrekontuetatik ia 900.000 euro birbideratzea onartu du udalbatzak, EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren zein PSE-EEren abstentzioarekin. Gobernuak egungo egoerari egokitzeko "ariketa sana" dela dio; jeltzaleentzat "kudeaketa eza eta inprobisazioa" da

jolas parkeetarako, kanposantuan sortu diren lanak egiteko 148.000 euro, urbanizazioetarako 148.000 euro eta Agorrosingo futbol zelaiako lehen faseko lanak gauzatzeko 149.000 euro.

Hain zuzen ere, joan den astean albiste izan zen Agorrosin. BKEko zuzendaritzak "penaz eta haserre" hartu zuen azaroaren 26an gizonetzkoen ohorezko erregional mailako Aloña Mendiren kontrako derbia Ipintzan jokatu behar izatea; jokalariek protesta egin zuten partiduaren hasieran, pankarta bat erakutsita eta lehen minutua lehiatu gabe jokotuta. Udalaren arabera, Industria Sailean aurkeztu beharreko baimeketan arazoak izan zituzten:

"Soropil artifiziala jarrita dago dagoeneko, baina instalazio elektrikoaren eta zelaiaren inguruan egin behar diren lanak amaitu gabe daude". Eta gaineratu dute zelai berria behin-behinean ireki ahal izateko beharrezkoak diren lanak astean bukatzea aurreikusten dutela, "bestelako okerrik sortzen ez bada". Lehen faseko lan guztiak, berriz, abenduaren erdialderako amaituta egotea espero dute.

#### Energia eta Euskararen Eguna

Energia berriztagarrien alde eta Udala Ekiola proiektuaren parte izateko EAJk aurkeztutako mozioari alternatibo bat aurkeztu zion EH Bilduk, eta azken

hori izan zen onartu zena. Mozioak mozio, udalbatzako hiru taldeek beharrezko ikusten dute trantsizio energetikorako urratsa egin beharra.

Euskararen Egunaren bueltako adierazpena ere izan zen hizpide; alde aurretik lanketarik egin ez izanak eragin zuen EAJk adierazpen bat proposatzea eta EH Bilduk beste bat. Jeltzaleen adierazpena Akoba erakundeak Euskal Autonomia Erkidegorako aurkeztutakoa da, 40 urte bete dituen Euskararen Legea duena oinarri. EH Bilduk, berriz, Uemak Euskal Herri osorako aurkeztutako adierazpena aurkeztu zuen eta azken hori izan zen onartu zena.



Kreditu aldaketaren gaineko eztabaida, asteleheneko osoko bilkuran. JOKIN BEREZIARTUA

## Danobatgroup: abian da Euskararen Eguna ospatzeko lehiaketa

*Euskaraz izango gara* leloarekin, aurten ere Danobatgroup kooperatiba taldeak Euskararen Eguna eta Euskaraldiaren amaiera ospatzeko lehiaketa antolatu du. Lehiaketa kooperatiba taldeak lantegiak dituen herrietako herritarrei eta orokorrean gizarte osoari dago zuzenduta. Lehiaketan parte hartzeko, honako lotura honetara sartu behar da: <https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2022.html>. Erantzunak Danobatgroupen webgunean aurkitu ahal dira; abenduaren 14ra arte dago parte hartzeko eta erantzun zuzena ematen dutenen artean produktu ekologikoz osatutako otarre bat zozkatuko dute.

## Ohorezko txartela aterako dute, kirol arloko lana saritzeko

Herritarrek kirolaren alde egiten duten edo egin izan duten lana eskertzeko sortu du Udalak Kirol Zerbitzuko ohorezko abonatu txartela. Gaurko aurkeztu beharko dira proposamenak, abenduak 2, BAZean, Agorrosin edo Udalaren webgunean. Ohorezko txartelaren jabeak urte osorako banakako abonamendu osoa doan izango du. Salbuespenak salbuespen, urtean gehienez horrelako bost txartel banatuko ditu Udalak. Urtero abenduan erabakiko dute zeintzuk izango diren hurrengo urteko txartelarekin sarituak, eta pertsona batek ezin izango du urtebete baino gehiagoan ohorezko txartela lortu.

**DANOBATGROUP**

**euskaraz  
izango  
Gara**

HARTU PARTE DANOBATGROUP-EN EUSKARAREN EGUNA ETA EUSKARALDIAREN AMAIERA OSPATZEKO LEHIAKETAN!




Sartu lehiaketaren estekan, erantzun galdera eta irabazi produktu ekologikoz betetako otarre bat.

[info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2022.html](https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2022.html)

PARTE HARTZEKO AZKEN EGUNA

2022ko abenduak 14 | 00:00h

**DANOBATGROUP** / DANOBAT / GOIMEK / IDEKO / LATZ / SORALUCE



## EUSKARALDIA



Euskaraldiari hasiera emateko ekitaldia, Seminarixoan. GOIENA

# Kopuruetan, bigarrena berdindu du hirugarrenak

Gaur bukatuko den Euskaraldian 3.000 bat bergarrek hartu dute parte –%83 'ahobizi' eta %17 'belarriprest'–, eta, antolatzaileak pozik badaude ere, diote geldoago joan direla gauzak hirugarrenean: "Berrito izena ematera animatu behar izan ditugu herritar asko"

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA 3.000 bat bergarrek hartu dute parte atzo amaitu zen Euskaraldiaren hirugarren edizioan, eta horrek esan nahi du bigarren edizioaren kopuruak berdindu egin direla, gutxi gorabehera. Hain zuzen ere, horietatik %83 *ahobizi* izan dira eta gainerako %17ak, *belarriprest*.

## Euskaraldiaren garrantzia

Euskaraldiko dinamizatzaile Andrea Gonzalezek "balorazio ona" egin du, "oro har". Hala ere, hirugarren edizioa izan arren jendearen atzetik ibili behar izan dutela aitortu du: "Gogotsu hasi ginen, baina, oraingoan, beste erritmo batean joan dira gauzak: lehen edizioa oso pozik hartu zuten herritarrek, hein handi batean, ekimen berria zelako;

bigarrenean, pandemiak asko tristatu zuen Euskaraldia eta datuek behera egin zuten; eta hirugarren honetan, kaleak berriro hartu nahi izan ditugu eta esango nuke oro har lortu dugula. Hori bai, jendeari Euskaraldia zer den eta euskararendako ze garrantzitsua den gogorarazten ibili behar izan dugu eta berriro izena ematera animatu behar izan ditugu asko eta asko". Atzeko lana ere aipatu du Gonzalezek: "Aurten, akaso, ez da horren presente izan sare sozialetan eta

**AZKEN EKITALDIA EGINGO DUTE GAUR: BERTSO-JIRA, SAN MARTIN PLAZATIK ABIATUTA (19:30)**

beste plataforma batzuetan, baina sekulako lana dago atzetik; dinamizatzaileek ondo dakite ez dela behar beste baloratzen herri baten Euskaraldia antolatzeak dakarren antolaketa-lana".

## Amaitzeko, bertso-jira

Hamabost egunotan askotariko ekitaldiak antolatu dituzte, "adin eta gustu guztiak" asetzeko asmoz. "Ekitaldi motaren arabera izan da elkartu den jende kopurua, baina, oro har, pozik gaude ekitaldi guztiekin". Azken ekintza batekin itxiko dute Euskaraldia Bergaran: gaurko, bertso-jira antolatu dute, San Martin plazatik abiatuta (19:30), Ainhoa Agirreazaldegi eta Aner Peritz bertsolariekin; herriko kaleak zeharkatuz arituko dira bertsoan.

## NIRE USTEZ



ASIER ELORZA

## Plan perfektua

Elizari buruz idatzi nuen zutabeak sortutako polemikaren ostean, ez nuen espero aukera gehiago izango nuenik. Eo! Badago inor hor? Irakurlerik izango ez dudanez, Infernukua tabernako Jabi filosofoak –goian be... kasu honetan, behean bego– esaten zuenari kasu egingo diot: "Aburrir no, jeh!". 24 idatzi eta ia 9 urteren ondoren, beste batzuei tokia lagatzeko momentua heldu da; zutabe baikor honekin agurtuko naiz. "Hor noa!". Plan perfektua diseinatu digute Bergaran. San Juanen ipini behar diguten erraustegian lanpostu ugari sortuko dira eta herriko ekonomia pila bat igoko da. Tximiniatik irtengo diren sulfito, nitrito eta mipito inofensiboak eliminatzeko, Karakaten ipiniko dituzten haize errota-bentiladoreekin ederki banatuko ditugu Euskal Herrian barrena, eta, gutxi batzuk lurrera jausten badira, AHT pasatzerakoan mugituko ditu gorantz, berriro bentilatuz. Haize garbia eta poltsikoa diruz beteta, gasolinaren eta autobidearen kosteagatik arduratu gabe Donostiara joan ahalko gara, bertakoen hondartza zikinaz eta egoera kaskarraz barre egitera... Eskerrik asko irakurri didazuen guztioi eta *hor bua!*

## Gabonak: erakusleihu lehiaketako izen ematea, hilaren 9rako

Aurten ere erakusleihu lehiaketa antolatu du Udalak Gabonetarako: "Errotutako lehiaketa da, bertako komertzioa sustatzeko egiten dena". Dendek abenduaren 9rako eman beharko dute izena, 943 76 10 16 telefono zenbakira deituta komertzio-ordutegian; abenduaren 8tik aurrera erakusleihoa prest izan beharko dute. Kontuan hartuko da publi-

zitate-mezuaren imajinazioa, originaltasuna, argiztapena, berrikuntza eta eraginkortasuna eta kalitatea. Herritarrek ere botoa emateko aukera izango dute, abenduaren 13tik 18ra, udal webgunean. Lau sari banatuko dira, abenduaren 20an: irabazlea, 350 euro; bigarren saria, 300 euro; hirugarrena, 200 euro; eta herri-tarren saria, 50 euro. Saridun guztiei ziurtagiria emango zaie eta sari guztiak udal bonuetan banatuko dira, herriko komertzioetan trukatzeko.

## OHARRAK

## Movember Gara: zozketako zenbaki irabazleak

Lehen saria, Dikar kooperatibaren mendirako materiala (477); bigarrena, Gorka harategiaren otarra (959); eta hirugarrena, Eruan-en bi lagunendako bazkaria edo afaria (788). Etekinak prostata-minbiziaren aurkako ikerketara bideratuko dira.

## Aidau haurren zerbitzua: Euskararen Festa

Gaur egingo dute, 17:30etik 19:30era, Oxirondoko plazatxoan –euria bada, azokako bigarren solairuan–. Dantza, jolasak, eskulanak, karaokea eta musika izango dituzte, besteak beste.

## Bergarako Orfeoiaren mendeurreneko logoa

Orfeoiak logoa berritzeko lehiaketa antolatu du. Hamar proposamenen artean partaideek eta bazkideek hiru finalista aukeratuko dituzte. Irabazlea abenduaren 20an esango dute.

## Hitzaldia: 'Nor zen Telesforo Monzon?'

Gaur, abenduak 2, izango da hitzaldia, Olaso dorrean (18:00).

## Kontzertua kartzela zaharrean gaur gauean

Feline eta Sonic Trash taldeek kontzertua emango dute gaur, abenduak 2, 22:00etan hasita. Sarreraren prezioa: zortzi euro.

## Filma eta solasaldia eguaztenean

Orain arte antolatutako azken ekitaldia eguazten iluntzean egin zuten, Irizarren. *Anti* film laburra eta beste bideo bat ikusi ostean, solasaldia izan zuten, Lupe Olabarriaren eta Itziar Usandizagaren bizipen berri jasotzeko. "Oso polita izan zen osteko solasaldia. Euskarak ze egoera zailak bizi izan dituen gogoratzeko balio izan zigun, eta aurrera begira ere jarri ginen".



Anti filmaren osteko solasaldia, eguaztenean, Irizarren. EUSKARALDIA

# 'Bretxa' estreinatzean, atzerako kontaketa abian

Urtarrilaren 13an estreinatuko du Toti Martinez de Lezearen 'Bretxa' eleberrian oinarritutako musikala Bergarako Antzerki Musikala Elkarteak, eta entsegu irekia egingo du herriko kultur eragile eta taldeentzat domekan, Ipintza Institutuko aretoan

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA  
Urtarrilaren 13an estreinatuko du Bergara Antzerki Musikala Elkarteak *Bretxa, 1813 Donostiako sutea* musikala, Donostiako Victoria Eugenia antzokian, eta bertan arituko da 14an eta 15ean ere; hain zuzen, duela 30 urte elkarteak lehenengo musikala *Miserableak* estreinatu zuen leku berean. Toti Martinez de Lezearen eleberria da Valen Moñuxen eta Oihan Vegaren zuzendaritzapean 150 lagunek taularatuko dutena.

Hilabete eta erdiren faltan, entseguetan murgilduta dabilta, eta domekan, 18:00etan, entsegu irekia egingo dute herriko kultur eragile eta taldeentzat Ipintza Institutuko aretoan. Zerbait berezia izango dela aurreratu du Vegak, baina "ez da emanaldi edo estreinaldi bat izango; ezta entsegu soila ere".

Gonbidapena dutenak joan ahal izango dira –60 gonbidapen inguru banatu dituzte–, eta, esan duenez, "gutxi gorabehera, mundu honetako adituak eta urte hauetan zehar gurekin kolaboratu dutenak baina oraingoan ez daudenak" gonbidatu dituzte; konfiantzazkoak, ikuspuntu aditu eta kritikoa izateko"; modu horretan, haien iritzi eta proposamenekin hobekuntzak egin



Antzezleak entseguan joan den domekan. IMANOL SORIANO

eta ikuskizuna "findu" nahi dute estreinaldira begira.

## Herriarren ikuspuntutik

Moñuxek gomendatuta hasi zen Vega Toti Martinez de Lezearen eleberria irakurtzen, eta, aitortu duenez, eleberria irakurtzen amaitu aurretik "irakurritakoa musikal batean nola geratuko zatekeen irudikatzen" ari zen. Gainera, familia erdi donostiarra du, eta, dioenez, "donostiarasuna" etxean bizi izan dute amaren eraginez, nahiz eta Bergaran bizi izan bitzta osoan:

"Amak betidanik irakatsi izan dizkit danborradako kantuak, kaldereroak... Orduan, osagai horiekin guztiekin erabaki nuen aurrera egitea".

*Miserableak* izan zen taularatu zuten lehengo obra. Vegak aitortu du orduz geroztik gehiago zentratu direla familia edo haurrentzako musikaletan: "Jatorrirra itzuli nahi genuen. Hura Frantziako drama bat zen, eta zergatik ez kontatu, ezta, gure drama bat".

1813ko Donostiako sarraskia du abiapuntu lanak, baina ema-

kumeen ikuspuntutik kontatu nahi izan dute: "Totik berezitasun hori dauka bere eleberri historikoetan. Gainera, gehienetan, ikuspuntu militar eta politikotik kontatu izan ohi da historia hori".

Lan "oso zailtzat" definitu du Vegak eleberria taulara egokitzea, dena ezin baitute taularatu: "Zailena da eleberria ez distortsionatzea. Liburuak askotan daude pentsatuta historia lineala izateko, baina musikal batean gorabeherak egon behar dira, eta forma musikal eman behar zaie hitzei. Ezin dituzu jarri lau bakarriketa dramatiko jarraian. Tartean zerbait alai sartu behar duzu. Hori dena koordinatzea da zailena, nire ustez".

## Ekitaldiak, estreinaldi aurretik

Estreinaldiaren aurretik hainbat ekimen berezi egitekoak dira, musikala eta 1813ko gertakaria oinarri hartzen dituztenak; horren barruan sartzen da domeka honetako entsegua.

Abuztuaren 31n, esaterako, erakusketa bat jarri zuten Gipuzkoako hiriburuan, 1813ko egun hartan gertatutakoa erakusteko: "Bideoak, jantziak, balak, bonbak eta fusilak ginen erakusteko".

Halaber, badute asmoa urtarrilaren 13a baino lehen beste pare bat ekitaldi egiteko; horiek ere Donostian izango dira. Alde zaharrean dantzatuko dute, baina baita Bretxa merkataritza-gunea dagoen merkatuan ere. Vegak azaldu du hor zegoela benetako harresia eta musikalak ere horri egiten diola erreferentzia: "Han zegoen harresiko zirrikitua, eta handik sartu ziren ingelesak. Bertan dantzatuko dugu. Jendea erosketak egiten ibiliko da merkatuan eta bat-ba-

tean soldadu frantziarrak eta ingelesak ikusiko ditu".

## Urduritasuna eta ilusioa

Aste batzuk faltan, urduritasuna eta ilusioa "eskutik emanda" doazela dio Vegak. Nahiz eta dagoeneko hamabigarren musikala izan, jende eta elkarte gehien bildu dituen lana da.

Gakoa domekako entseguan dagoela dio: "Gaizki ateratzen bada, urduriago jarriko gara; gutxi gorabehera ateratzen bazaigu, hobetu egin dezakegu, hilabete geratzen baita".

## Autobusa Donostiarako

Donostiako hiru emanaldietarako autobus bereziak antolatuko ditu Bergarako Udalak, eta txartelak abenduaren 5etik aurrera egongo dira salgai, bi euroren truke, [www.seminarixoa.eus](http://www.seminarixoa.eus) webgunean. Autobusera igotzeko beharrezkoa izango da autobuseko nahiz musikalerako sarrerak gidariari erakustea. Vegak gaineratu du modu bat dela jendeari bidea errazteko: "Baina gure konpromisoa ere bai orain daukagun klima larrialdien kontra, jendeak ez dezan autorik hartu; jakin badakigulako Bergaratik nahiz bailaratik jende mordoa aterako dela Donostiarantz".

Halaber, urtarrilaren 13ko, 14ko eta 15eko emanaldietako sarrerak salgai daude dagoeneko [www.bretxamusikala.eus](http://www.bretxamusikala.eus) webgunean eta Victoria Eugeniako txarteldegian.

## BERGARAKO UDALAK AUTOBUS ZERBITZU BEREZIA JARRI DU VICTORIA EUGENIAKO EMANALDIETARAKO

## 42. Gabonetako kontzerturako sarrerak salgai daude

Abenduaren 17ko kontzertuko sarrerak [www.seminarixoa.eus](http://www.seminarixoa.eus)-en daude salgai, zortzi eurotan. Bakoitzak gehienez sei sarrera eros ditzake. Eguna baino lehen sarrera guztiak salduz gero, kontzertu egunean ez dute leihaita zabalduko. Bestela, 19:00ean irekiko dute, eta kontzertua hasi baino hamar minutu lehenago itxiko dituzte frontoiko ateak.

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 034630

**AROSZTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 765491

**BERGARA**  
[aroztegia@ugarte-aroztegia.com](mailto:aroztegia@ugarte-aroztegia.com)

Proiektuak · Koltxoak  
Horma-armairuak  
Altzariak neurria  
Ateak · Eskailerak ·  
Leihoak · Tarimak ·  
Egur lanak

Entrega Registrada N°100/025

**ERLOJUAK,  
ARTIKULU  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULAGAILUAK...**

Fraiskozuri plaza 8.  
943 76 59 54 BERGARA

**ARRANDEGIA**

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

## EUSKARALDIA



Euskaraldiaren aldeko argazkia atera dute Elgetako Herri Eskolan. ELGETAKO HERRI ESKOLA



Garazi San Martin, Espaloian. I.S.



Patata-tortilla lehiaketa. I.A.

# Aldatutako dinamikei eustea dator orain

Gaur amaitzen da Euskaraldia, baina, era berean, garrantzitsua eta ezinbestekoa da hizkuntza praktikan sakontzen jarraitzea; harrera ona izan du ekimenak Elgetan: aurreko Euskaraldiko izen-emateak gainditu egin dira aurten

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA Elgetan 212 lagunek eman zuten izena hirugarren Euskaraldira: 178 *ahobizi* izan dira eta 34 *belarriprest*. Bi astez txapa paparrean jarri eta hizkuntza ohituretan eragitea helburu duen ariketa egin dute. Nolabait ere, euskararekiko herri-gogoaren neurria ematen duen datua da, baina Euskaraldia batzordean ere jakin badakite egon dela herrian izena eman gabe ere ariketa egin duenik.

Hainbat ekitaldi egin dira hamabost egunotan Elgetan. Horien artean izan da kale erabilaren neurketak emandako datuen aurkezpena. Elgetan hamarretik seik dihardute euskaraz kalean; 3,9 puntu jaitsi da euskararen

kale erabilera. Bakoitzaren ohi-ko harreman sareetan eragiteak hautu kontzientea egitea eskatzen du, eta praktikari eustea jarraitzea. Euskaraldia batzordeak hurrengo egunotan egingo du balorazio bilera.

**Hainbat ekintza herrian** Euskaraldiari hasiera eman aurretik, patata-tortilla lehiaketa egin zuen Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak. Euskaral-

**ELGETAN 212 LAGUNEK EMAN DUTE IZENA EUSKARALDIAN; 178 'AHOBIZI' ETA 34 'BELARRIPREST'**

diaren etorrera girotzeko balio izan zuen. Bakarriketa umoretsua ere izan da egunotan; Garazi San Martinek egin zuen, Espaloian, Udalak antolatuta.

Hamahiru arigune izan dira Euskaraldi honetan Elgetan, eta Herri Eskola izan da horietako bat: eskola orduetan egindako ekintzez gainera, hezkuntza komunitate osoa Euskaraldiaren aldeko argazkia ateratzera gonbidatu zuten.

**Bihar, bertso-bazkaria** Bihar da Euskararen Eguna, eta Udalak bertso-bazkaria antolatu du Bolatokian. Miren Amurizak eta Aitor Sarriegik egingo dute bertsoan. Amaia Agirrek jarritako gaiak oinarri hartuta.



IMANOL BELOKI

## Bonolotoak 61.137 euroko saria

Herritar batek astlehenean Elgetako Haizea tabernan jokaturako zenbaki konbinazioak 61.137 euroko saria jaso du. Tabernako Bittor Gallastegi pozik agertu da: "Lehen aldia da halako sari potolo bat ematen dugula. 1.000 edo 2.000 euro ingurukoak banatu izan ditugu, baina halakorik ikusi barik geunden. Bertako bati tokatzea, gainera, poztetia da".



ELGETAKO GAZTELEKUA

## Gaztelekuak antolatuta, Bilbora

Gazteleku zerbitzuetik antolatuta, argazkiko gazte taldeak egun-pasa egin zuten zapatuan Bilbon. Ohe elastikoen parke batean ibili ziren jolasean goizean, eta Guggenheim museo ingurura joan ziren bazkaltzera. Museoaren aurreko aldean dagoen *Pupi* txakurrari eta atzeko aldean dagoen armiarna ikusgarriari bisita egin ostean itzuli ziren Elgetara.

### Elizan dauden artelanak ezagutzeko bisita gidatua laster

Santiagoren erretaula, Juan Simon Gutierrezen olioak, Marcellus Coffermansen triptikoa... Artelanak daude Elgetako elizan, eta Nerea Villak bisita gidatuko du hilaren 10ean. Taldea 10:00etan elkartzeko da, Andra Mari plazan. Hilaren 7rako eman behar da izena: 943 79 64 63, 943 76 80 22 edo [infoturismo@deba-goiena.eus](mailto:infoturismo@deba-goiena.eus).

### Dantza jai berezia hilaren 9an Escamot Catala taldearekin

Zortzigarren urtez izango da Euskal Herrian Escamot Catala taldea. Ohikoa du Elgetara ere bisita egitea, eta hilaren 9rako dantza-jai berezia iragarri du Herrixa Dantzaneko Patxi Monterok. Saioa 19:00etan hasiko da. Eko taloak dastatzeko aukera ere izango da. Dantzaldia, afaltzeko tartea eta dantzaldi osteko dantza elkartrukea.



DEBAGOIENENKO



# OSASUN ZERBITZUAK



## DENTISTAK

### ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

### GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosari J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea  
943 79 20 18 / 620 12 48 43

## DIETETIKA

### BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68  
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

## NEUROLOGIA

### AGUSTIN SAGASTA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3  
943 79 44 22

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.  
943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g  
943 76 07 84

## PSIKOLOGOAK

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## PSIKIATRIA

### IÑAKI MADARIAGA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

## AGINTALDI AMAIERAKO ELKARRIZKETAK

**Maidar Arregi** ANTZUOLA

2019-2023ko agintaldia bukatzeaz du Beñardo Kortabarriak. Ezohiko egoerei aurre egitea lortuta, balorazio positiboa egin du.

**Agintaldiaren zein balorazio egiten duzu?**

Lan txukuna egin dugula iruditzen zait; gainera, kontuan hartu behar da pandemian zein baldintza izan ditugun. Izan ere, egoera horrek behartu gintuen Udalaren eguneroko martxan gure zerbitzuetan aldaketa asko egitera. Bestetik, Gobernu Taldean elkar laguntzeko eta elkartzeko –ez fisikoki– dinamika izan dugu. Baina ez da berdina fisikoki talde giroan sortzen den talde-lanaren emaitza. Hori dena kontuan izanda, agintaldi txukuna egin dugula uste dugu, eta ekonomikoki osasuntsu dago Udala. Geldirik zeudenean herriko elkarteekin lanean ere egon gara eta berriro guztiak daude martxan; hori da garrantzitsua. Bestelako eragileekin eta enprekin ere lortu ditugu akordioak; garbi esanda, akordio horiei esker iritsi da dirua Udalera zenbait gauza azkarrago egin ahal izateko.

**Helburuak beteta, beraz.**

Bai; gure programa eskuetan hartuta, gure esku ez dauden bi gauza soilik geratu dira egin gabe: bide berdea Urretxuraino luzatzea eta Basaldeko oinezko bidea egitea. Basalderako pasabidea, ordea, Ura Agentziarekin berba egin eta saiaturako gara egiten. Bestetik, Bergararainoko bidegorri zatia egitea ere falta da, baina ur-kolektorearekin dago lotuta. Azken zatiaren proiektua idatzita dago, eta Aldundiaren eta Urak Agentziaren arteko hitzarmena prest dago sinatzeko. Hori horrela, baliteke datorren urtean egitea. Jaurregiko tunela erori zela, berriz, 3 urte beteko dira abenduaren 13an eta lanak ez dituzte hasi.

**Zein proiektu egin dira?**

Esanguratsuenen artean, azpimarratu behar da HAPO martxan dagoela, eta orain, herritarrekin batzeko fasea etorriko da, nolako Antzuola gura den erabakitzeke. Bestetik, jolasguneak, Olarango obra, eskola zaharreko teilatua, rokodromoa, gazte txokoa, egurrezko arrapala, Eztalako argiteria, gaztetxea martxan jartzea sustatzea, inklusioaren aldeko elkarlana

# "Antzuolako baliabideekin sortu nahi dugu gure energia"

**BEÑARDO KORTABARRIA** ANTZUOLAKO ALKATEA

Bigarren agintaldia betetzear du, eta Udal Gobernuak egindako lanen balorazioa egin du Beñardo Kortabarriak. Ez da 2023ko udal hauteskundeetara aurkeztuko



Beñardo Kortabarria, Antzuolako alkatea. MAIDAR ARREGI

erretiratuekin... eta beste ere egin dira agintaldian.

**Oposizioarekin zelako harremana izan duzu?**

Harremana zuzena izan da, baina oposizio-lana egin daiteke ekarpenak eginda edo ez. Kasu honetan, pertsona bakarrak parte hartu du. Kanpoko jendearekin osatutako zerrendak, *parakaidisten* eredua, edozein herrirendako desastre hutsa dira. Herriarendako ekarpenik egin gabe eta kritika hutsalak eginez.

**Energia berriztagarrien aldeko apustua egin duzue.**

Antzuola 2018-2030 Plan Estrategikoan, energia berriztagarrien aldeko hautua egin genuen, orain dagoen olatuari aurreratuta. Hala, iaz, plaka fotovoltaikoak jarri genituen pilotalekuko eta eskolako teilatuetan. Urtebeteren ostean, zorionez, Iberdrolak egin du konexioa eta martxan dago instalazioa. Ildo beretik, kaleko argiteria osoa aldatuko dugu, eta LEDa jarri. Argi izan dugu herriak dituen baliabideak aprobetxatu behar ditugula. Hala,

**"EGOERA ZIURGABEA DA; DATORREN UDAL TALDEARI KREDITU GLOBALA BETETA UTZIKO DIOGU"**

urratsak egin ditugu eta energia komunitatea sortu da. Nabarmendu behar da uraren inguruko azterketa egin dugula eta ondorio nagusia dela Antzuolak kalitatezko nahikoa ur duela iturburuan beharrak asetzeko. Egun, Urkulutik erosten da, eta, egitate horretatik abiatuta, aztertu beharko da noraino iritsi gaitzkeen guk geuk kudeatzeko dugun ur horrekin. Bestetik, autoaren gehiegizko erabilera murrizteko asmoa ere badugu; baita hondakinak gutxiago sortzeko eta hobeto kudeatzeko ere. Helburua energia kontsumoa zein hondakinena murriztea da. **Zein iritzi duzu Trekutzeko parke eolikoaz?**

Jaurlaritzak ez dauka eremuaren azterketarik eta plan-sektorialik eginda; enpresa pribatu kapitalistak horrela etorri izana ez da onargarria. Hala, enpresaren proposamena da bi dorre erraldoi jartzea. Lan horiek egiteko mendia sunsituko dute eta porlanez josi. Horrek ze onura dakar? Aurreproiektua bidaliko digute eta alegazioak idatziko ditugu; bien bitartean, Jaurlaritzari bidali diogu ingurumen ikuspegitik proiektu batek zer hartu beharko lukeen kontuan. **2023ko aurrekontua nolako izan-go da?**

Egoera ziurgabea da. Hauteskundeak datoz, eta talde berri bat. Horregatik, datorrenari kreditu globala nahiko beteaz utziko diogu, ziurgabetasun horri libre aurre egin diezaion. Gerakinean 1.200.000 euro inguru geratuko dira –600.000, Errekalderako–. Inbertsioen artean, HAPOri garrantzia emango diogu, herritarrek parte har dezaten; eskolako sukaldearen proiektua sustatuko dugu; eguneko zentroari bultzada emango diogu; pilotalekuak 125 urte beteko ditu, eta aldagelak berri-tuko ditugu –txapelketako partiduak ekartzea da asmoa–; eta euskararen erabilera bultzatzeko aparteko diru partida egongo da, sustapen ekintzetarako, besteak beste.

**"HAPO MARTXAN DAGO; ORAIN, NOLAKO ANTZUOLA NAHI DEN ERABAKIKO DUTE HERRITARREK"**



Azaroko osoko bilkuran, bozketaren une bat. M.A.

# Euskara eta energia berriztagarriak berbagai

Martitzenean egin zen azaroko ohiko osoko bilkura. Euskararen Eguna eta euskara izan ziren berbagai nagusiak, eta hainbat mozio izan zituzten aztergai. Bestetik, Ekiola proiektua eta energia komunitateak izan zituzten eztabaidagai, besteak beste

## Maidar Arregi ANTZUOLA

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE) arautzeko ordenantzen hasierako onespina onartuta geratu da, EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin; alderdi sozialistak aurka bozkatu du. "Ordenantza horren bidez, Antzuolan egingo den edozein ekin-tza nahiz planetan euskarak izan dezakeen inpaktuaren ebaluazioa egingo da. Inpaktua minimizatzea eta hobekuntza-urratsak egitea litzateke helburua. Horrek jarraibide bat dauka. Lehenengo, proiektuaren irismena aztertzen da eta ELE martxan jarriko ote den adostuko da. Hau da, plan edo proiektu bati hizkuntza inpaktuaren azterlana egin edo ez erabakiko duen urratsa da. Bilakaera-indizeak zehaztuko du hizkuntza inpaktuaren azterlana eta txostena egin behar den edo ez. Bilakaera-indizea positiboa bada, ez da txostenik egin behar", azaldu zuen Mikel Bargielak, Euskara zinegotziak.

ELE batzordea Euskara zinegotziak, Euskara teknikariak, ebaluatzen den egitasmoaren teknikariak eta Uemako teknikari batek osatuko dute.

Bestetik, Euskararen Egunaren harira, Uemak bere udalerrietan aurkeztutako mozioa aurkeztu eta onartu du EH Bilduk EAJren aldeko botoekin; alderdi sozialistak aurka bozkatu du. "Euskararen eremua, egun, 300.000 pertsonak osatzen dute, euskararen berezko muga geografikoa osatuta. Bada momentua bul-tzada eta saltoa ekarriko duten ekimenak hartzeko", esan du Beñardo Kortabarriak.

EAJk Euskararen Egunaren baitan aurkeztutako mozioari, ordea, aurkako botoa eman dio

## EAJ-REN EKIOLAREN MOZIOA ONARTU EZ ARREN, UDAL GOBERNUAK AZTERTU EGINGO DUELA DIO

EH Bilduk: "EAJren mozioa motz geratzen zaigu, egungo egoera nolakoa den ikusita; bada marko berri bat eta akordioak bilatzeko garaia da, eta Uemaren adierazpenak hori aldarrikatzen du". Aitor Urrutia jeltzaleak gaineratu du mozio batek ez duela bestea kentzen eta aurreko legeak 40 urteko "ibilbide positiboa" duela.

## Ekiola egitasmoa

Ekiola proiektuaren EAJren proposamena atzera bota du Udal Gobernuak. "Etorri den moduan ezin dugu baiezkorik eman: batetik, Antzuolak ez duelako behar beste biztanle, terreno eta tamainarik; bestetik, proposamenean ez delako proiektua zehatz azaltzen. Mozioa atzera bota arren, gaia aztertzen hasteko konpromisoa hartzen dugu Elgeta, Bergara eta Oñatiko udalekin". Hain zuzen ere, mozioak "horixe eskatzen duela, hitz egiten hastea", gaineratu du Basilio Ormazabalak.

## Hainbat ekintzarekin bukatuko dira Arrolaren ospakizunak

Arrolak 50. urteurrenaren harira hainbat jarduera antolatu ditu urteari amaiera borobila emateko

### M.A. ANTZUOLA


Abenduaren 15ean, *Mendi elkar-teen gaurko egoeraz eta etorkizunaz* mintzatuko dira Mendi Federazioak eta bailarako mendi ordezkariak antolatutako mahai-inguruan. Torresoroan izango da, 18:30ean. Ondoren, 20:00etan, *Mendian gora* erakusketa irekiko dute Oларanen. Euskal Herriko mendizaletasunaren historiako giltzarri nagusiak gogoraraztea da erakusketaren xedea.

Gainera, Arrolak egindako ekintzen argazki eta bideoez

osatutako ikus-entzunezkoa eskainiko dute –haren 50 urteei errebaso egiten dio–. Asteburu osoan egongo da ikusgai eta astean zehar bisitatzeko aukera ere egongo da, eskaeren arabera.

Abenduaren 17rako, Aitzurira irteera antolatu dute –*arrolamt@gmail.com* helbidera idatzi behar da joateko–. Eta San Esteban egunean, herritarrek Arrolaren logotipo berria hautatu ahal izango dute. Hiru aukeraren artean bozkatuena izango da aurrerantzean erabiliko dena.

## GORA ETA BEHERA



## Pipa-jana udaletxeko kontzejupean



Herritar batek salatu du udaletxeko arkupean pipa-jana egin eta pipa-azalak lurrian botata uzten dituztela. Behin eta berriro errepikatzen den jarrera dela ere badio; bereziki, eguraldi txarra, euria, egiten duenean azaltzen direla pipa-azalak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? [berriak@goiena.eus](mailto:berriak@goiena.eus) edo ☎ 688 69 00 07.

## OHARRAK

### Kontzertuak gaztetxean

Independentzia Eguna ospatuko dute abenduaren 3an. Karropoteoa, Moxetik hasita, 20:00etan; 22:30ean, kontzertuak: DBQ, Motz eta DJ Kalimonstruo.

### Motor erakustaldia


Abenduaren 1ean herritarren motorrak izango dira ikusgai, plazan, 11:30etik 13:30era.

### San Esteban krosa

Abenduaren 26an egingo da; umeez izena emateko azken eguna hilaren 7an dute. Gainontzekoak abenduaren 15a dute azken eguna –udaletxean edo liburutegian–.

## Udal Gobernuak proposatutako etorkizuneko kirol azpiegiturak

ITURRIA: OÑATIKO UDALA



# Futbol zelaia Betik-en eta atletismo pista Urrutxun, Gobernuaren nahiak

Etorkizun batean egin daitezkeen futbol zelai berrirako eta atletismo pistarako proiektuak aurkeztu ditu astean Udal Gobernuak. Futbol zelaia epe luzerako ikusten du, baina datorren urtean hasi gura du atletismo pistarekin

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI  
Etorkizuneko kirol azpiegitura biren proiektuak aurkeztu ditu astean Udal Gobernuak. Proposatu du atletismo pista Urrutxun egitea –barruan beste kirol bazuetarako ekipamendua jartzeko aukerarekin– eta futbol zelai berria Betik enpresa egon den tokian, Azkoagain ondoan –egun-goak erabilgarri izaten jarraituko luke–. Autobusendako zein autoendako aparkalekua izango luke, hirugarren eta Bigarren B mailan jokatzeko moduko futbol zelaia, entrenamendu-gune bat eta eraikin bat. Zelai berritik Azkoagainera pasabide bat egingo litzateke errepide gainetik, aldagela berrietan aldatu eta oinez Azkoagainera heltzeko. Horri, egun Lezesarri auzora egiten ari diren irisgarritasun proiektua eta ondoko bidegurutzean aurreikusita ze-

goen biribilgunea egitea batzen zaizkio.

### Hiru guneren artean

Futbol zelai berriko proiektu egiteko, EAJk proposatuta eta EH Bilduk ondo ikusita, 15.000 euro zituen gordeta aurtengo aurrekontuetan Oñatiko Udalak. Girder enpresak egin du proiektua, eta, lursailak beharko litzatekeen ezaugarriak kontuan hartuta, hamar gune proposatu ditu. Horietatik hiruren alde egin dute eta hiru horiek aztertu. Hiruren artean, Betik enpresa dagoen espazioaren alde egin

## HAPo-K KIROL EREMU MODUAN JASOKO DU BETIK ENPRESA EGONDAKO ESPAZIOA

du Udal Gobernuak, aukerak eta kostuaren gutxieneko zenbatekoa kalkulatu.

Proiektua landu duen enpresak Betik ondoko zuhaitz-gunea aipatu zuen leku posibletzat hasieran, baina, eraikinean industria aktibitatek ez dagoenez –biltegi moduan erabiltzen da egun eraikina–, gune berde horretatik eraikitako espaziora eroan dute proiektua; 6.815 metro karratuko azalera du. Aztertutako beste bi guneen artean, San Martin ondokoa baztertu zuen lehenengo Udal Gobernuak, "beste erabile-ra batzuetarako izan daitekeela espazio hori". Bestea, Berezaokoa, EAJk kirolgunerako proposatutakoa, "interes bereziko zat dago jasota HAPo lehen sektorearendako", eta horrela jarraitzea gura du Gobernu Taldeak. Proiektua bera, baina, irudikatu du eta zenbakiak atera

ere bai: zortzi milioi pasa euroko kostua izango luke –8.341.422 – Azkoagain ondokoak eta hamalau eta erdikoa –14.542.068 – Berezaokoak, gutxienez, bietan gehitu beharko lirakeelako lurren desjabetze gastuak, exekuzio proiektuak eta zuzendaritza lanak; Berezaokoa, baita pasabidea egitea ere, proiektua egin duen enpresak ez duelako aholkatzen sarrera industrialdetik egitea. Korriueneko guneak 33.604 metro karratuko azalera izango luke: bi futbol zelai, bi entrenamendu-gune, eraikin bat eta aparkalekua.

### Atletismo pista

Atletismo pista Urrutxun jasotzeko proiektua Chocarrok egin du. 400 metroko luzerako lau tartan-pista eta oinez eta patinakin ibiltzeko beste bana izango litzuzke –txapelketetarako zortzi pista behar dira, baina, horrelakoa Arrasaten egonda, Udal Gobernuak ez du horren beharrik ikusten Oñatin–, eta baita aldagelak ere. Futbolerako zelaia ez, baina barruan bestelako erabilpen batzuk izango litzuzke atletismo pista horrek; bizikletan ikasteko eta hasiberriendako pista, esaterako, patin

## ATLETISMO PISTA EPE MOTZERAKO IZAN DAITEKE, BAINA EREMU OSOA ZIGILATU EGIN BEHAR DA

ganean ibiltzeko ere balioko lukeena, *bike park* izenez ezagutzen den zirkuitua. Bi sarrera izango litzuzke: garbigune gaineko aparkalekutik bat eta egungo eskailerak igota bestea. Horren kostua ia hiru milioi eurokoa litzateke –2.743.525 euro– eta asmoa da faseka egitea. Lehendabiziko fasean pista –1.265.263,80 euro– egingo litzateke, bigarrenean barruko ekipamendua eta hirugarrenean ingurua txukundu.

### Epeak, zehazteko

Xabier Igartuak, Izaro Elorzak eta Maite Antonek eman zituzten bi proiektuen xehetasunak eta Aloña Mendirekin eta Betikekin aurrez berba egin dutela adierazi zuten; gaineratu zuten kirol elkarteak Betiken espazioaren alde egin duela.

Bi proiektuen artean, atletismo pista lehenago egitea aurreikusuten du Udal Gobernuak, epe motzagoan egiteko moduan –futbol zelai berria epe luzerako; ez, behintzat, hurrengo agintaldian, baina HAPo kirol eremu moduan jasoko dute–. Urrutxurako, baina, inguru osoa zigilatuta egin behar dute. Pistako tokiko zigilatze-lanak eginda daude, baina ingurukoak ez, eta eremu osoa zigilatuta ezin dela hor ezer eraiki dio Ingurumen Sailak, eta, hortaz, bigarren faseko lanak egingo dituzte lehendabizi. Bi milioi euroko aurrekontua dute lan horiek eta asmoa da datorren urtean egitea.

# Orkestra ere badu Ganbara Faktoriak

Aequus Ensemble du izena talde berriak, eta, oraingoz, hari-instrumentuek osatzen badute ere, helburua da Oñatin orkestra sinfoniko bat sortzea. Domeka iluntzean du lehen emanaldia taldeak, Bidaurretako elizan, eta sarrerak salgai daude

## Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Aequus Ensemble taldea da Ganbara Faktoriaren kide berria. Orkestra proiektua da. Hari-instrumentuak jotzen dituen orkestra, oraingoz, baina urtebete barrua haize-instrumentuak sartzea da asmoa, taldea orkestra sinfoniko bihurtzeko.

## Lau oñatiar taldean

Ganbarako abesbatzek kantatu izan dute orkestra batek lagunduta, baina orkestra hori egonkortu egin gura izan dute orain, horren beharra ikusita. Guztira, 26 pertsonak osatutakoa da, hari-instrumentuak jotzen dituzte eta Gipuzkoako eta Arabako musikariak dira. Eta tartean daude lau oñatiar: zuzendaria bera, Aitor Biain, eta hiru anai-arreba: Sara, Luis eta Maialen Txintxurreta. Hilean behin elkartzen dira elkarrekin entseatzeko. "Hau, baina, hasiera da. Gure asmoa da herriko musika eskolarekin lan egitea eta etorkizun batean

musikari oñatiarrek orkestran jotzeko aukera izatea", azaldu du Biain zuzendariak. Gaineratu du datorren udaberriaren kontzertu pedagogiko bat egiteko asmoa dutela, musika eskolako ikasle gaztetxoek orkestraren mundua barrutik ezagut dezaten.

Oñatin orkestra sinfoniko bat egotea da proiektu horren helburua eta horrek duen garrantzia azpimarratu gura izan du Aitor Biain zuzendariak: "Egun, hiriburuera joaten gara orkestra sinfonikoen mailako kontzertuak entzuteratzen, eta gero, Oñatin bertan eskainiko ditugu. Kulturari beste bultzada bat ematen dio horrek eta uste dut

## GIPUZKOAKO ETA ARABAKO 26 MUSIKARIK OSATZEN DUTE TALDEA; LAU OÑATIAR DAUDE

oso garrantzitsua dela hori herriarendako".

## Domekan lehendabizikoa

Domekan, abenduak 4, egingo du lehen emanaldia Aequus Ensemble taldeak. "Mozarten eta Mendelssohnen piezak joko ditugu lehen zatian, adibidez. Bigarren zatia ilunagoa izango da eta horrek emango dio izena emanaldi honi: *Ilunabarra*", azaldu du Amaia Garro bakarlari arrasatearrak. Garai askotariko doinuak joko dituzte: 50 minutuan, musika klasikotik garaikiderainoko saltoa egingo dute.

Emanaldia Bidaurretako elizan da, 19:00etan, eta sarrerak Txokolatexan daude, bost eurotan. *Streaming* bidez eta Goiena telebistan ere emango dute.

Oñatin ez ezik kanpoan ere kontzertuak egitea da talde berri horren asmoa, eta baita, nola ez, herriko abesbatzekin batera ere. Datorren urtarrilaren 8an, adibidez, Hots abesbatzarekin batera egingo du emanaldia.



Hariz-orkestra osatzen duten musikariak Santa Ana antzokiaren aurrean. GANBARA FAKTORIA

## EUSKARALDIA

# Jolasak, musika eta txokolata gaur, euskararen izenean

Euskararen Egunaren harira, adierazpen instituzional bateratua onartu du udalbatzak azoroko osoko bilkuran

## O.E.G. OÑATI

Gaur, egubakoitza, bukatzen da aurtengo Euskaraldia eta bihar da Euskararen Eguna; hala, ekintza bat baino gehiago antolatuko dituzte biak batera ospatzeko. 17:00etan, adibidez, Euskaraldiarekin lotutako jolasak egingo dituzte, gaztelekuan, eta, 20:00etan, jakiak prestatuko dituzte gaztetxean. Ondoren, kontzertuak egongo dira: Nizuri Tazuneuri eta Etxepe. Bitartean, 18:00etan, txokolata eta bizko-

txoa banatuko dituzte plazan, eta euskal kantuak abesteko gonbidapena egin.

Euskararen Egunaren harira, erronka jaso du udalbatzaren adierazpen instituzional bateratuak: "Udalerrri euskaldunetan euskarari eusteko egiturazko erabaki ausartak behar ditugu, elebitasun orekatua gainditu eta oraindik ere hauskorrak diren udalerrri euskaldunetan euskarak bidea eta arnasa zabaltzen segi dezan".

## Artixak herriko elizaraikinak jaso ditu liburu batean

Artixa kultur elkarteak liburu baten jaso ditu herriko elizak, ermitak, komentuak eta santutxoak. 74 artikulua daude, eta 452 argazki, horietatik asko berriak, baina baita artxiiboetan aurkitutakoak ere. *Breve historia de las iglesias, conventos, ermitas, 'santuxus' y cruceros de Oñati* du izena liburuak. Ohiko tokietan dago salgai, 20 eurotan.



Liburuaren azala. O.E.G.

## NIRE USTEZ



AINHOA SEMPER

## Luma-arin

Euskararen munduan Euskaraldia eta Irulegiko Eskua batu zaizkigu egun hauetan. Euskaraldiak euskarari ematen dion bultzadari Irulegiko izkribuaren inpaktua gehitu zaio. Askotan, euskararen mundua ahozkoarekin lotzen dugu; normala da. Ahozko euskara era naturalean ailegatu zaigu; belaunaldiz belaunaldi sortutako transmisioaren azken katebegi gara gu. Euskara idatziak, aldiz, oso presentzia urria izan du historian zehar; artxibo eta liburutegietan egunero-egunero konprobatzen dugu hori. Arrazoi asko izan dira horren atzetik: hezkuntzaren barruan zuen presentzia mugatuak, balio legalik ezak... mugatu dute balizko garapen bat. Gaur egun, arrazoi horiek ez idazteko.

Hizkuntzak, ahozkoaz gain, idatzitakoa ere behar du. Ez bakarrik hizkuntzarenatik; memoriak eta historiak ere idatzizkoa behar dute. Irulegiko Eskuak erakusten digu aspaldi-aspalditik euskararen eremua idatziarena ere badela. Egin dezagun zerbait gaur egun ere: *ahobizi* eta *belarriprest* zaren bezala, luma-arin behar zaitugu.

**Xabier Urzelai Atxa** ARRASATE

Maratoiko distantzia egin duen lehenengo saiakeran, Endika Donnay arrasatearrak marka oso ona egitea lortu du (2.28.56) eta Gipuzkoako txapeldun izan da. Aste barruan GOIENAREkin egon da, azken lau hilabeteotan bizi izandakoak kontatzeko, eta, elkarriketa honetako erretra-tuetarako korrika apur bat egiten saiatu denean, gorputzak garbi adierazi dio maratoia egin berri duela. "80 urteko pertsona baten moduan nago", dio, barrez. **Espero zenuen halako lasterketa egitea?**

Ez, bereziki nire lehenengo maratoia izan delako, eta ez nuen espero Gipuzkoako txapeldun izatea, ezta marka hori egitea ere. Egia da ondo prestatu dudala maratoia, lau hilabete erabili ditut horretarako, nutrizionistekin izan naiz lanean, zorrotz jarraitu ditut entrenatzaileak agindutakoak... Eta zaindu egin naiz.

**Noiz sartu zitzaizun maratoia egiteko harra?**

Urte hasieran erabaki nuen maratoi distantzia probatu gura nuela, eta entrenatzaileak animatu egin ninduen. Eta uztailean hasi ginen helburu horretara begira lanean.

**Lasterketa egunean dena joan zen ondo...**

Bai, eta hori du maratoiak, distantzia luzea dela eta edozein detailek pikutara bidali deza-keela lasterketa. Alegia, 10 kilometroko lasterketa batean badakizu helmugara iritsiko zarela. Akaso, ez duzu nahi moduko lasterketa egingo, baina amaitu egingo duzu. Maratoian, ordea... Hala, lasterketa aurretik, aste barruan emazteari esaten nion oso ondo ikusten nuela neure burua, eta aitarekin ere sarritan egin nuen berba horri buruz. Aita arduratuta zegoen, distantzia luzea delako, baina lasai egoteko esaten nion, ikusten nuelako ze entrenamendu egiten ari nintzen eta sentsazio oso onekin nenbilerako. Oso ondo prestatuta joan nintzen.

**Lasterketara ideiak garbi eraman zenituen...**

Oso garbi. Entrenatzaileak garbi utzi zidan hasieratik nire erritmoa hartu behar nuela, eta bi segundo ere ezin nintzela hortik pasatu. Eta hori lasterketa hasieran ez da batere erraza, kosta egiten da eta horrek kontzentratuta joatea eskatzen

# "Maratoian emozionalki gauza berriak bizi izan ditut"

**ENDIKA DONNAY** GOIERRI GARAIA TALDEKO ATLETA

**ATLETISMOA** Donostiako Maratoian 2.28.56ko marka eginda, arrasatearra Gipuzkoako txapeldun izan da. Distantzia berrian egindako estreinaldia ezin hobea izan da



Endika Donnay, aste barruan, Gernika oinezkoen zumardian, Arrasaten. X.U.

du. Gero, azken zazpi kilometroetan ondo banengoen, hor bai, hor libre nintzen ahal bezain azkar korrika egiteko, baina ordura arte ez.

**Ezaguna da maratoian 30. kilometroaren bueltan egoten den mugarrira, une gogorra izaten dela hori. Izan zenuen halako momentu kritikorik?**

Bada, gogoan dut 24. kilometroan harrirituta nindoala, oso sentsazio onak nituelako; ederto nindoan. Handik kilometro gutxira, baina, 32. kilometro inguruan giharretako arazoekin hasi nintzen, koadrizepsean, bikietan... Orpoan ere mina hasi zitzaidan, azazkalean zauria egin nuen... Azazkalean! Inoiz ez dut azazkalean zauririk egin... Eta orduan pentsatu nuen momentu hark izan behar zuela maratoiko *pareta* edo mugarri ezagun hori.

**Eta momentu hartan, zer?**

Bueno, ikusten nuen erritmoari eusteko kapaz nintzela, ez nuela beherakada fisikorik... eta aurrera egitea erabakitzen duzu. Hor zeure burua engainatu behar duzu apur bat, eta gutxi geratzen dela pentsatu. Azken kilometro horietan ere haizeak gogor jotzen

**"ANTXINTXIKA KROSEAN EZ EGOTEAK PENA EMAN ZIDAN; MARATOIA NUEN BEGIZ JOTA"**

zuen, baina gogoan dut gozatu egin nuela, disfrutatzen ari nintzela; kontziente nintzen fisikoki apur bat ukituta nengoela, baina mentalki oso ondo nindoan. **Ohikoa da zu Antxintxika krosean ikustea, Behobia-Donostian... Aurten ez zaitugu ikusi; proba horien hutsunea sumatu duzu?**

Behobia-Donostia hamar urtez egin dut, eta pandemia aurretik egin nuen azkena. Ez, lasterketa horren hutsunea ez dut sumatu, baina Antxintxika kroserena bai. Gainera, orain Bergaran bizi naiz eta lasterketa hori herrian bertan amaitzen da. Baina maratoian kontzentratzeko esan zidan entrenatzaileak eta horren aldeko apustua egin nuen.

**Etorriko dira maratoi gehiago?**

Bai, seguru; harra sartu zait, esango nuke harrapatu egin nauela maratoia distantziak. Ondo prestatzeko denbora gehiago behar duzu, baina 10 kilometroko lasterketak prestatzen ari zarenean entrenamenduak gogorragoak dira, serieak topera egin behar dituzulako. Maratoiko entrenamenduak, berriz, lasaiagoak dira. Baina maratoia emozionalki oso lasterketa berezia da. Lasterketa aurretik negar malkotan nintzen, eta inoiz ez zait halakorik pasa, beste lasterketetan ez dut sentsazio hori izan. Etxekoak etorri ziren ni animatzera: emaztea, gurasoak... Badakizu lau hila-betean zenbat gauza utzi dituzun alde batera, ze esfortzu egin duzun... Horiek guztiak etorri zitzaizkidan burura eta emozionatu egin nintzen.

**Denbora tarte honetan zer igarri duzu faltan?**

Bizitza soziala egitea, kalera irteten eta lagunekin hiru garagardo hartzea. Hori egiten bannuen, hurrengo egunean ezin nintzen ondo entrenatu.

**Zenbat denbora behar da maratoi batetik errekupeatzeko?**

Ez dakit, baina orain momentuan 80 urteko gizon baten moduan nago [Barreak]. Fisikoki eta mentalki errekupeatzeko esango nuke hilabete behar dela.

**Ze distantziatara lasterketak dituzu gogokoan?**

Ez dakit zer esan... 10 kilometroko lasterketak topera egiten dituzu, eta hori gustatzen zait. Baina maratoiak oso zapoza ona utzi dit. Valentziako maratoiak oso zirkuitu azkarra du; probatu egin nahiko nuke.

# Errebantxa hartu edo ez, hori dago jokoan derbian

**ARETO FUTBOLA** Bihar, zapatua, derbia jokatuko dute Arrasateko eta Eskoriatzako taldeek, 18:00etan, Musakolan. lazko denboraldi amaierako porrota ez dute ahaztu arrasatearrek eta arantza ateratzeko gogoz daude. Puntu kopuru berbera dute

**Xabier Urzelai Atxa** ARRASATE


Mondratek eta Eskoriatzak izako liga amaierako derbi erakarria ezker ez dute elkarren kontra jokatu. Orduan, ekainaren 4an Musakolan jokatutako partiduan, Bigarren B Mailara igotzeko *play-off*-erako sailkatzea zuten jokoan, eta, infartuzko partiduan, eskoriatzarrak izan ziren hobeak (0-2). Hala, bi taldeek sekulako denboraldia egin bazuten ere, eskoriatzarrek jarri ahal izan zioten ginga, eta iguera fasea jokatu –Afantxoren kontra 6-3 galdu zuten *play-off*-ean–.

**Urteko helburuetako bat**

Bada, Arrasatekoek ez dute ahaztu azken derbiko emaitza txarra, eta errebantxa gogoz daude. Sailkapenean, gainera, bi taldeak pare-parean daude, hamaseina puntu batuta bosgarren eta seigarren postuan. Aretxabaletatik etorritako Arkaitz Ribera entrenatzailearen aginduetara arrasatearrek bikain hasi zuten liga, baina azken jardunaldietan beherakada izan dute. Kontrara, Mikel Alkaiden mutilei gehiago kosta zitzaion liga ondo hastea; hala ere, dinamika onean dira. Bi entrenatzaileek bat egiten dute, baina, topikoan: "Derbietan aurreko guztia berdin da". Derbirako gogoz daude bi taldeak.




Ekainaren 4an Musakolan jokatutako azken derbiaren irudi bat. GOIENA



**ARKAITZ RIBERA**  
MONDRATEKO ENTRENATZAILEA

"Taldea aldaketa eta joko sistema berrira egokitzen dabil. Eskoriatza erreferentziatzeko taldea da; irabazteko gogoz gaude".



**MIKEL ALKAIDE** ESKORIATZAKO ENTRENATZAILEA

"Errebantxa gogoz egongo dira, baina guk ere partidua irabazi nahi dugu. Baja asko izan ditugu eta orain hasi gara egoera zuzentzen".

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

### FUTBOLA

GIZ. OHOR. ERREG.

**Vasconia-Mondra**

Zap. 16:30. Donostia.

**Oiartzun-Aretxabaleta**

Dom. 12:00. Oiartzun.

**Aloña Mendi-Amaikak Bat**

Dom. 16:30. Azkoagain.

**Lagun Onak-Bergara**

Dom. 17:00. Azpeitia.

EMAK. OHOR. ERREG.

**Leintz Ariz-Hernani**

Dom. 11:00. Mojategi.

**Bergara-Touring**

Dom. 16:00. Ipintza.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

**Aretxabaleta-Galdakao**

Zap. 16:30. Ibarra.

**Danok Bat-Bergara**

Zap. 18:30. Bilbo.

GOINGOEN MAILA

**Urki-Antzuola**

Zap. 17:45. Unbe.

### ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

**Mondrate-Eskoriatza**

Zap. 18:00. Musakola.

GIPUZKOAKO TXAP.

**Mondrate-Herrikide**

Zap. 16:00. Musakola.

### SASKIBALOIA

EBA

**MU-Getxo**

Dom. 18:30. Iturripe.

GIZ. GIP. TXAPELKETA

**Mekalki Alo.-Añorga**

Zap. 18:00. Zubikoa.

EMAK. GIP. TXAPELK.

**Ganboa-Goizper BKE**

Zap. 18:00. Zubikoa.

### ESKUBALOIA

GIZON. EUSKA. TXAP.

**Fagor I. Aloña-Usturibil**

Zapatua. 18:00. Zubikoa.

EMAK. EUSKAD. TXAP.

**Const. Ugarte-Zuazo**

Zap. 16:00. Zubikoa.

GIZ. GIPUZK. TXAP.

**Soraluce BKE-Leizaran**

Zap. 18:00. Labegarai.

**Egia-Mugarri Ingou**

Zap. 20:00. Donostia.

GIZO. GAZTE MAILA

**Ingou Arrasate-Elgoibar**

Zap. 10:00. Musakola.

EMAK. GAZTE MAILA

**Usurbil-Oñabike Aloña**

Zap. 16:45. Oiardo.

**Ereintza-Ingou Arrasate**

Zap. 16:00. Errenteria.

ERRUGBIA

GIZON. EUSKAD. TXAP.

**Kanpanzar ART-Elorrio**

Zapatua. 16:30. Mojategi.

ERRUGBI TOPAKETA

**10-12 urtez azpiko**

**topaketa.**

Dom. 10:30. Mojategi.

PILOTA

**Aretxabaletan:** Gaur,

18:30. Bost partidu.

**Bergaran:** Gaur, 18:45.

Bost partidu.

**Antzuolan:** Gaur, 19:00.

Partidu bat.

**Oñatin:** Gaur, 19:00. Lau

partidu.

**Arrasate:** Zapatua. 16:00.

Lau partidu.

Errioxaren kontra. GOIENA

Errioxaren kontra. GOIENA

Errioxaren kontra. GOIENA

Errioxaren kontra. GOIENA

Errioxaren kontra. GOIENA

## FUTBOLA Amaikak Bat taldearen bisita, etzi, Azkoagainen

Sailkapenaren erdian kontrario zuzenak diren Aloña Mendiren (17 puntu) eta Amaikak Baten (16) arteko norgehiagoka izango da domekan Azkoagainen (16:30). Puntu bakarra dago bi taldeen artean. Bada, oñatiarrak dira etxean jokatuko duten bakarrak, bailarako gainontzeko taldeek kanpoan dituzte-eta hitzorduak –ohorezko erregional mailan–.



Lagun Onaken kontra. GOIENA



## Goienakide izatea **%30 merkeago**

Goiena Komunikazio Taldeko hedabideek lehenetsuneko mezenasgo jarduera izendapena jaso dugu aurtun Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldetik.

Goienakide zaren hori, zerga onurak ezarriko zaizkizu 2022. urtean Goienari egin diotuz ekarpenarengatik. Horrenbestez, zure kuota %30 merkatuko zaizu errenta aitortpena egiterakoan.





**Zure datuak Aldundira bidaltzeko onespina emateko, sartu hemen:**

<https://goiena.eus/datuenbabesa>

**Edo del egiguzu: 943 25 05 05**

**Epe-muga: 2022ko abenduaren 11n.**



**Okm: batzen gaituen distantzia**

## Debagoieneko sortzaileen uzta berria eskuragarri



**Itsasoa da bide bakarra**

**Ines Osinaga**

Elkar argitaletxea



**Atzamarra**

**Asun Agiriano eta Marina Garcia**

Elkar argitaletxea



**Oasia**

**Assata**

Autoekoiztua



**Erregaia**

**Keia**

Autoekoiztua



**(Titulu barik)**

**Neomak**

Airaka Musika



**Paradisua**

**M. Berasategi eta J.M. Berasategi**

Elkar argitaletxea



**Luaren itzala**

**John Andueza**

Elkar argitaletxea



**Aireportuan**

**Potx eta Lotx**

Autoekoiztua



**Geure mitologia**

**Urko Egaña eta Leire Derteano**


Algaraz Ikuskizun Elkarte



**Inoiz baino argiago**

**Des-kontrol**

Mauka musikagintza



**Hygge**

**Aitor Requeiro**

Autoekoiztua



**Borghetti Crew (disco partekatua)**

**Brigade Loco**

Autoekoiztua



**(Titulu barik)**

**Harria**

Autoekoiztua



**Zazpi giltzak**

**Marisol Andrade**

Circulo Rojo

**Aitziber Aranburuzabala** ARRASATE 930 kultura nobedade eta 250 kultura ekitaldi baino gehiago egongo dira datorren eguaztean abiatu eta domeka bitartean egingo duten Durangoko Azokan. *EztanDA!* da aurtengoak duen leloa eta Ruben Ramos diseinatzaileak egin du 57. edizioko irudia; sorkuntzaren eta jaiaren eztanda irudikatu du, "big bang" baten moduan zabalduko den burrunba. "Azken bi urteetako testuinguru konplikatuari aurre egin ostean, euskal kultura bor-bor izango da edizio honetan. Euskal kulturaren plazari bizitza emateko momentua heldu da oraingoan, haren gune eta espazio guztietan", azaldu du Geredia ga elkarteko koordinatzaile Beñat Gaztelurrutiak.

Aurten argitaratutako produktak zein zaharragoak era fisikoan erosteko aukeraz gainera, online dendan ere eskuragarri egongo dira abenduaren 7tik 10era bitartean; *Durangokoazoka.eus* webgunean kontsultatu daiteke katalogoa.

# Durangoko Azoka, osotasunean oraingoan, 'eztanDA!' egiteko gertu

Abenduaren 7an hasi eta 11ra bitartean kulturaren plaza eta euskaltzale askoren topagune bilakatuko dira Landako Gunea eta Durangoko beste hainbat txoko; azkeneko urteetan ez moduan, bada, ohiko azokaren itxura izango du aurtengoak

### 'Gazte eztanDA!', estreinakoz

Landako Guneko ateak zabal-tzearekin bat, ikasleak izango dira Azokan protagonista; Euskal Herri osotik joango diren 1.500 ikaslerentzako tailerrak antolatu dituzte eta, estreinakoz, hezitzaileentzat eskaintza ere egongo da aurtentzen.

Baina, aurreko aldiekin alderatuz, bada berritasunik; izan ere, abenduaren 9an, *Gazte eztanDA!* ospatuko dute, gazteei

begirako eguna. Hamaika kultur ekitaldi egongo dira; horien artean, gazte bazkaria, ginkana, Euskara Abentura ekimenak eta, egitaraua borobiltzeko, 19:00etan hasita, ElektroPottote eta OstiKda elektrotzarangak izango dira.

### Eskualdeko musika-uzta

141 musika ekoizpen berri izango dira eskuragarri; horien artean, Debagoieneko musikariek

sortutakoak. Uzta zabala izango da. Besteak beste, asteotan argitaratutakoak izango dira: Ines Osinaga arrasatearraren bakar-kako estreinako lana, *Itsasoa da bide bakarra* izenekoa (Ikus elkarriketa), Elkar argitaletxearen saltokian izango da eskuragarri eta Plateruena antzokian aurkeztuko du Osinagak abenduaren 8an, 12:30ean hasita. Horrez gain, Bergarako Harria taldearen lehen diskoa eta

Arrasateko Assataren bigarre-na ere, *Oasia*, Landako Gunean izango dira. "*Dantzatu, mada-rikatuok!* (2019) lanean abiatu-tako dantzarako musikan are gehiago sakontzen du zortzi kantu dituen bildumak, jendarte bezala bizi dugun garaia-ri eta dantzan jartzen gaituen sistemari oraindik eta zorrotzago begiratzen dionak", azaldu dute Assata taldeko kideek. Musikazuzenean standean izango da eskuragarri eta Plateruena antzokian erakutsiko dute abenduaren 10ean, 12:10etik 12:40ra bitartean egingo duten emanaldian. Aipatutakoez gain, Arrasateko hiru kide dituen Neomak zazpikotearen estreinako lana ere nobedadeen zerrrendan dago; Mauka eta Airaka musikagintzaren saltokian izango da eta zuzenean ikusteko aukera ere bai, Plateruena, abenduaren 8an, 13: hasita. Eta agertoki berean aurkeztuko du Oñatiko Keia taldeak, abenduaren 9an, Musikazuzenean standean salgai izango duen *Erregaia* lana.





**Baskonia**

Iñaki Azkoaga

Ediciones Beta Tercer Milenio



**Intra**

Mila Modu

Elkar argitaletxea



**Ametsen trafikatzaila**

Andoni Urzelai

Elkar argitaletxea



**Bizi bagina bezala**

Nihil

Autoekoiztua



**(Titulu barik)**

Anube

Autoekoiztua



**Infernuko atean**

Rebel Noise

Autoekoiztua



IKER GOZATEGI

## "Protagonista bat du kantu bakoitzak"

**INES OSINAGA URIZAR**  
MUSIKARIA

*Itsasoa da bide bakarra* bakarkako lehen lana aurkeztu berri du Ines Osinaga Urizar musikari arrasatearrak. Urte "intentsua" pasatu ostean, pozik da emaitzarekin. **Diskoa beharrean, albuma dirudi.** Bidaia-kaiera bat da. *Itsasoa da bide bakarra* proiektu osoa da, eta ez luke, nik ulertzen dudan moduan, zentzurik edukiko ez balitz ukituko, ez balu zintatxo gorri hori...

**Egunerokoak zabaldu dituzu. Zelan zaude?** Portua ikusten dut! Bada politikoa ere intimoan gordetzen ditugun dolu horien guztien aitortza. Sorkuntza-lan bat da, ez da autobiografia bat, inondik inora, baina bai nire egiazko zauri eta orbanetatik abiatutako lan bat.

**Laida Zapreri eman zenizkion koadernoak.** Arte-zuzendaria da, eta, Iker Gozategi argazkilaria eta beste artista batzuk lantaldere batuta, lan zoragarria egin dute. **Hamaika artista izan dituzu alboan.**

Plazera izan da euskal eta kubatar emakume artista handiak bidaide izatea. Aurrez sortutako abestietatik abiatuta berriak sortu ditugu. Protagonista bat du kantu bakoitzak, baita doinu tradizionalen eta modernoaren nahasketa ere.

Autoekoiztutako eskualdeko musikari lan berri gehiago eskuratu gura dituenak Musi-kazuzean standean izango du aukera; han izango dira, Nihil taldearen *Bizi bagina bezala* eta Aitor Regueiroren *Hygge*.

### Ekinez eta Potx eta Lotx

Euskal Herriko kaleko musika bultzatzea helburu duen Bergaroko Ekinez elkarteak -Kaset produkzioak eta Tough Ain't Enough Records-ekin batera-jarriko duen saltokian ere eskualdeko lanak izango dira. Eta autoekoiztutako lan gehiago eskuragarri Potx eta Lotx pailazoan postuan.

### Debagoieneko liburak

Elkar argitaletxearen, Elkar Banaketaren eta Autoekoizleen salmahaietan izango dira idazlan berriak eskuragarri. Horietako batzuk jendaurrean aurkezteko dituzte: *Atzamarra*, *Ametsen fabrikatzailea* eta *Zazpi giltzak*.

Eskualdeko zinemagileen lanak, berriak, Irudienean erakutsiko dituzte: Oñatiko Antixena

gatzetxeok egin duten *Ixilik nahi gaituztenean*, Mari abenduaren 9an 17:30ean eta Udaltzaren Geuretik Sortuak ekimenetik jaiotako *Bost teilatu* abenduaren 8an 12:30ean.

### Azoka Telebista

Eguneko protagonistekin egindako erreportajeak eta elkarrizketak bilduko dituzte *EztanDa!* magazinean. Goiena telebistan, 20:00etan eta 22:00etan, eta tokiko beste hedabideetan eskainiko dute. Horrez gain, Durangoko Azokaren atarian *streaming* bidez jarraitu ahal izango dira Ahotseneko zuzeneko askotariko kontzertuak.

Abenduaren 13an, Debagoieneko sortzaileen lanei buruzko saioa eskainiko dute Goiena telebistan, 21:30ean eta 23:30ean.

### 'Zu non, han DA! ekimena

Abenduaren 12tik aurrera, azokako lan berrienak Debagoieneko liburu-dendetan eskuratzeko aukera izango da, eta aurkezpenak izango dira Bergaran eta Antzuolan.

## Goienakideen txokoa

### AZAROKO IRABAZLEAK

#### ERRIGORAKO SASKIA

Jasone Gorroño Aldai (Aretxabaleta)

#### HARREMAN DENDAKO OTARREA

Iñigo Ramirez de Ocariz Telleria (Antzuola)

#### ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK

Alberto Agiriano Bergaretxe (Eskoriatza)  
Amaia Unzurrunzaga Beristain (Arrasate)  
Ane Uribe Alzola (Aretxabaleta)

#### HILARION JATETXERAKO BI PERTSONARENAKO OTORDUA

Lourdes Ugalde Esparza (Onati)

#### MAUXKA JATETXERAKO BI PERTSONARENAKO OTORDUA

Itziar Urrizalki Azpiroz (Aretxabaleta)

#### SANTA ANA JATETXERAKO BI PERTSONARENAKO OTORDUA

Kristina Pavo Nuñez (Antzuola)

#### BERGARAKO BATZOKIRAKO BI PERTSONARENAKO OTORDUA

Jose Luis Agirre Altube (Bergara)

#### 'ITZIAR YAGÜE & PAUL SAN MARTIN' KONTZERTURAKO SARRERAK

Luis Mari Lasagabaster Bengoa (Onati)  
Gabino Iarza (Arrasate)

#### 'NIKO ETXRAT & HAPA-HAPA' KONTZERTURAKO SARRERAK

Sara Inés Vitoria (Arrasate)

#### 'CARLTON JUMER SMITH' KONTZERTURAKO SARRERAK

Begoña Oncala Delgado (Antzuola)  
Ibai Romero Ganboa (Bergara)

#### SARRIAK JASOTZEKO:

**Arrikrutzeko sarrerak.** Goiena Kultureko txokoa eskutik, bira seriea izango dituzte Arrikrutzeko txokotik. Sarrerak hiru hilabeteko epemuga izango dute. **ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK.** Aretxabaletan, OTARDU, 9:43 06 20:00. Orotaroko: asteartetik igandera 10:00 - 17:00 (aurrez diru hitzordua egiteko) Harreman dendako otarrea. **Otarrea** jasotzeko, jo zuzenean, bazkide txartelarekin, Harreman dendara. Arrasateko Erroki hipermerkatuan duzue dendara. **Saskia jasotzeko,** azoka GOIENAKIN egotzaz. Sare jasotzeko: BAZKIDEAREN TXARTELA eskutik edota BAZKIDE ZENBAKIA adierazten duen behar du. GOIENA Otalora Lortuzaduna 31, Arrasate. 943 25 05 05. Orotaroko: astelehenetik eguerrera 09:00 - 18:00. Egubakoitzean 09:00 - 14:00

### Irabazi bi lagunendako otordua

#### ZUMELAGA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: abenduak 7



943 25 05 05



goienakide@goiena.eus



'Goiena app'-e / zozketa atalean.



GOIENAKIDE Jotetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



2023rako Goienakide eginez gero, hermendik aurrera jaso Puntua DOAN  
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia



Ktarsiak ireki zuen kontzertua; argazkian, Ane Arenaza.



Iluminatiz aretxabaletarrek rock doinuak eroan zituzten agertokira.



Erromintxelak: eleganzia eta kalitatea, soinu klasikoagoekin.



Garagartzatik, Etxepe: soinu urbano eta gaur egungoagoak.

# Taldean egosten da talentua

Aurtengo Danbakak bete du ibilbidearen bi heren, eta, aurreko hiru emanaldietan bezala, laugarrenean ere primeran konektatu dute musika taldeek eta publikoak



**HASIER LARREA**

Indarkeria matxistaren aurkako aldarriz bete ziren Bergarako kaleak joan den ostiral arratsaldean, eta Seminarixoan ere modu horretan eman zion hasiera Ktarsia hirukoteak kontzertuari. Gitarra akustikoak eta perkusiozko kaxa lagun, Silvio Rodriguezen *Ojalá* kantu bikaina euskarara moldatuta eta emakume langileen iraultza errebindikatzeko hitzak txertatuta, goiz erakutsi zuten berga-

rar gazteek euren zigilua. Bi abeslarien ahots-korden batuketak liluratu egin zituen entzuleak, jota kantarien erraztasunarekin heltzen baitziren tonu altuetara, afinazioa une oro mantenduta.

Ordu erdi magiko horren ostean, anplifikadoreak piztu eta bateria astintzeari ekin zion Iluminatiz laukoteak. Musika-rekin esperimentatu gura dutela argi ikusi zen: orain, erritmo lasaiak; segidan, *in crescendo* bat; eta, azkenik, abiadura biziko notei bide emanda. Konposizio bakoitzak bazuen bere-

zitasunen bat, talde sailkaezin gisa definitzen dutena. Ahots urratuen iluntasunari gitarra eta baxu jostarien alaitasuna erantsita, ñabardura ugaritako koktela zerbitzatu zieten ikus-entzuleei.

## Klasikotik gazteenera

Halaxe iritsi zen atsedenaldira, edo, hobeto esanda, chill outean zain zegoen Ion Arteaga *Buda* Djaren abaroan murgiltzeko unea. Jendearen aurpegietan ez zen hoztasun izpi bat ere sumatu erritmo dantzagarriek iraun zuten bitartean.

Gerria mugitzeko gogoz zeudenez eskertu egin zuten hirugarren taldearen proposamen dotorea, Erromintxelak-ek jazz eta swing leun eta landua baitzekarren. Jakintza musikal aberatseko kideek tresna organikoen aldeko apustua egiten dute; garbitzeko taularen erritmoan igeri kontrabaxu eta tronpeta sekuentziak, eta gitarra akustikoak hegan, nahieran egituratutako akorde eta inprobisatutako melodien artean. Berehala harrapatzen diren ahotsaren melodiak muturtuta dagoenaren aldarrea ere iraultzeko gai dira; hain da-eta berezia transmititzen duten *flow*-a...

Azken *bala* Etxepe trap kantariak jaurti zuten. Egun bogan dauden musika korranteak gurrera ekartzen jakin dutela ezin uka: kantu herrikoiei oinarri elektronikoak jartzean edo autotunea baliatuta euskaraz abes-

tean, euskal tradizio musikala berritzen ari dira. Eta entzule gazteari erakargarri egiten zaio. Jarraitzaile eta sortzaileen arteko batasuna erabatekoa da; izan ere, abeslariari oholtzatik jaistea bakarrik falta izan zitzairen pareta ikusezina hausteko.

## Talentua agerian

Nork bere esparrutik, talentu handia erakutsi zuten, orokorrean, joan den ostiraleko protagonistek. Elkar ondo ulertzen dute taldeek musikaren hizkuntzan, eta Seminarixoko teknikarien esperientziak asko lagundu zuten sintonia hori modu txukunean azaleratzen. Horregatik egin zitzairen gaua gozagarri Danbakan batutako 400 bat ikus-entzuleei. Final handiaren aurretik, beste lau hautagaik izango dute euren dohainak erakusteko abagunea plaza aparta honetan. Goza dezatela, bada!

**MUSIKAREN PALETA ZABALAREKIN KOADRO EDERRA OSATU ZUTEN LAU TALDEEK**

**NORBERE DOHAINAK TALDEAN LANTZEN JAKINDA, APARTEKOA DA EMAITZA AGERTOKIAN**

Ion Arteaga *Buda* chill out gunean aritu zen.

Ktarsia, zaleen kameratik.



Joan den barikuan Seminarixoa izan zirenak primeran ibili ziren. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO



IMANOL SORIANO

**KTARSIA** | Bergara

Konplexurik gabe eta soberako jarrerarekin aurkeztu zen hirukotea. Metaforaz betetako mezuak pasioz partekatu zituzten, eta testiguen arretaz jarraitu zuten emanaldi samurra. Zeharkako txirularen eta biolinaren ekarpenek balio erantsia gehitu zieten zenbait kanturi.



IMANOL SORIANO

**ERROMINTXELAK** | Arrasate-Bergara

Ijitoen antzera, nomadak dira; kasu honetan, askotariko estiloen nomadak. Jazza oinarri, tresna bakoitza aldarera igo zuten momentu jakinetan, gainontzeko instrumentuek akonpainamenduak eginda. Talentu indibiduala zukutzeko modu hobearik ez da.



IMANOL SORIANO

**ILUMINATIZZ** | Aretxabaleta-Otxandio

Lokalean bezala, are gehiago, etxeko egongelan bezala, aritu ziren. Eroso eta seguru. Egunerok ez da bateria-jole bat hain sutuki abesten ikusten. Koipeztatzen diharduen makineria astuna dira; zuzenekoetan trebatu ahala aterako duten barruko energia osoa.



IMANOL SORIANO

**ETXEPE** | Arrasate

Olatu perfektua tokatu zaie parean, eta primeran ari dira *surfeatzen*. Publiko gaztean zirrara eragiten dute gau giroarekin lotutako pasarteek. Ereserki bihurtu diren kantuak azkenerako uztea beti da arrakastarako edabe ona. Hasi baino ez dira egin.

**Aretoan jasotako iritziak****ANE ARENAZA**

KTARSIA TALDEKO KIDEA

"Kostatu zaigu apur bat, baina hobetzen joan gara eta gustura geratu gara emaitzarekin; bereziki, amaierarekin. Baliatu dugu egun berezia zela, azaroaren 25a, emanaldia emakumeen alde borrokan egunero dabiltzanez eskaintzeko".

**JULEN NARBAIZA**

EPAIMAHAIKO KIDEA

"Gaurkoaren ostean, ezin daiteke gehiagorik eskatu. Oso-osoa gustura geratu naiz laugarren kontzertuarekin; izan ere, denetik izan du. Iruditzen zait agertoki honetan jendaurrean disfrutatzea etortzea jada sari bikaina dela taldeendako".

**ELI MAIDAGAN**

ETXEPE TALDEKO KIDEA

"Itzela izan da. Oso gustura geratu gara. Jende asko zegoen amaieran, sekulako energiarekin, eta hori pozgarria da. Horrelako soinu-ekipoarekin, gainera... Egia esan, azkenaldian, gure kontzertuetan jende asko batu da".

**MAIALEN ARRIZABALAGA**

IKUS-ENTZULEA

"Iluminatiz talde aretxabaletarra ikustera etorri naiz. Bueno, Aretxabaletako kuadrilla osoa etorri gara kontzertura. Eta oso ondo ikusi ditut herrikideak agertokian. Gainera, gogor hasi dira, lehenengo unetik oso animatuta".

**HURRENGO KONTZERTUA**

Abenduak 16, egubakoitza, 21:00. Bergarako Seminarixoa.

- Arragoa
- Islabat
- Orhi
- Sindy Berbenas

**Publikoaren Sariaren sailkapena**

- AIERT**  
Oñati  
Botoen %21,6
- SUKENA**  
Oñati  
Botoen %17,8
- KIIMAK**  
Antzuola  
Botoen %13,8
- ILUMINATIZZ**  
Aretxabaleta-Otxandio  
Botoen %9,3
- BROKEN LEGACY**  
Oñati  
Botoen %6,6
- 112**  
Arrasate  
Botoen %5,9
- KTARSIA**  
Bergara  
Botoen %5,4
- THE CLAYTON**  
Aramaio  
Botoen %5,3
- ERROMINTXELAK**  
Arrasate-Bergara  
Botoen %3,4
- INGUMA**  
Oñati-Bergara  
Botoen %2,4
- JASAN**  
Aretxabaleta-Eskoriatza  
Botoen %2,4
- LEMAK**  
Bergara-Antzuola  
Botoen %2,0
- LETAGIN**  
Oñati  
Botoen %1,4
- BALARRASA**  
Aramaio-Eskoriatza  
Botoen %0,7
- ETXEPE**  
Arrasate  
Botoen %0,7
- EYHARTS**  
Bergara  
Botoen %0,4
- ORHI**  
Bergara  
Botoen %0,4
- ISLABAT**  
Bergara-Elgoibar  
Botoen %0,2
- SINDY BERBENAS**  
Arrasate  
Botoen %0,2
- ARRAGOA**  
Bergara  
Botoen %0,1

**BOTOA EMATEKO**

*Danbaka.eus* webgunean edo *Goiena.eus* webgunearen *Danbaka* izeneko kanalean eman daiteke botoa, **2023ko urtarilaren 10era bitartean.**



## OROIGARRIA

**Jose Mari Usatorre Aranzabal**

Gasteizen hil zen 2022ko azaroaren 25ean.

Auzoaren alde egindako guztia eskertuz, zuregatik eta zurekin lanean jarraituko dugu.

Besarkada handi bat etxekoiei.

Zubillagako jai batzordea.  
Oñatin (Zubillaga), 2022ko abenduaren 2an.

## OROIGARRIA

**Fernanda Arana Barandiaran**

Jose Luis Uribarrenen alarguna

2022ko azaroaren 29an hil zen, 88 urte zituela.

*Zurekin ur gaineke bitsetan ibili gara.  
Zaindu zaitetz, amama  
eta zauden lekutik zaindu gaitzazu.*Etxekoak.  
Arrasaten, 2022ko abenduaren 2an.

## URTEURRENA

**Maria Jesus Elempuru Unzueta**

Timoteo Guridiren alarguna

2021eko abenduaren 4an hil zen, 90 urte zituela.

Urteurreneko meza domekan izango da, abenduaren 4an, 11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokan.

*Urak dakarrena  
urak darama  
baina gure artean  
beti geldituko da  
zure oroimena.*Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Antzuolan, 2022ko abenduaren 2an.

## ESKER ONA

**Maria Luisa Arenaza Urrutia**

—Goian bego—

2022ko azaroaren 26an hil zen, 93 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Aretxabaletan, 2022ko abenduaren 2an.

## ESKER ONA

**Pedro Iburguren Unanue**

'Tio Pedro'

2022ko azaroaren 30ean hil zen, 94 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2022ko abenduaren 2an.

## ESKER ONA

**Jesus Ruiz de Eginu Ruiz de Gauna**

2022ko azaroaren 22an hil zen, 77 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2022ko abenduaren 2an.

## ESKER ONA

**Jesus Mari Arrokalde Villar**

2022ko urriaren 23an hil zen.

*Gure gogoan izango zara beti.*

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkizuguenoi, eskerrik asko, sendikoen izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, abenduaren 3an, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zuretik eskerrik asko.

Oñatin, 2022ko abenduaren 2an.

## ESKER ONA

**Fina Rodriguez Rodriguez**

2022ko azaroaren 28an hil zen, 78 urte zituela.

Senarra: Manuel Otero. Seme-alabak: Daniel, Maribel eta Iñaki Velez de Mendizabal. Bilobak: Maialen, Unai. Anai-arrebak, koinatu-koinatak, lobak eta gainerako senideak.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi.

Fina familia artean agurtu dugula jakinarazten dizuegu.

Arrasaten, 2022ko abenduaren 2an.

**Oroilore**Maitasunez bizi,  
maitasunez agurtu*Gure artean agurtutako guztiei euren bidea aurkitzen lagundu diegu, orain arte bezala, eta guztiek izango dute agur berezia Oroiloren.**Gure eskerrik beroenak gugan izan duzun konfiantzagatik eta maitasunagatik.***Mario, Iban eta Maribi**Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA  
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

## BERRI-ZAKUA

**5.000 euro pasa Ametzarendako** Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan gaztainak eta hostoak salduz batu zuten dirua Baionako ikastolarendako.**Bertso-poteoa** Aitor Bizkarra, Maialen Akizu eta Aitor Sarriegi bertsolariak egin zuten, Antzuolan, herriko trikitilariak lagunduta, Euskaraldiaren baitan.**'Tomaxen abenturak'** Tomax pailazoak bisita egin zien aurrekoan Oñatiko Urgain eskolako neska-mutikoei. Arratsalde dotorea pasa zuten, dantzan eta kantuan.

## ASTEAGOIENA TELEBISTAN

**OÑATIKO ORKESTRAREN KONTZERTUA**

Aitor Biainek zuzentzen duen Aequis Ensemble taldearen lehen emanaldia ikusteko aukera: *Eventide* delakoa.

'Bereziak' Domeka, 19:00

**'LANGILE KUALIFIKATUAK, EGUNGO ERRONKA'**

Ulma taldeko hainbat langileekin eta Miguel Altunako ikasleekin egin dugu berba gai horren gainean.

'Bereziak' Egubakoitza, 21:30 eta 23:30

**ILUMINATIZZ ETA KTARSIA TALDEAK**

Danbakaren hirugarren kontzertuan Seminarixoko oholtzan ikusi genituen Iluminatizz aretxabaletarrak eta Ktarsia bergararrak.

'Danbaka' Egubakoitza: Iluminatizz, 14:30 eta Ktarsia, 16:30

**EGUNEROKO SAIOA DURANGOKO AZOKARI BURUZ**

Durangoko Azoka Telebistak ekoiztutako eguneroko magazina eskainiko du Goiena telebistak.

'EztanDA!' Eguneroko, 20:00 eta 22:00

**AINGERU EPALTZARI ELKARRIZKETA**

Kazetari nafarrak aurrez aurre izango ditugu *Elkarrizkettap* saioan: Aingeru Epaltza eta Juan Kruz Lakasta.

'Elkarrizkettap' Eguaztena, 21:30 eta 23:30



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

[goiena.eus/telebista](http://goiena.eus/telebista)

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / [kultura@goiena.eus](mailto:kultura@goiena.eus)

**EGUBAKOITZA 2****ARAMAIO 'Herria kantuz' saioa**

Alaiak abesbatzak eta eskolako umeek egingo dute. Ikasleendako ipuin saioa, Maider Alcelayrekin. *Herriko kaleetan*, 11:00etan.

**OÑATI Jolasak gaztetxoendako**

Euskaraldiaren baitan. *Gaztelekuan*, 17:00etan.

**ARRASATE Jostailu truke merkaturako bilketa**

Ordutegia: 17:00-18:30. *Biteri plazan*.

**OÑATI Euskal kantuak eta txokolate-jana**

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira. Ikastetxeetako ikasleek bizkotxoak salduko dituzte, euro baten.

*Foruen plazan*, 18:00etan.

**BERGARA 'Nor zer Telesforo Monzon?' hitzaldia**

Ernaik antolatuta. *Olaso dorrean*, 18:00etan.

ARRASATE Euskaraldiari agurra Haurrentzako jolasak, Euskaraldiko koreografia, ekitaldiaren hasiera, txapa-topa eta talde-argazkia. *Biteri plazan*, 18:30etan.

**OÑATI Aloña abesbatzaren emanaldia**

Pake Lekuren Kultura Astean. *Santa Anan*, 18:30etan.

**ESKORIATZA Niala magoa**

Euskaraldiaren baitan. *Fernando Eskoriatza plazan*, 18:30etan.

**BERGARA Bertso-jira**

Ainhoa Agirreazaldegirekin eta Aner Peritzekin, Euskaraldia agurtzeko. *San Martin plazan*, 19:30etan.

**OÑATI Nizuri Tazuneri eta Etxepe taldeak**

Euskaraldiaren baitan. Debalde. *Gaztetxean*, 20:00etan.

**BERGARA Feline eta Sonic Trash taldeak**

Sarrerak, zortzi euro. *Kartzela zaharrean*, 22:00etan.

**BERGARA Kiimak taldea**

Debalde. *Arrano tabernan*, 22:30etan.

**ZAPATUA 3****ARRASATE Ttak Eguna**

12:00etan, Asisko Urmenetaren *Amaiur Liberate State* liburuaren aurkezpena; 14:30etan, bazkaria; 17:30etan, bazkaloste akustikoa; 19:00etan, poteo musikatua; eta, 22:30etan, Oihu, Etxepe eta Muxutrik Erromeria taldeak. Sarrerak, hiru euro *Gaztetxean*.

**ARRASATE Jostailu truke merkaturako bilketa**

Entregatzeko ordutegia: 12:00-13:30.

*Biteri plazan*.

**ARAMAIO 'Aramaixon euskaraz bizi gura dot' herri lasterketa**

Ostean, triki-kalejira eta kantu bazkaria, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira.

*Bizente Goikoetxea plazan*, 12:00etan.

**ELGETA Bertso-bazkaria**

Miren Amurizak eta Aitor Sarriegik egingo dute bertsoan.

*Elgetako bolatokian*, 14:00etan.

**ANTZUOLA Pilota jaialdia**

Eskolartekoa. *Pilotalekuan*, 16:00etan.

**OÑATI Ipuin kontaketa antzeztua**

Jose Migel Barandiaranek jasotako kondaira mitologikoak ezagutzeko aukera, Marimundukoren eskutik. Izenak: 943-78 28 94 edo [arantzazu@gipuzkoanatura.eus](mailto:arantzazu@gipuzkoanatura.eus). *Parketxean*, 16:30etan.

**ARRASATE Margo taldearen erakusketa**

Hilaren 21era arte ikus daitezke margolanak.

*Kulturaten*, 17:30etan.

**ARRASATE Tatoo tailerra hennarekin**

Gaztetxoendako. *Tren geltokiko gaztelekuan*, 18:00etan.

**ESKORIATZA Aukeran dantza konpainia**

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira.

*Fernando Eskoriatza plazan*, 19:00etan.

**ARETXABALETA Ixotu! taldearen aurkezpena**

Aretxabaletako Gazte Mugimenduaren baitan sortutako euskara taldea. Ondoren, Eten talde aretxabaletarren kontzertua.

*Herriko Plazan*, 19:30etan.

**ANTZUOLA Euskaraldiari agurra**

20:00etan, karro-poteoa, Mox tabernatik hasita; eta, 22:30etan, DBQ, Motz eta Kalimonstruo DJ gaztetxean.

*Antzuolan*.

**OÑATI Bertso-afaria**

Aitor Tatiegirekin eta Maider Arregirekin, Pake Lekuk antolatutako Kultura Astearen baitan.

*Pake Lekun*, 20:30etan.

**OÑATI Potemkin, Rodeo eta John Dealer & The Coconuts (sarrerak agortuta)**

Euskaraldiaren baitan. *Gaztelekuan*, 22:00etan.

**ESKORIATZA Piztiak taldea**

Ondarroako eta Mutrikuko musikariz osatutako taldea. Debalde.

*Inkernu tabernan*, 22:30etan.

**DOMEKA 4****ELGETA Bisita gidatua lubakietara**

Izenak emateko: 943-79 64 63 edo [turismo@debagoiena.eus](mailto:turismo@debagoiena.eus).

*Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan*, 10:00etan.

**BERGARA Argazki erakusketa**

Arizondo argazki elkartearen lanak ikusteko azken eguna da gaur.

*Aroztegin*, 12:00etan.

**ARRASATE Karaokea**

Abesteko aukera izango dute gaztetxoek.

*Tren geltokiko gaztelekuan*, 18:00etan.



FELINE

**BERGARA Feline eta Sonic Trash taldeak**

Bilboko bi talde oholza gainean. 2019an sortutako Felineren punk eta dark-pop doinuak eta 2001ean jaiotako Sonic Trashen rock bortitza zuzenean entzuteko aukera. Sarrerak, zortzi euro. *Bihar, egubakoitza, kartzela zaharrear, 22:00etan.*

**OÑATI 'Eventide' emanaldia**

Aequus Ensembleren aurkezpen kontzertua. Sarrerak, bost eurotan, Txokolateixan eta *Oñati.eus*-en. *Bidaurretan, 19:00etan.*

**ARRASATE Akordeoi lehiaketa**

Nazioarteko lehiaketaren finala jokatu da; eta ostean, sari banaketa. *Amaitzokian, 20:00etan.*

**ASTELEHENA 5****OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko. *Foruen plazan, 12:00etan.*

**BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko. *San Martin plazan, 12:00etan.*

**ARRASATE Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

**ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea**

Pentsio duinak eskatzeko. *Herriko Plazan, 12:00etan.*

**ESKORIATZA Gabonetako postal lehiaketaren aurkezpena**

HHko eta LHko umeendako lehiaketa. Postalak aurkezteko epea: abenduaren 16a. Ume bakoitzak gura beste postal aurkez ditzake. *Ludotekan, 16:45ean.*

**MARTITZENA 6****OÑATI Espeleo Txiki**

6 urtetik gorakoendako. Izenak emateko: 943-08 20 00 edo *arrikruz@onati.eus*. *Arrikruzten, 10:30etan.*

**ARRASATE San Nikolas boloa**

Gozokiak batzeko aukera izango dute neska-mutikoen. *Herriko Plazan, 12:30etan.*

**OÑATI 'Oñatiko altxorak' bisita gidatua**

Sancti Spiritus unibertsitatea eta San Migel parrokia bisita bakarrear ikusteko aukera. Izenak emateko: 943-78 34 53. *Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

**EGUAZTENA 7****ESKORIATZA Gabonetako galletak**

Bi txandatan: 16:45ean, HHkoak eta 18:00etan LHkoak. *Ludotekan.*

**EGUENA 8****OÑATI Espeleo-Arrikruz**

Arrikruzteko espeka handia edo Aldaola errearen lur-azpiko ibilguaren edertasunarekin gozatzeko aukera. Izenak aurrez eman behar dira: 943-08 20 00 edo *arrikruz@onati.eus*. *Arrikruzten, 10:30etan.*

**BERGARA Bergara Hiria emakumezkoen eskubaloi txapelketa**

Debagoienako, Gipuzkoako eta Errioxako selekzioen artekoa. *Labegarrietan, 10:30etan.*

**BERGARA Pilota partiduak**

Binakako txapelketakoa jokatu dute Laso-Imaz eta Peña II.a-Mariekurrena II.a bikoteek. *Pilotalekuan, 17:00etan.*

**OÑATI 'Ixilik nahi gaituztanean, Mari' filmaren estreinaldia**

Oñatiko gaztetxe mugimenduaren 40 urteak kontatzen dituen filma. Herritar guztiendako. Ostean, hilaren 9an, 10ean eta 11n, Santa Anan emango dute. *Zinema aretoan, 19:00etan.*

**EGUBAKOITZA 9****OÑATI 'Kandela argitan'**

Sancti Spiritus unibertsitatea argiztapen bereziarekin ikusteko. *Unibertsitate zaharrear, 18:00etatik 20:00etara.*

**ELGETA Herrixa Dantzan, Escamot Catala taldearekin**

Dantzaldia, zuzeneko musikarekin. Afaltzeko aukera egongo da. *Espaloian, 19:00etan.*

**ZAPATUA 10****ELGETA 'Elgetako eliza', bisita gidatua**

Santiagoren erretaula, Simon Gutierrezen olioak, Coffermansen triptikoa... ezagutzeko aukera, Nerea Villak gidatuta. Izena emateko azken eguna: abenduak 7 (*infoturismo@debagoiena.eus*). *Parrokian, 10:00etan.*

**BERGARA Herrixa Dantzan, Escamot Catala taldearekin**  
Dantzaldia, zuzeneko musikarekin. *Seminarixoan, 18:00etan.*

**OÑATI 'Kandela argitan'**

Sancti Spiritus unibertsitatea argiztapen bereziarekin ikusteko aukera. *Unibertsitate zaharrear, 18:00etatik 20:00etara.*

**ZINEMA****BERGARA****SEMINARIXOA**

**Berpiztu**  
Egubakoitza, domeka eta astelehena: 19:30.  
**Izurde mutikoa**  
Domeka: 17:00.

**OÑATI****KULTURA ETXEA**

**Gabi, 8 urtetik 13 urtera**  
Egubakoitza eta zapatua: 22:00. Domeka: 19:30, 22:00. Astelehena: 19:30.

**Nire zirkua**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**ARETXABALETA****ARKUPE**

**No mires a los ojos**  
Egubakoitza: 22:00. Zapatua eta domeka: 19:30. Astelehena: 16:00.

**Minions**  
Zapatua eta domeka: 17:00.

**GASTEIZ****FLORIDA**

**A todo tren 2**  
Egubakoitza, astelehena eta eguaztina: 17:45, 20:00, 22:15. Zapatua: 12:00, 17:00, 19:30, 21:45. Domeka, martitzena eta eguena: 12:00, 17:00, 19:15, 21:30.

**As bestas**  
Egubakoitza, zapatua, astelehena eta eguaztina: 17:00, 19:45, 22:30. Domeka eta martitzena: 17:15, 20:00. Eguena: 17:15.

**Berpiztu**  
Egubakoitza: 19:45. Zapatua, astelehena eta eguaztina: 17:15. Domeka, martitzena eta eguena: 17:30.

**Black panther**  
Egubakoitza, astelehena eta eguaztina: 17:00. Zapatua, domeka,

martitzena eta eguena: 11:30, 17:00.

**Close**  
Egubakoitza, zapatua, astelehena, eta eguaztina: 20:00, 22:15. Domeka, martitzena eta eguena: 19:45, 22:00.

**El cuarto pasajero**  
Egubakoitzetik eguenera: 22:15.

**El menu**  
Egubakoitza, zapatua, astelehena eta eguaztina: 17:00, 19:30, 22:00. Domeka, martitzena eta eguena: 17:30, 19:45, 22:15.

**Hasta los huesos**  
Egubakoitza, zapatua, astelehena eta eguaztina: 22:30. Domeka, martitzena eta eguena: 22:00.

**Historias para no contar**  
Egubakoitza: 17:15, 22:00.

Zapatua, astelehena eta eguaztina: 19:30, 21:45. Domeka, martitzena eta eguena: 19:45, 22:00.

**Hopper pollo-liebre**  
Zapatua, domeka, martitzena eta eguena: 11:45.

**La emperatriz rebelde**  
Egubakoitzetik eguenera: 20:15, 22:35.

**La mujer rey**  
Egubakoitza, astelehena eta eguaztina: 17:15. Zapatua: 11:30, 17:15. Domeka, martitzena eta eguena: 11:30, 17:00.

**Suro**  
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00. Domeka eta eguena: 17:00, 19:30.

Astelehena eta eguaztina: 17:30, 19:45. Martitzena: 17:00, 19:45.

**KRITIKA****Suro**

**Zuz.:** Mikel Guerra. **Herr.:** Espainia (2022). **Aktoreak:** Vicky Luengo, Pol Lopez, Llyas El Ouahdani. **Iraupena:** 116 minutu. ★★★★★

**Bizi-proiektu gatazkatsua****ANTONIO ZABALA**

Hiriburuan bizi den bikote batek mendian duen baserri batera bizitzera joatea erabakitzen du, bizi-proiektu berri bat eraikitzea pentsatu edo amestu duelako. Ingurunean artelatzak dituzte, eta artelatetik kortxo atera dezakete. Neska praktikoagoa da, eta hiriko bizimodua eta diseinua mendiko baserrira eramanez nahi ditu. Mutilak, aldiz, nekazaritzako ingurunean integratzea bilatuko du. Bikotea, hasieran, oso pozik dago, baina, poliki-poliki, gauzak aldatzen joango dira. Bakoitza bere aldetik mugituko da, bestearen nahiak edo beharrak kontuan hartu barik. Hala, euren arteko inkomunikazioa areagotuz joango da kontakizunak aurrera egin ahala.

Artelatzak ustiatzeko, inguruko pertsonen eta kanpotik etorritakoen eskulana beharko dute. Hor, kapitalismoarekin eta arrazakeriarekin zerikusi duen gatazka sortuko da. Horrela, hasieran kutsu idealista izan dezakeen proiektua aldatzen joango da. Hasieran bikotearen harreman sentimentalari buruzko istorioa dela pentsatu arren, filma thriller kutsua hartzen joango da. Landa-eremuko bizitza idilikoaren ideia amesgaizto bihurtuko da. Ikusiko dugu nola poliki-poliki euren proiektuak eskuetatik ihes egiten dien. Zuzendariak ederki islatzen dizkigu pertsonaien ametsak, beharrak eta gatazkak; eta bigarren zatian, tentsioa eta kutsu asaldagarria.



AZKEN BERBA

MARIA AGIRRE

## Burua altxatuko balu

Gaur egun behar diren erantzunak Arizmendiarrietak aspaldi eman zituela iritzi zion Iñaki Gabilondok, duela gutxi Arrasaten egindako hitzaldian. Arizmendiarrietaren Lagunak Elkarteak gonbidatuta etorri zen, kooperatibismoaren sortzailea aurrez aurre ezagutzeko aukera izan baitzuen kazetariak.

Helburua beste bat izanik, Gabilondok ez zuen aipatu Ulmaren, Oronaren eta Mondragon korporazioaren artean sortu den korapiloa. Arizmendiarrietak, baina, soluzioak bilatzen abila bazen, pentsatzekoa da ez zela anai-arreben arteko liskarraren erdian eskuak gurutzatuta geratuko. Herri honetan sotanadun askok egin legez, bitarteko lanetan imajinatzen dut nik. Zeren, egon ete da bitartekaritza kooperatibismoaren baitan bizi izandako krisi honetan? Egin diren akusazio gogorrek entzunda, ezetz ematen du, ez dela inor saiatu.

Bi aste barru argituko ei da dena. Orduan jakingo dugu dibortziorik egongo ete den Arrasateko kooperatibismoaren baitan. Gertatzen dena gertatzen dela, baina, Copreciko langile bat eta Ulma Packagineko beste bat Gabonetako poteoan elkartuko dira laster, edo mahai berean eseriko dira familia bazkarian.

GOIENA OKM GIDA

# "Azken unean dakigu zer jango dugun Gabonetan"

JON DIAZ JON HARATEGIA

Txikitan harategian erosketak egitea gustatzen zitzaion eta gaur egun negozioa dauka; Gabonetan "betikoa" saltzen duela dio; hau da, azpizuna eta txuleta

Idoia Aranbarri ARETXABALETA

1999an zabaldu zuen harategia Loramendi auzoan, eta 2019an lekualdatu zen Durana kalera. Inguruko baserrietako jeneroa saldu izan dute betidanik, baina, erdigunera joanda lokala handiagoa zenez, eskaintza zabaldu zuten. Elikagai gehiago kozinatzen dituzte, eta janaria prestatzeko probekin ere hasi dira duela gutxi. Dagoeneko bezeroak hasi dira jakiak enkargatzen Gabonei begira.

**Nolatan harakin?**

Betidanik gustatu izan zaidan zerbait da. Gogoratzen naiz nola amak erosketak egitera bidaltzen ninduen, eta asko gustatzen zitzaidan harategira joatea. Ikasketetan ez nintzen oso trebea, eta, tira, harakin lanetan hasi nintzen.

**Gabonak gertu daude. Egun horietarako eskaintza berezirik baduzu?** Izokin ketua ekartzen dugu data hauetarako, baina, bestela, ez dugu ezer berezirik izaten. Lehen, oilasko edo indioilar beteak egiten genituen, baina ez ziren askorik saltzen.

**Gabonetako enkarguak egiten hasi dira bezeroak?**

Bai. Batzuk azken unera arte egoten dira zain, baina guk dau-



Jon Diaz, eguaztenean, harategian. I.A.A.

## Harategiko erosketak Internet bidez?

"Gu zortea dugun sektorea gara; normalean, ondo saltzen dugu. Hala ere, Internet sektore honetan sartuko da, ziur. Egia da gizartean online erosketak egiteko ohitura badagoela, baina gu, momentuz, libratzen ari gara. Pandemian hasi ziren txuleta online saltzen. Egia da guri, agian, mina baserriarren paketeek egiten digutela. Azkenean, harakinak baserrietan ez badu txahala erosten, baserriarrak zerbait egin behar du".

kagun jeneroa daukagu, eta saltzen denean, listo.

**Gabonetan zer eskatu ohi dizute bezeroek?**

Betikoa saltzen da: azpizuna, txuleta, entrekotak, bildotsa... Urdaiazpiko bereziagoa eta pateak ere eskatzen dituzte.

**Eta zuen etxean zer jaten da?**

Harategian sobratzen dena jaten dugu. Amak beti galdetzen dit, baina azken unean dakigu zein izango den gure menua.

**Gabonak nola ospatuko dituzu?**

Familian. Ezin gara kanpora joan, lana daukagulako. Lehen, batzuetan, Potesera joaten ginen, aita hangoa baitzen. Etxea daukagu eta, batzuetan, hara joaten gara egunak pasatzera.

**Lanaren alderik onena?**

Jendearekin dudana tratua eta inoren menpe lanik egin behar ez izatea da onena. Bezeroen erantzun onak ere bete egiten nau. Ederra da norberaren produkturen bat erosi eta goxoa dagoela esaten dutenean; lanean jarraitzea motibatzen nau.

**Lanetik gutxien gustatzen zaizuna?**

Ordutegia eta oporrak, adibidez. Lan lotua da; badakizu noiz sartzen zaren, baina ez dakizu noiz aterako zaren. Bestalde, opor-egun gutxi daukagu.

**Bada, denbora libre duzunean zer egitea gustatzen zaizu?**

Motorzalea naiz. Motorrean ibiltzea eta horren inguruko lasterketak, zirkuituak... gustatzen zaizkit. Paseoak egiten ditut. Bestalde, mutikoari arrantzan egitea gustatzen zaio. Hara, harakina arrantzan.

Goiena OKM  
Gidaren  
eskaintza  
osoa



goiena  
Okm  
gida

# DANBAKA )))))

MUSIKA LEHIAKETA

BABESLEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputazioa Foru Aldundia  
Bergarako Udala

LADUNTZARLEA  
SEIN

ANTOLATZARLEA  
goiena

## ARRAGOA ISLABAT • ORHI SINDY BERBENAS

Bergarako Seminarixoa  
Abenduaren 16an, egubakoitza | 21:30

Chill out gunea. 20:00etatik aurrera.  
San Martín plazan DOAN  
Artista gonbidatua: DJ LP Woman (Lara Peman)